

Martin

Ugaldes

Idazlan politikoak
Periodismo político

Prestatzailea
Joan Mari Torrealdai

Martin Ugalde

IDAZLAN POLITIKOAK
Periodismo político

Prestatzailea
Joan Mari Torrealdei

Galerazia dago liburu honen kopia egitea, osoa zein zatikakoa, argitaraldi honen jabeen baimenik gabe.

Azalaren diseinua: Nestor Basterretxea

Maketa eta fotokonposaketa: Imanol Tapia

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L. Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

Argazkiak: Argazkirik gehien-gehienak "Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena" liburukoak dira, Martin Ugalderen artxibokoak.

© Martin Ugalde Orradre

© Joan Mari Torrealdai Nabea

ISBN: 84-607-9058-4

LG.: SS. 1235/2003

AURKIBIDEA

● Introducción. Begoña Errazti	9
● Aberria helburu. Martin Ugalde	11
● Aurkezpena. Joan Mari Torrealdai	17
● Bio-bibliografía politikoa	21
● Martin Ugalde politikan	31
- Caracasen ere abertzale	33
- Ajuriagerraren itzalean	34
- Alderdi, aldizkari ofiziala klandestinitatean	39
- Urrutiratzetik hausturara	54
- ETA-ko gazteekiko errespetua	59
● Idazlan politikoak	63
- Justicia para Galíndez	65
- Aguirre: la democracia vasca en el exilio	67
- Por qué los vascos defendieron la República.....	75
- Companys	79
- Diferencia entre generaciones	80
- La apatía política del pueblo vasco	83
- Los nuevos rumbos	86
- Aberri eguna eta "independentzia"	91
- Euzkadi ¿a dónde va? (1)	92
- Sabin jaio zala eun urte	95
- José Antonio de Aguirre, el político.....	97
- Euzkadi ¿a dónde va? (2)	100
- Lucio de Arechavaleta	107
- Indarra eta indarkeria	110
- Los vascos y la resurrección	114
- PNV	117
- Solzhenitsyn y Añoberos.....	123
- Guernica aberri-eguna 1975 unión vasca	126
- La censura y Euskadi.....	128
- Marchais eta gu	133
- Erria, errialdea eta "provincia"	134

- Eskuina eta ezkerria	135
- Berazadi	136
- Sánchez Albornoz eta atzeratuak	138
- Taldekeria.....	143
- Militarrak eta autonomia	144
- Herri-nazioak eta errejioak	145
- Honorable Tarradellas, señor Leizaola	147
- Tenemos que asumir Euzkadi en toda su complejidad	150
- La encrucijada política de Navarra.....	154
- El PSOE de Euzkadi en "Aberri eguna"	157
- El EAJ-PNV en "Aberri eguna"	160
- Askatasuna eta Sabino Arana (Rikardo Arregiren oroigarri)	163
- El ejemplo de Ajuriaguerra	166
- La Euzkadi del PSE (PSOE)	168
- Autonomía, estatuto y democracia	170
- El camino del estatuto de Gernika.....	172
- L.O.A.P.A. eta beste sasiak	174
- La caza al obispo	177
- Sabino de Arana y el nacionalismo vasco.....	180
- José Antonio de Aguirre y el problema generacional en Euskadi....	182
- En la misma piedra	190
- El dolor de Navarra en Peio Mari	192
- "Aberri eguna"ren gaurkotasuna.....	195
- La ética política del PSOE.....	197
- El elogio de las instituciones vascas	199
- Estatutoa berez hil dadin	201
- Ez gaituzte ulertzen	203
- Herri Batasunaren ukapena.....	205
- Santanderreko alkatea, PSOE eta Euskadi.....	207
- Arturo Campion nazionalista al zen?	209
- Fraga eta seguritate soziala.....	211
- Autonomía, sozialistak eta udalak (1).....	213
- Autonomía, sozialistak eta udalak (2).....	215
- Violencia en Euskadi.....	217
- Intelektualak Euskal Herriaren aurrean	220
- Santi Brouard.....	223
- Nos estamos jugando el proyecto nacional vasco	224
- La llave está en Vizcaya.....	226
- XIX. mendeko abertzaletasuna XX.aren bezperetan	228
- Eusko Alkartasunaren sorreraz hitz bi.....	229
- El síndrome electoral	231
- Paz a todos los muertos	233

- Euskara eta politika.....	237
- Euskara eta askatasuna	238
- Iñaki Aspiazu: promesa baten historia	240
- Los partidos vascos y el euskara	243
- Maritxu Barriola (1908-1988)	245
- Jesús Maria de Leizaola (1896-1989)	247
- Las razones para la desunión	252
- En la misma piedra	254
- Joseba Elozegi, su eramalea.....	256
- Elkartuko bagina.....	258
- Euskal politikagintza, atzo eta gaur.....	260
- Euskal koherentzia Jaurlaritzan	264
- Gorrotatzen dugun gerra	265
- Matematikazko abertzaletasuna	266
- Demokraziaren izpiritua	267
- Beste biolentzia	268
- Residuos nacionalistas.....	269
- Guy Héraud	273
- Probintzialismoa	274
- Politikaren zulo beltzak	275
- Profesionalak eta politikoak	276
- Ene aberri.....	278
- "Egalité"	279
- Euskal partidismoaren zentzua	280
- Abertzaletasuna eta praktikotasuna	281
- Osotasuna eta taldekeria	282
- Ikurrinaren historia laburra	283
- "Espainian sartuko dugu".....	285
- ELA Aberri eguna	286
- Herria eta herritasuna	287
- Naziotasuna berraurkitzen.....	288
- Sindikalgintza eta politika	289
- Sanz ez da Nafarroa	290
- Autodeterminazioaren bi muturrak	291
● Aurkibideak	293
- Izenen arabera.....	295
- Gaien arabera	301

INTRODUCCIÓN

Begoña Errazti Esnal

Como Presidenta de Eusko Alkartasuna, quiero mostrar el orgullo de mi partido por contar, desde nuestra fundación, con un militante de la talla humana y política de Martín Ugalde. El orgullo, no sólo por ser una figura preclara en el ámbito cultural, sino también por ser una buena persona que, desde su sentido del compromiso como totalidad, ha pasado toda la vida trabajando, luchando, a favor de las libertades individuales y colectivas de la ciudadanía vasca; ha luchado pacíficamente, con radicalidad democrática, a favor de la construcción nacional de Euskal Herria, con mentalidad abierta y el espíritu universal fruto de su experiencia vital del exilio.

Y también creo que es una obligación para nuestro partido rendir homenaje a Martín Ugalde, tanto por sus méritos en el ámbito cultural y político, como por el derecho que tiene la sociedad vasca a contar con modelos y puntos de referencia de lo que debe ser el espíritu cívico, el espíritu de servicio a una comunidad.

Cuando en nuestra sociedad, desgraciadamente, todavía quedan personas para las que los derechos humanos son principios meramente instrumentales sometidos a estrategias coyunturales, es importante y necesario resaltar la personalidad de Martín Ugalde que, en situaciones difíciles, caracterizadas por una carga enorme de injusticia, siempre luchó por nuestro País con la fuerza de la palabra, con la fuerza de la razón. Para quienes siguen anclados en la estrategia de la violencia, diciendo defender a nuestro Pueblo, sin contar con él, Martín Ugalde constituye, o debe constituir, un llamamiento a emprender vías de construcción nacional que es aquélla que se basa en la confrontación democrática, en el respeto de la voz y la decisión de Euskal Herria expresada pacífica y democráticamente.

Los más de ochenta años de fructífera vida de Martín Ugalde, constituyen también un acicate para nuestra juventud a la hora de trabajar por la libertad de nuestro pueblo, a la hora de hacer política.

Martín es el exponente de una generación que luchó por unos principios con constancia, con sacrificio; una generación que supo adquirir un compromiso sólido, permanente en la lucha por unos ideales, por la supervivencia de un Pueblo, de una cultura, de nuestra lengua: Y esto lo hicieron en circunstancias, objetivamente muy difíciles.

Hoy, en nuestra satisfecha sociedad del bienestar, cuando todo es aparentemente mucho más fácil y asequible, paradójicamente, puede resultar más difícil esa decisión de implicarse, comprometerse, en la defensa de unos ideales que siguen siendo necesarios. Hoy, las libertades individuales y colectivas de todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas de Euskal Herria siguen estando cuestionadas, siguen en peligro. Entre quienes siguen empeñados en despreciar los derechos humanos, sembrando nuestro País de tragedia y dolor, y entre aquéllos otros que con la fuerza de los aparatos del Estado y la manipulación sistemática de medios de comunicación pretenden imponer el pensamiento único.

La existencia de Martín Ugalde es una garantía de que, por mucho que manipulen, por mucho que intenten mezclar con la violencia a proyectos políticos abertzales y radicalmente democráticos, si seguimos el ejemplo de Martín Ugalde, no podrán con un Pueblo como el nuestro que ama la vida, la libertad, que- sin despreciar a nada ni a nadie- pretende seguir viviendo con su lengua, con su cultura, con su propia idiosincrasia.

Finalmente, quiero subrayar otra característica de esa generación que hoy se ve representada por la figura de Martín Ugalde: su concepción de la política que se podría resumir en el concepto de generosidad. Esta forma de vivir la política, basada en el espíritu de servicio, en la austeridad, en la honradez, es un buen referente - y necesario - para nuestros días.

Estas breves reflexiones son para rendir homenaje a Martín, un homenaje agradecido a su trayectoria vital y a su compromiso con una Euskadi diferente, con una Euskal Herria libre compuesta de hombres y mujeres libres en todos y cada uno de los herrialdes que forman nuestro País, desde el Ebro hasta el Adour.

ABERRIA HELBURU


Martin Ugalde

Errazti lehendakari anderea, alderdiko burukide eta bestelako agintari agurgarriak, alderdikide eta lagun maiteok.

Hasi baino lehen, zuei denoi, beste edozeren aurretik, eskerrak ematea ezinbestekoa egiten zait, omenaldi hau zuen emankortasun eta maitasunaren adierazle delako, batez ere.

Bestalde, belaunaldi oso baten aldeko omenaldi bezala ere ikusten dut gaurko ekitaldi hau. Nire belaunaldiko abertzale guztiei eskerrak eman nahi nizkieke, beraz, gaur arte gure herriaren oinarrizko balioak, estiloa eta kultura defendatzen, zabaltzen eta irakasten lortu duten guztiagatik.

Zorte on ikaragarria izan dut gauza askotan, behar nuen tokian eta behar zen garaian aurkitu naizelako: 15 urte nituela, 1936 garrean, Agirre Lehendakaria ikusi nuen Bilboko Plaza Eliptikoan Gudarien martxa presiditzen. Nork esan behar



Eusko Alkartasunak Martin Ugalderi Miramar jauregian egindako omenaldi. Ekitaldi honetarako prestatu zuen Martinek "Aberria helburu" hitzaldia, Unai semeak irakurri zuena (2001).

zidan niri hamabost urte geroago, Caracas-en eta kazetari gisa prentsaurrekoa antolatzen zerbitzatzeko parada izango nuenik? Eta urte pare bat beranduago, 1959an, Venezuelan bertan, eta bere eskutik, 'Hiltzaileak' ipuina zela kausa, lehen sariko urrezko domina jasotzeko ohorea izango nuenik? Handik urtebetera, Parisen bihotzekoak jota hil zenean, neuri egokitu zitzaidan Caracasen, Centro Vasco presidente gisan haren elizkizunetan buru egitea. Nork esan behar zidan hori niri?

Eta halaxe gertatu, alajainkoa!

Jesus Maria Leizaola izendatu zuten ordeko, 1960 garrenean. Juan Ajuriagerra-ren bitartez bildu ninduen Baionako hotel batean. Eta zehaztu egin zidan nire egitekoa: EAJko kontseilaritza isilpean bete behar nuela, barruan, interiorrean, alegia, Alderdi aldizkaria egiten jarraituz. Síntesis de la historia del País Vasco idazten ari nintzenean gertatu zen hau guztia.

Halako batean, hil zen Franco, 1975 garrenean. Azkar noa, badakit. Baina ez nuke inor aspertu nahi.

Handik urtebetera itzuli ginen etxera, eta utzi egin nuen politikagintza. Baina, hala ere, interes handiz jarraitu nuen Karlos Garaikoetxea jaunaren hautapena. Eta bere gidaritzapean euskarako zuzendari izateak ohore handia izan zen niretzat.

Ajuriagerrak agindu zidan bi hizkuntzetan argitaratzekoa zen 'Deia' egunkarian, euskarazkoak nire ardura izan behar zuela, eta halaxe sartu nintzen euskarazko kazetaritza lanean. Handik urte askora, Euskaldunon Egunkaria sortzeko ahaleginetan ere murgildu nintzen, langintza horretarako aukera eskaini zidatenean.

Ibilbide luze eta korapilatsu honen bukaeran, gaur bertan alegia, begiak inoiz baino irekiagoak ditudala iruditzen zait. Gure herriaren ibilbidea, neurearen paraleloa ere izan dena, urrundurik ikusi eta aztertu izan dut. Zeuekin partekatu nahiko nituzke ateratako ondorio batzuk.

Euskal Herriaren ibilbidea oso luzea eta zaila izan den arren, ganorazko izan dela iruditzen zait. Euskaldunon nortasuna eta lekua mantentzen jakin izan zituzten gure aurrekoek, eta geuk ere eredu horri orokorki erantzun ona eman diogula iruditzen zait.

Euskaldunon lana, hitza eta estiloa, hau da **kulturak**, oro har, errespetua sortarazi du, eta guk ere, geure egoskorkerian, koherentzia moduko bat gorde izan dugula esango nuke.

XIX garren mendean kultura horri proiektu politiko bat ezarri zion Sabino Aranak, eta proiektu hori osatzen, egokitzen eta heltzen saiatu izan gara, gerrak, diktadurak eta bestelako zirelarik tartean.

Nik neuk, guetako hainbeste eta hainbeste euskaldunek bezalaxe, kartzela edo erbestea ezagutu ditut. Beldurra pasa dugu, eta sufritu ere egin dugu. Geure hizkuntza debekatuta ikusi dugu. Gutako nahikotxok heriotza jaso zuen abertzale izate soilagatik.

Baina euskaldunon aberriaren proiektua **bizirik dago**. Gure gizartearen gehiengoak burujabetasunaren aldeko erantzuna eman zuen oraintsuko hauteskundeetan ere. Eta ez zuen hori egin edozein egoeratan, baizik eta ekaitz mediatiko izugarri baten aurrean. Erantzun duina, garbia eta zentzuzkoa eman zuen, ordea: Aberri Proiektuarekin jarraitu. Bakeaz.

Azken 20 urte hauetan, sekula baino aurrerapauso handiagoak eman ditugu burujabetasuna eraikitze bidean. Euskara berreskurapen bidean jarri dugu eta etorkizuna geure esku dago, neurri handi batean, behinik behin.

Gure herriaren azken urteotako berpizte horretan parte hartzaile eta, aldi berean, lekuko izatea, zorionik handienetakoa izan da niretzat.

Alabaina, bidearen zati bat egin badugu ere, zatia dago oraindik egiteko. Eta nolakoa!

Lehenago garai gogorak eta zailak pasa ditugu, datozen urteak, hamarkadak eta mendeak ez dira orain arte ezagutu ditugunak baino errezagoak izango. Inoiz gure herria arazorik gabeko herri libre izango dela uste duena, ametsetan besterik ez dabil. Euskaldunon nortasun eta burujabetasunaren aldeko lana etengabea izan beharko da. Betiko ahalegina baina, era berean, beti desberdina izango dena.

Gehiegikeria militarrek, lege-debekuak eta atxilotetak ezagutu bagenituen, horiek baztertu gabe oraindik, beste meatxu batzuk ezagutuko ditugu aurreratzen ere: argudio ekonomizistak, gezurrezko globalizazio eta progresismoaren aldekoak, aurka izango ditugu. Hemendik aurrera ordea, gaur arte baino prestatuagoak egongo gara, eta baliabide gehiago izango dugu geure esku. Horietatik izango dira gure etorkizunerako bermeak.

Zailtasun eta era berean aukera horien aurrean, euskaldunok, eta abertzaleok bereziki, betidaniko baloreak eta tresnak prest izan beharko ditugu, eta gainera beste batzuk prestatzen asmatu beharko dugu. Horietatik hiru azpimarratu nahiko nituzke:

Nire gaztaroan, euskara eta batez ere, euskara idatzia, oso egoera latzean zegoen: hitz egitea debekatua zenez, euskaraz idatzitakoa inprimatzea lan ia ezi-nezkoa zen. Hori hala izanik, ez zegoen egunkaririk, historiarik edo literaturarik.

Nola, bada, izan ahal genuen guk inolako euskal kulturarik?

Gure herriak jasandako eraso hauen aurrean, nire belaunaldikoak **lanaren** bidez hutsuneak betetzen saiatu ginen: Historia landu dugu, literatura ere egin dugu, eta komunikabideetan ere urratsak eman ditugu. Orain dela hogei urte irratia eta telebista sortu, eta urte batzuk geroago, euskarazko lehen egunkaria sortu genuen. Lan horien guztien gainean beste lan batzuk egin beharko dira, harri baten gainean beste bat jarritz, etxeak eraikitzen diren eran.

Lana da gaur egun abertzaleok gure herriaren alde egin dezakegun zerbitzurik onena. Denok eman dezakeguna horixe da. Orain arte sortu eta aurreratzean sortzen ditugun erakundeen bidez egin behar duguna hauxe da:

Lana, gure seme alabei euskaraz bizitzen erakusteko. Lana, euskaldunok, betidanik ezagutu ditugun balioak irakatsi eta praktikan jartzeko. Lana, euskaraz hitz egin, irakurri, idatzi eta ikusentzuteko. Lana, gure gizartea librea, justua eta emankorra izango dela ziurtatzeko. Lana, Nafarroako eta Iparraldeko gure anai/arrebengana hurbiltzeko. Eta azkenik, lana, geuk egindakoa eta geu garena, gure erakundeen ispiluan ikusita, munduak ezagutu, onartu eta errespetatzea.

Lana da, beraz, gure balore sekretua eta lanean ari gara. Baina lanari gogotik ekin behar zaio. Lana berez gure ezaugarrietako bat den arren, sarritan falta izaten zaigun trebezia jantzi beharko dugu. Trebezia, gu geu geure herriaren egoeraz jabetu eta besteei ulertarazteko. Trebezia, gure asmoak kanpoan ere onargarriak eta erakargarriak izan daitezten. Trebezia, non eta nola kokatu asmatzen jakiteko. Trebezia, gure hel-buruak pausoz pauso lortzen jakiteko. Herri txikia garenez, Trebezia Kolektiboa, Trebezia Historikoa, eraikitzen jakin beharko dugu. Laburki esanda, Herri kultoa eta trebea izaten ikasi behar dugu.

Azkenik, alderdikide maiteok, gure Alderdiaren izenean dagoen hitz bat erabili behar dut nahi eta nahi ez: Alkartasuna.

Euskaldunok elkarlanean aitzindari eta eredu izan gara. Gure itsasoko enpresetan aspaldi erakutsi dugu antolaketa eta elkarlan onak noraino eraman gaitzakeen. Gure enpresak sortzeko ahaleginetan ikusi zen hori XIXgarren mendean, eta XX garrenean, kooperatiben munduan urrats esanguratsuak emanez, elkarlanerako sistema hori egokitzen ere badakigula erakutsi dugu.

Baina lorpen horiek guztiak herri bat osatzeko proiektuaren zatiak besterik ez dira. Euskaldunok oraindik erakunde handiago bat eraikitzen ikasi behar dugu.

Gure aberria, alegia, eta horretan oraindik ez daukagu esperientzia handiegirik. Hori da, ordea, gure gaurko eta biharko erronkarik nagusiena. Nola elkartu eta batu gure gizartea, bai guk geuk eta baita kanpokoek ere, gure aberria begi bistan ezagutzeko, eta errespetatzeko? Zergatik ez maitatzeko?

Nirea bezalako ibilbide luzea egin duenarentzat, elkartasuna une zailetan etortzen dela jakina da. Bestalde, egoera erosoak zailtasunak uxatzen dituela ematen duenean, elkarren kontrako liskarrei bidea zabaltzen zaiela dirudi. Baina kasu, elkarlana eta Alkartasuna dira gure indarririk preziatuenetakoak. Guretzat ezinbestekoak dira horiek, batez ere, une honetan bezala, abiada apur bat hartu dugunean. Ezbairik gabe esan bailiteke, inoiz baino osasuntsuago ikusten dudala gaur gure herriaren posizioa eta etorkizuna.

Neu naiz, osasunik gabe nabilena, ez baitit zuenganaino etortzen utzi. Jakizue, hala ere, hitz hauek esateko aukera pozgarri honen bidez zuen artean nagoela. Hunkiturik.

Nire eskerrik beroenak.

AURKEZPENA

Joan Mari Torrealdai

Egunez egun bi urte dira oraintxe: 2001eko azaroan omenaldia egin zion Eusko Alkartasunak Martin Ugalderi Donostiako Miramar jauregian, "Martin Ugalde. Aberria helburu" lelopean. Eta orain, bi urteren buruan, 2003ko azaroan, liburu hau plazaratzen du.

Miramarko omenaldia ospatu eta handik gutxira jarri zen abian liburu hau: Martin Ugalderen ikuspegi politikoa azaltzen dituzten bere idazlanak bildu eta liburu erabilgarri batean argitara ematea zen helburu nagusia. Eskuartean duzun hauxe da ahalegin horren emaitza.

Zein den zaila Martinen lanak formatu txikian biltzea. Lan politikoen aurreneko aukera egin nuenean bost aldiz gehiago bildu nituen. Miez tuz eta bakanduz joan gara geroztik oraingo 100 hauetara iritsi bitartean. Baina ez minik eta bihotz urradurarik gabe, holako edo halako lana kanpoan utzi behar zela eta. Martinen artikulurik txikienak eta ezdeusenak ere badu beti zerbait interesgarri, dela ikuspegia, dela informazioa, dela kritika, dela gogoeta.

Los trabajos que aquí se reúnen tienen en común varios elementos, entre ellos, su intencionalidad periodística y la perspectiva política, y tienen sobre todo un denominador común que es la vida política vasca. Hemos dejado de lado bastantes trabajos de política, de mayor extensión y profundidad; varios más, cuyo objeto era la política, cierto, pero no la política del País Vasco; y muchos, muchísimos, que, aunque pertinentes, no caben en las medidas de este libro.

Tras los sucesivos descartes, se recogen aquí 100 trabajos que han salido de la mano de Martín a lo largo de más de 40 años de vida activa, prácticamente toda

la segunda parte del siglo XX. La perspectiva política de Martín se muestra de mil maneras diferentes a lo largo de los artículos seleccionados, a veces claramente formulada y a veces más encubierta, unas veces de forma general y otras muy ceñida a una circunstancia concreta.

A fin de perfilar de manera más exacta su pensamiento político, hemos incorporado a este libro parte de la entrevista que yo mismo le realicé hace unos años: Martín explica en ella cuál ha sido su trayectoria en el campo de la política y los motivos que han guiado su compromiso, tanto en Venezuela como en Euskadi. La conciencia de su deber patrio le ha llevado a Martín a sufrir con y por su partido, con y por su pueblo; y también a ocupar cargos como el de Presidente de Euskal Etxea de Venezuela, a fundar *Eusko Gaztedi* en Caracas, a ser director de *Alderdi*, y sobre todo a ser Consejero del Gobierno Vasco en el exilio viviendo en el "interior", en Euskadi, lo que le costó la expulsión del territorio español. Si la entrevista fuera actual (data de 1998) Martín nos contaría que una consecuencia más de su compromiso con su pueblo y con su lengua es el bloqueo de cuentas que sufre hoy ordenado por el Magistrado de la Audiencia Nacional Juan del Olmo acusado de haber colaborado con ETA por ser cargo directivo de *Euskaldunon Egunkaria* desde 1990.

También hemos querido incorporar a esta publicación el discurso leído por su hijo Unai en nombre de su padre y preparado para su homenaje organizado por Eusko Alkartasuna hace dos años, y que está en el origen de este libro.

Bildu ditugun idazlanetako gaiak, bakoitza bere garaiko uneari hertsiki lotua egonik ere, gaur-gaurkoak dira gehienak, hala nola abertzaletasuna, autonomia, estatutua, demokrazia, biolentzia eta indarkeriak, etika eta politika, autodeterminazioa, independentzia, etab. Beste idazlan batzuek idatzi ziren garaia argitzen dute.

Los trabajos seleccionados se reparten en más de una docena de publicaciones diferentes. Algunas de éstas, como *Elite* o *El Nacional*, son de su "otra patria", Venezuela. Varios otros (*Gudari*, *Eusko Gaztedi*, *Alderdi*) son órganos de la diáspora vasca. Comienza a colaborar en (*Zeruko*) *Argia* desde Venezuela y una vez de regreso a su país colabora profusamente tanto en vasco como en castellano en *Deia*, *Euskaldunon Egunkaria*, *El Mundo del País Vasco*, *El Diario Vasco*, etc., y en la revista de su pueblo de adopción, *Hondarribia*. Quedan recogidas igualmente algunas colaboraciones de radio y algunas conferencias, así como también algún que otro texto inédito.

Euskaraz eta erdaraz datoz artikulua, erdibana edo. Martinek berak idatzi bezala, alegia. Gramatikalki ere berak idatzi bezalaxe utzi ditugu. Akats bat edo beste, edo hutsegiteren bat, zuzendu dugu bai, baina gauza gutxi. Nahiago izan dugu Martinen idazkera eta euskara mota bere horretan gorde, garaian garaikoa. Eskerrak emateko orduan, aurrena, Anjeles Iztueta eta Gorka Knörr eskertu nahi ditut, biziki eskertu ere, Eusko Alkartasunaren izenean biak izan baitira nire gidari eta bidelagun liburu honetan, jator eta leial. Andoni Sagarna ere eskertu nahi dut, aurkibide tematiko eta onomastikoak egiteko eman didan laguntza eskuza-balagatik. Eskertzekoak dira, halaber, Jakinkizunak argitaletxea eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa, *Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena* liburuko argazkiak eta pasarteak erabiltzeko baimena doan eman baitigute. Eta, noski, honen guztiaren jatorrian dagoen Martin bera eta bere familia eskertu nahi ditut, materiala biltzeko eta lantzeko eman didaten erraztasunagatik.

BIO-BIBLIOGRAFIA POLITIKOA

Oharra

Bio-bibliografia politiko hau

Joan Mari Torrealdaiak

"Martin Ugalde, Andouindik Hondarribira Caracasetik barrena"
libururako landu duenaren zatitxo hautatu bat da.



- 1921 Andoainen jaio, azaroaren hamaikan, San Martin egunez.
- 1936 Abuztuan, familiarekin batera Andoaindik ihesi (hilabete bat Mundakan eta 8 Bilbon).
- 1937 Aita Asturiasera gudariekin, Joseba anaia Soviet Batasunera eta Martin Frantziara, Nièvre-ko Château-Chinon-era, amarekin. 11 hilabete han. Gero Donibane Garazira, Donibane Lohizunera eta Gurs-eko kontzentrazio-zelaira.
- 1940 Urriaren 17an hiru urteko exilioaren ondoren, salbokondukto batekin Andoainera itzultzen da, amarengana.
- 1947 Urriaren 12an amarekin batera Caracaserako itsasuntzia hartzen du Bilbon. Anaia gaztea ere ekarrarazi berri du aitak Soviet Batasunetik. Familia osoa biltzen da hamar urteren buruan Caracasen.
- 1948 EAJn kanpoko (Hegoameriketako) batzordeko lehendakaria.
- 1957 Elkarlanean idatziriko *Los Vascos en Venezuela* argitaratzen du Caracaseko Euskal Etxeak.
- 1959 *Iltzalleak* ipuinarekin irabazitako sari gisa Jose Antonio Agirre lehendakariak *Urrezko domina* ematen dio.
Caracaseko "Euskal Etxea"ko lehendakaria urte pare bat.
- 1961 *Iltzalleak* liburua publikatzen du Caracasen. Venezuelan argitara ematen den lehen euskal liburua da. Cromotip-en argitara emana.
- 1964 *Ama gaxo dago* antzerkia argitaratzen du (Cromotip, Caracas).
Antzerki-lan bat idazten du, *Gurpegi'n aspaldi gertatua*. Argitaragabe du oraindik.
- 1966 *Umeentzako kontuak* liburua argitaratzen dio Zarautzko Itxaropenak.
Unamuno y el vascuence saiakera liburua argitaratzen du Buenos Aireseko Ekin euskal argitaletxean. 1979an ateratzen du bigarreneguz Ediciones Vascas-ek Donostian.
Zeruko Argia aldizkarian idazten hasten da.
- 1968 *Panpiñak* lana idazten du. Urtetan argitaratu gabe egon ondoren, *Erroetatik mintzo* liburuan agertu da.

- 1969 Otsailean, 15 urte enpresan egin ostean, utzi egiten du Creole, Euskal Herrira itzultzeko. Emazteak Hondarribian hartua dio etxebizitza.
Zeruko Argia-ko taldekide eta Euskaltzaindiko urgazle.
- 1970 EAJn Ajuriagerraren taldekoa da, eta barruko Alderdiko Batzorde eraginkorreko kidea.
Euskara batuaren apostua bete-betean egiten du.
- 1971 *Alderdi* izeneko EAJren aldizkari ofiziala eta klandestinoaren zuzendaria urte honetako otsailetik 1974ko abendura.
- 1972 Leizaola Lehendakari dela, Eusko Jaurlaritzako Kontseilari, EAJren izenean, Joseba Rezola hil berriaren orde. 1975eko ekainean utzi zuen, bere borondatez.
- 1973 Espainiako poliziak Estatutik kanpo bidaltzen du urriaren 18an. Donibane Lohitzunen hartzen du egoitza Martinek. Familia ere bertara doa bizitzera.
Euskaltzain konfirmatzen dute.
- 1974 *Hablando con los vascos* elkarrizketa liburua publikatzen du (Ariel, Barcelona).
Síntesis de la Historia del País Vasco argitara ematen du Argitaraldi ugari izan ditu.
Tres relatos vascos argitaratzen du Donostiako Txertoan.
- 1975 *Hablando con Chillida, escultor vasco* argitaratzen du Donostiako Txertoa argitaletxean.
Las brujas de Sorjín eleberria argitaratzen du Donibane Lohitzuneko Axular argitaletxean.
- 1976 Euskal Herriaren desterruari dagokion zatia idatzi du Martinek *El exilio español de 1939* liburuan, 6. liburukian (Taurus. Madrid).
Hondarribira itzultzen da irailean, ia hiru urte Iparraldean igaro ostean.
- 1977 *Deia* egunkariko zuzendariordea eta euskal taldearen arduraduna.
Euskaltzaindiaren *El libro blanco del euskera* laburtu eta berridatzi du. Hurrengo urtean euskaraturik aterako da: *Euskararen liburu zuria*.
- 1978 *Conflicto lingüístico en Euskadi* liburua Siadeco-k zuzenduriko txosten-sail batetik abiatuta Martinek idatzia (Euskaltzaindia. Bilbo).
Euskaraz ere agertu zen: *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*.

- Herri baten dehiadarra / El grito de un pueblo* liburuan hitzak Martinek dira eta irudiak A. Schommer-enak (Ediciones Vascas. Donostia).
- La guerra en Euskadi* liburuan Martinek parte hartzen du (Plaza & Janés. Barcelona).
- 1979 Eusko Kontseilu Nagusiaren aginduz Boletinaren arduraduna.
Narrativa vasca actual. Antología y polémica liburuan Martinek Deia-n elebitasunaz polemikan idatziriko artikulua biltzen dira, "Las manos grandes de la niebla" ipuinaz gainera (Zero Zyx. Madrid).
- 1980 *El problema vasco y su profunda raíz político-cultural* liburua ateratzen du Donostiako Aurrezki Kutxa Probintzialarekin.
Obras completas de Sabino Arana y Goiri zuzendu eta biografia erantsi du (3 liburuki) (Sendoa. Donostia).
- 1981 *Obras completas de Jesús María Leizaola* liburua zuzendu du (4 liburuki) (Sendoa. Donostia)
Obras completas de José Antonio Aguirre Lecube obra zuzendu du (2 liburuki) (Sendoa. Donostia).
- Urte honetan hasi eta 1984an bukatzen da Editorial Planetak atera zion *Historia de Euskadi* lanaren argitarapena. 6 liburuki dira.
- 1982 Eusko Jaurlaritzan Kultura Sailako Euskarazko Arazoetarako Zuzendaria.
Nueva Síntesis de la Historia del País Vasco. Desde la Prehistoria hasta el Gobierno de Garaikoetxea liburua prestatzen du (Elkar. Donostia).
- 1984 *Biografía de tres figuras nacionalistas vascas* liburuan Arana-Goiri, Agirre eta Leizaolaren bizitza idazten du (Sendoa. Donostia).
Martinek gaztelaniaz idatzi eta Jose Antonio Arana Martijak euskaratu zuen *Euskaltzaindiaren historia laburra* (Euskaltzaindia. Bilbo).
- 1985 Joseba Intxaustik antolaturiko *Euskal Herria (1936-1984): Errealitate eta egitasmo* liburu bikoitzean esilioko kulturaz idazten du (Lan Kide Aurrezki. Arrasate). Lana: "Herriaren eta Erbestearen arteko elkarrizketa (1936-1984)".
- 1986 ETBrako Euskaldunek hitza sailean 13 elkarrizketa egiten ditu: Antonio María Labaien, Santi Onaindia, Eusebio Erkiaga, Teodoro Hernadorena, Iratzeder, Joxemiel Barandiaran, Jesus Mari Leizaola, Manuel Lekuona, Basarri, Iñaki Azpiazu, Koldo Mitxelena, Augustin Zubikarai, Maritxu Barriola.
- 1987 Eusko Jaurlaritzak argitarako emandako *Euskalerrria* liburuan parte hartu du: "Euskadiren historia laburra".

Eusko Alkartasuna Alderdia sortzean Martin Ugalde alderdiko kidea da.

- 1988 Elkarlanean idazten du *José Ariztimuño "Aitzol"* liburua (6 liburuki) (Erein. Donostia).
- 1989 *Egunkaria Sortzen* lantaldearen kidea nagusia da Martin.
Eusko Jaurlaritzaren Jon Mirande nobela saria irabazten du *Itzulera baten historia* liburua.
- 1990 *Euskaldunon Egunkaria*-ren Administrazio Kontseiluko Lehendakaria.
- 1991 *El exilio de las Españas de 1939 en las Américas* liburuan Euskal Herriari dagokiona idazten du Martinek (Anthropos, Barcelona).
- 1992 *Manuel de Irujo (1891-1991)* liburuan nafar politikoa abertzalearen bizitza idazten du (Txertoa. Donostia).
- 1993 *Erroetatik mintzo* liburuan hainbat lan bildu du AEK-k omenaldi gisa (Sendoa. Donostia).
Euskaltzaindiaren Txomin Agirre nobela saria irabazi du *Pedrotxo* eleberriak.
Itzulera baten historia nobelan bere emaztearen familiakoen itzuleraren historia kontatzen du (Elkar. Donostia). Hondarribiako Hiru argitaletxeak gaztelaniara itzultzen dio 1995ean: *Historia de un regreso*.
- 1994 *Pedrotxo* nobela argitaratzen du, aurrena Euskaltzaindiak eta urte berean Elkar argitaletxeak.
- 1996 Azaroan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduak *sakeleko erlojua* oparitu dio "bizitza guztiko lanaren eskergarri".
Azaroan, Hondarribiko zenbait lagunekin batera *Jakin* taldeak, *Euskaldunon Egunkaria*-ren laguntzaz, bazkari-omenaldia eskaini dio. *Jakin*-ek Aginte-makila eskaini dio eta *Egunkaria*-k bere ikurraren eskultura.
- 1997 Andoaingo Udaletxeak *Seme kuttun* izendatu du eta *domina* eman dio. Horren kariatz kultur astea antolatu da, bere bizitza eta lana aztertu eta ezagutzera emateko asmoz.
Ekainaren 28ko datarekin Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskultura bat oparitzen dio "Martin Ugalderi esker onez" dioen testuarekin.
Ekainean, Andoaingo Udaletxean, IX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan *Ohorezko Aipamena* jaso du, "euskarazko kazetaritza pro-

fesionaltasun-bidean aintzindari" izateagatik.

Erretiradako trena ipuin-liburua argitaratzen du Ereinekin.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak ahobatez erabakitzen du martxoan Bazkunako *Ohorezko Lehendakari* izendatzea Martin. Agiria eta domina azaroaren 11an entregatzen dizkio Jon Unanuek.

1998

Abenduaren 30ean, Hondarribiako Udaletxeak Herriko intsignia jarri dio, euskal kulturaren egindako lana eta Hondarribiarekiko duen atxikimendua eskertuz.

Joan Mari Torrealdaiak idatzitako *Martin Ugalde. Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena* liburua publikatu dute Jakin-ek eta eef-k (Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak) elkarlanean. Aurkezpenaren kariaz eef-k milioi bat pezeta eta eskultura bat oparitu dizkio merezimenduzko sari moduan.

1999

Abenduaren 15ean Euskal Herriko Unibertsitateak *Honoris Causa Doktore* izendatu du.

2001

Azaroan, Ascunce eta Apaolazak antolaturik Martini buruzko jardunaldiak egin dira Donostia, Andoain eta Hondarribian.

Azaroan, EA alderdiak omenaldia egin dio "Martin Ugalde. Aberria helburu" goiburuean Donostiako Miramar jauregian bere lana eta ibilbidea goraiatzuz.

2002

Ekainean inauguratu da Buruntzapek sortu eta kudeatzen duen *Martin Ugalde Kultur Parkea* Andoainen. Lehenago Martinek berak jarria zuen parkearen lehen harria.


Urtarrilaren 8an *Lan Onari* goraiapamena egiten dio Juan Jose Ibarretxe EAeko Lehendakariak, "eguneroko lanean izandako dedikazioa, jarraikortasuna eta ekimena" aitortuz.


2003

Otsailean Audientzia Nazionaleko epaile Juan del Olmok kontuak blokeatu dizkio, *Euskaldunon Egunkaria*-ko Lehendakari izana delako. *Euskaldunon Egunkaria* zuzendaritzako bederatzi kide atxilotu ditu Goardia Zibilak; baina Martin ez, osasun egoera makalagatik.

Urriaren 16an, Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kutxak *Euskaldun Unibertsalaren Saria*, 2002. urteari dagokionez, Martin Ugalderi eman diote, Ainhoa Arteta sopranoarekin batera.

MARTIN UGALDEK AZKEN URTEOTAN HAINBAT GORAIPAMEN ETA SARI JASO DU EUSKAL ERAKUNDE, ELKARTE ETA HERRITARREN ALDETIK





MARTIN UGALDE POLITIKAN

Martin Ugaldek abertzale gisa politikan izan duen konpromisoaren zati batzuk ageri dira elkarrizketa honetan. Elkarrizketa hau Joan Mari Torrealdaiak egin zion 1998an, eta "Martin Ugalde, Andoaíndik Handarribira Caracasetik barrena" liburuan ageri da.



CARACASEN ERE ABERTZALE

Bi aberri dituzu, bata Francorenpean utzia eta bestea aurkitu berria. Nola bizi duzu biei zor diezun maitasuna?



"Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena" elkarrizketa liburua lantzen Martin Ugalde eta Joan Mari Torrealdei (1998).

Probak emanez, beti bezala.

Esan dezadan, nolabait hasteko, eta lehen aldiz da azterketa hau egiten dudala, nire abertzaletasuna eta euskalduntasuna bat denez (ikus nire *Alderdi*-ko artikulua, don Manuel Irujok protestan erantzun zidana, eta neuk honi beste batean nire ikuspegia eman ondoren erantzunik izan ez zuena, eta ez zen zuri erantzuteko egina izan, Joan Mari!), nire abertzaletasun hau sortzetik datorkidana da; nik nahi gabe ere dakardana da. Hala sentitu dut beti nire jatorriko hau, gurasoengandik jaso a gero, eta hizkuntzak eta zientziak eta nahi duzun guztiak gero baieztatua. Meritu gutxi dut nik honetan. Izena ere gurasoek jarri zidaten euskarazkoa, batez ere aitak. Hau batetik.

Bestea, berriz, neronek aukeratu dut, bizikeran zehar pasa behar izan ditudanak eraginda arrazoi bidez eta gizatasunezko sentipena bide dela hartutako erabakia. Esango dizut, bestetik, lan bat aurkitzeko, batez ere kazetaritza edo beste bide publikoko lanbide batean, nire venezuelar izatea agiri bidez probatu behar nuela, eta gauza bera gertatu zitzaidan hemen Jaurlaritzako Euskararen Sustape-

nerako lanbidearekin. Ezezkoa eman diet Hondarribiko alkatetzarako, Madrilgo Diputatu izateko eta Senatore izateko EAK eskaini zizkidan postuei, bi urte ezberdinetan, Markel Izagirrek, Donostiako Gros-en EAn eta Gipuzkoa mailan lan asko egin duen gizonak, hain zuzen, Jaurlearitzako Kultur kontseilariorde Olarterekin —izen hau datorkit orain, uste dut hau dela lehen kontseilari izan zena Euskadiko Kontseilu Nagusian—, eta ez nituen hartu —Leizaolarekin EAJren ordezkari bakarririk hartu nuen klandestinitatean—, baina euskararen aldeko hau bai, lehenengoan hartu nuen Kulturako bigarren edo hirugarren edo laugarren mailako postua zenean eskaini zidatena, Velez de Mendizabalek bere lehengusu EAKo Joseba Azkarragarekin hau eskaintzera Hondarribira etorri zirenean, eta Gasteizen paperak egiten ari zitzaizkidanean esan zidaten ezin nintzela izan, espainola ez nintzelako, zeren eta venezuelarra izateko espainola utzi behar izan bainuen eta Enbaxadara joan pertsonalki espainoltasuna uztera! Neuk pozik egin nuena! Eta orain Gasteizen, Eusko Jaurlearitzako lan xume euskaldun baterako, euskara defendatzekoa hain zuzen, *hartu* egin behar nuen derrigorrez Espainiako nazionalitatea. Eta Irungo epaile batek eman zidan, gordeta bezala, bidea, egiazki Espainiako Konstituzioak ez baitu galdutzat ematen Latinamerikan utzitako espainola. Ikus nola izan diren gauzak nirekin.

(...)

AJURIAGERRAREN ITZALEAN

Noiz egiten zara PNVko, 1947an, Ameriketara iristean?

Bai, egia esan, izpirituan haurra nintzela, Batzokian, bizi izan nuen dagoeneko Alderdia, Sabin Arana barruan. Nik EAJ bizi izan dut, ez PNV. Alde handia dago batetik bestera. Gaur, PNVk bete ditu ehun urte hemen. Esan dut nola sartu nintzen Caracasen eta EG (Eusko Gaztedi) mixtoa sortu nuela.

Zein da zure konpromezu politikoa Caracasen? Euskal Etxe mailakoa? Kulturala?

Dena batera. Aberria sentitzeko modu osoa. Zeuk aipatutako dena batera.

(...)

Caracasen zenuen konpromezu politikoa areagotu egin nahi zenuen Euskal Herrira itzultzean. Nola hasi zinen lanean EAJko burukideekin?


Hemengo nire partiduko kontaktu diskretioa egiteko asmoetan etorri nintzen. Ez nuen presaka hasi behar. Indiskreziobaten zain hemen egotea normala zen. Poliziak esan zidan hiru hilabetetik behin erresidenzia berritu behar nuela. Irten eta sartu zen modu bat, esate baterako, baina nik ez nuen aitzakia bat ere eman nahi, eta ez nintzen irten Hendaiara. Poliziara joan nintzen luzapen berriaren bila, behin eta berriz. Emazteak eta haurrek jarraitu zuten bere kasa prozesu neketsua, eta gestioak egiten ere hasia zen Madrilén Zestoako Aranbururekin (Caracasen zegoen Erentxun pintorearen herriko laguna), eta Relaciones Exteriores-eko Garicano Goñi ausartki bilatuta azkenean lortu zuena. Anamari beraren bertsioa jasotzea oso jakingarri izango litzateke.

Baina, paperaz kanpo, esan dut *Argia* eta Euskaltzaindian ibiltzen hasi nintzela. Hemendik atera behar zuen hariak, eta *Argia*-k eman zidan, ez aldizkarian bertan, honen inguruan biltzen zen aparteko talde batean. Kaputxinoen eliz azpian egiten ziren euskal kulturako bilerak: Gurutz Ansola; Antton Artamendi filosofiako irakaslea EUTGen, orain Deustuan; oraindik apaiz ikasle zen Pako Garmendia, gaztetxoa baina asko mugitzen zena; garai honetan Hondarribiko treintzuararen gizonak bilatu eta entrenatzen ibiltzen zen Ladislao kaputxinoa, orain "Beko Errotan"; eta hauen artean ELAko izan den militante zintzo bat etortzen zen, ez kulturabideak ekarrita baina langileen arazoak bultzata; Pasaiako Luzuriagan egiten zuen lan, eta hau zen hartu ninduen: Gerardo Bujanda.

Nire lehen bilerara honekin joan nintzen Gros-eko zubi ondoan dagoen "Etxegintza" etxearen zati batera. Almazan antzeko zerbait zen. Jokin Intxautiren aitak jaso, nonbait, abertzale zintzoa bera, gerrondoan laguntza asko emana haurren exiliarako eta beste; Jokin zen hartu gintuena, taldekoa; hemen ezagutu



"Tarjeta de evacuación" edo Estatu frantziarretik etxera itzuli ahal izateko txartela (1940).



Juan Ajuriagerra.

nuen Juan Ajuriagerra, eta berarekin batera Bilbotik etorri zen Xabier Arzalluz (sartu berriberria, Madrildik etorria, dagoeneko ordenatik irtena, Alemanian ikasketak egiten egon eta Madrilen ere ikasketetan zegoena eta, honela, Gil Roblesen eta Ruiz Jimenezen semeekin harremanetan zegoena Zuzenbide estudioak direla-eta, Demokrazia Kristauaren bileraren batean Ajuriagerrak ikusi eta ekarri zuena).

Aurreraxeago, nik behin honi esan nionean, komisio eraginkor bezala hirukotea izendatu zutenean —Eduardo Estrade, Arzalluz eta ni— Arzalluzek izan behar lukeela honen buru, esan zidan Joanitok, Bilboko kale batean oinez gindoazen, gogoan dut: "Ez, oraindik gertuegi du sotana". Beste behin, alderantziz, Xabierrekin hizketan, honek esan zidan, ea zergatik egin nuen proposamena Ajuriagerra ofizialki gure buru ager arazteko, nahikoa zuela egiten zuenarekin. Hau, gutxi gora-beherako hitzekin ari naiz esaten, noski. Eta laster, Jose Mari Lasarte (Errepublikaraian diputatu izan zen, Parisen Jaurilaritzan ere aritu zen) taldean sartu zenean, honek esan zidan behin: "Baina apaiz dela" Meza emandako josulaguna dela?!", ezin zuen sinetsi. Honela ziren gauzak une hartan. Ez ditut gauza hauek lekukotasun bat emateko besterik esaten, momentua nolakoa zen aipatzearren.

Baina lehen bileraz ari naiz, eta gogoan ditut beste batzuk, noski: Joseba Leizaola, aipatutako Jokin Intxausti (Pelos), Luis Mari Retolaza (Roke), Ajuriagerrarengandik gertuen zegoena!, Eduardo Estrade, aipatu dut Bujanda —sindikalista ezaguna garai hartan, ELAkoa, noski—, Sabin Zubiri, taldeko tesoreroa —askotan beretik jarri zuen dirua, seguraski, honetan, eta beste, fina zen—. Gero *Deia*-n ere aritu zen berdin, nahiz eta ni berarekin konforme egon ez, estu samarra zelakoan, gero nire eskutizetan ikusiko denez. Ez zait une honetan beste inor gogora etortzen. Inpresio handia egin zidan Juan Ajuriagerrak! Bera zen, noski, gure erreferentzia osoa! Gainontzekook berriak ginen denok; Bujandak egingo zuen gerra, akaso, justu-justu.

Gure taldeko liberatua Mikel Isasi zen, bizkaitarra, lehen Eusko Gaztedi ETA-ren sorrerako mutila, Iparraldera alde egina, oso aktiboa. Luis Mari Retolaza izan-

go zen beharbada bestaldeko esperientzia (Gernika bataloia eta abar) izandakoa. Ni, Joseba Leizaolarekin, exilioko heldu berria. Baina Mikel Isasi zen Beyriseko EAJko Idazkaritzakoen idazkari-langile bezala egiten zuena eta Ajuriagerraren aginduetako mutil zena. Beranduxeago etorri zen Josu Oregi.

Baina ez gaude oraindik zatiketa honetan.

Donostiako lehen batzarra 1970ean izango zen, ni heldu eta urtebete eska-sera. Harrez gero astero, gehienetan Bilbon, taberna bateko erreserbatu batean afaltzen genuen, eta gero, etxeetara batzarrerako: Xabier Arzalluzen emazte izango zenaren familiako etxean, Luis Mari Retolazarenean, Bilboko parte zaharrean.

Aipatu nahi dut asteroko bileren hasiera honetan neuk proposatu nuela Idazkaritza bat sortu eta diru bila hasteko, eta aipatutako hirukoteak lan egin ez bazuen ere, honetarako joan ginen diru bila lehen, eta bakar, ni tarteko nintzela behintzat, Tximist-eko Juanito Zelaiarengana, eta miloi bat eskatu eta eman zigun. Ni, ordea, beste zereginetan sartu ninduten.

Bat, *Alderdi* egitera. Lan honek hartzen zuen nire denbora. Lehen alea – tamaina txikian, apropos amerikanoen aldizkari *Reader's Digest*, *Selecciones* eza-gunaren azalarekin konfunditzeko eta poltsikoan sartzeko modukoa, gero apur bat aldatu banion ere, deigarri ziren kolorea, bereizgarri ziren hileroko tonoz ezberdin haiek eta titulu handiagoak sartu banizkion ere— 1971ko otsailean irten zen. Honek esan nahi du 1970ean izan zela lehen batzarra niretzat Donostian.

Neuk *Argia*-ko elkarrizketak eta abar noiz idatzi nituen ikusi behar, gauzak datetan pixka bat ordenatzeko.

EAJ barruan kontra egin zizunik izan zen.

Nire kasuan, EAJ-PNV barruan aurkitu nituen niretzat ulerkaitez izan ziren postura gehienak, eta, bestalde, praktikan EAJko buru zen Juan Ajuriagerrarengan aurkitu nuen nire lanerako askatasun eta ulermena.

Bunkerra Beyrisen, Villa Izarran, zegoen. Hemen Solaun jauna zen idazkari nagusia. Berton egiten zen, Iñaki Unzeta zuzendari, *Alderdi* aldizkaria. Hemen agertu zen, Solaunek idatzia, ofizialki Alderdiaren idazkari nagusi zenak, nahiz eta ezizenez sinatu, baina ezaguna zen bere izenordearekin (Kamaraka), euskara batuan erabiltzen hasi zen h-ren, eta mugimentu honen, aurkako artikulua. Bila ibili naiz aldizkarian, eta ez dut aurkitu. Unzetak egindako azkenetakoa zen. Artikulu honek eman zion, nolana, partiduko jende askori, hizkuntzaren auzia guri-gurian zegoela, berritasunaren aurkako bedeinkazioa. Eta nire aurkako, noski.

Egoera honetan Bilbon, hauetako norbaiten etxean egindako batzar batean, eman zidan Alderdiak, zuzenki Juan Ajuriagerrak baina Xabier Arzalluz, Luis Mari Retolaza, Eduardo Estrade, Joseba Leizaola eta besteak aurrean zirela, h-rekin idatziak zeuden artikulua zetozen bezala hartu eta argitaratzeko (1971ko otsailekoa da neuk zuzendutako lehen *Alderdi*-a) agindua, eta niri pertsonalki egin zidan exenplu berarekin arrazoitu zuen denon aurrean Ajuriagerrak oinarri gisa hartzen genuen erabakia: gerraurretik "Orixe" zen *Euzkadi* Alderdiko egunkariaren euskal orriaren buru, eta Ajuria bera Alderdiko buruetako bat zela (ez dakit garai honetan EBBko buru ez zen) hartzen zituen alderdikideen kexak, euskaraz bidaltzen zituzten lantxoak ez zizkiela *Euzkadi*-n argitaratzen. "Orixe"rena jo zuen, eta pasa zion kexa. "Orixe"k egia zela aitortu zion, baina bidaltzen zizkien euskaratan ezin zirela argitaratu, oso ziren desegoki idatziak! "Ba —esan zion Ajuriagerrak— zeuk etortzen diren euskaraz argitaratuko dituzu hemendik aurrera...": "Eta zuk, Martin, hemendik aurrera, *Alderdi*-ko lanak datozen bezala argitaratuko dituzu". Eta kito.

Neronek, hilerokoaren Editorialak ofizialki lehen bezala h-rik gabe argitaratzen nituen, noski, eta euskara falta zenean askotan h gabe idazten nuen asma-tutako seudonimoarekin, baina garai hartako arnas bat zen euskal mugimendu berriko h ere agertu zen sarri Alderdiko hilerokoan. Hau da alderdikide askok sekula barkatu ez zidatena. Baina hala jarraitu nuen, beste lanen artean, 1975 arte. Aipatu izan dut nola tratatzen ninduen alderdikide askok idatziz, telefonoz, kalean aurkitu eta espaloiz aldatuz!

Zure galderari erantzuten ari naiz. Hau izan zen nire herriko gizarte zati batengandik jaso nuen, genuen, familiak ere jasan behar izan baitzituen, garai hartako polizia gain, portaera.

Baina euskarari dagokion justizia zatia, Juan Ajuriagerrari zor diot. Beste behin, *Deia* egunkaria sortzen ari zirela, 1976an, neu Iparraldetik itzuli berria, partiduko jendaurrean eskaini zidan Ajuriagerrak bertoko euskal zatiaren, eta ez txikia garai hartako esperantzan!, zuzendariorde gisa, buru izatea. Oraindik beste hirugarren bat badut gizon berak euskararen alde egiten lagundu zidana, baina ez naiz puntuaz gogoratzen oraintxe. Etorriko da. Ahaztu gabe aipatu nahi dut bere euskararenganako zuen memorian, bera izan zela gerrarteko *Eguna* egunkaria egitea erabaki eta bultzatzen zuena. Nik uste, Lafitte jaunaren oroigarri idatzi nuen lanean agertzen direla hiru puntuak. Nolanahi, gogoan dudana da, gaixotu zenean Luis Mari Retolazarekin joan nintzen bere etxera, heriotzarako Nafarrorako bidea hartu baino egun batzuk lehenago zen, elkarriketa luze bat egiteko nuen asmoa agertu nion, eta hain zuzena eta sarkorra zuen begirada hura dagoeneko



Martin Ugalde eta Juan Ajuriagerra, Franco hil eta gero berriro Hegoaldera sartu zelarik, Martini egindako omenaldian (1977).

jaisten hasia zen, baina ez zidan ezetzik eman. "Pentsaukot", esan zidan irrifar fin batekin, "pentsaukot".

Gizon hau aipatu nahi dut orain, parada eman didazun honetan, neuk herrian jasotako tristuren aurrean, balantzan bezala, Juan Ajuriagerrak beti agertu zidan exenpluaren eragin jatorra.

(...)

ALDERDI, ALDIZKARI OFIZIALA KLANDESTINITATEAN


1971n EAJren Alderdi aldizkari ofizial baina klandestinoko zuzendari zara. Zeinek izendatzen zaitu?

Esana geratu da, baina pertsonalki, isilpeko taldearen aurrean, Juan Ajuriagerrak.

(...)

Zein da horrelako aldizkari baten zuzendari izatearen esperientzia, klandestinoa eta alderdiko ofiziala izaki?

Esan nahi du, batez ere, *Alderdi* editorearen konfiantza osokoa zarela: zu zara, batez ere, langilea; noizean behin eman dizkizute klabe batzuk, baina nire kasuan ezagunak ziren, neroni taldean nengoelako, edo berria bazen, ba nik ematen nuen zetorren bezala. Konfiantza bi aldekoa zen, edo zerbait okertzen bazen nire interpretazioa, oharrak berehala!, eta alarma ere bai! Irujoren sozialistek erlijioagan zuten lan hura azkenean irten zenean, izan zen protesta, basetik eta berehala taldetik! Hemen, konfiantza hausten bada, istiluak berehala! Nik ez nuen arazo handirik izan, honelako txikiak baizik, eta Irujorena ulergarria zen.



Oregi, Ajuriagerra eta Martin Ugalde egunkari bat eskuartean dutela Gipuzkoako Diputazioan (1977).

Basearen aldetik izan nituen alarmak, *h* sartu nuela eta. Hau gogorra izan zen niretzat, eta aspergarria!, nekagarria! Klandestinitatean izaten dira okerragoak, bakoitzak bere buruan okerrak handitzen dituelako eta argia egitea zaila delako. Nola nahi, bestalde, Ajuriagerrak beti babestu ninduen. Bestela, ez nuen jarraitzerik izango. Pazientzia eta tolerantzia handia behar da giro honetan jarraitzeko. Hemen egin zidaten ezkerreko propaganda! Ni ez naiz sozialista inoiz sentitu. Kausa soziala asko sentitzen dut, eta eskuinak, batez ere diruarenak, horzkidura ematen dit. Baina Estatuko sozialismoa beti iruditu zait arina, arima gabea, gogorra eta inefikaza. Berehala aginte zuhur eta injustua sortzen duen egoera bat. Izan ditut erreferentzia estuak nire lehengusu Jabiartxo hernaniarrarekin eta nire

anaiarekin Sobiet Batasunean, eta lehenengoak gero Txilen. Berehala diktatura sortzen da, parametro moralak eskastu. Ni kristaua, humanista, sentitzen naiz, tolerantziarekin lanean, ez gogorkerian, beti borroka bila. Hau antzua bihurtzen da gizonen artean beti.

Baina gaitik at ari naiz hemen!

Hau amaitzeko: nahiago dut askatasunean aldizkari bat zuzendu, isilpean baino, noski.

(...)

H-aren arazoan ez omen dizute barkatzen zure jarrera. Zer da barkatzen ez dizuten hori? Zeintzuk dira barkatzen ez dizutenak?

1) Ez didate barkatzen nolabaiteko "tradizionalista eskrupulosoek", bekatuaren beldur bizi diren hauek, *h* gabeko sabindarra den euskarak, har dezakeen indarraren alde jokatzea: Sabinen eta Jainkoaren aurka ere doala pentsatzen dutelako xingleki eta gorrotz. Baten indarrak gauza esentzialetan jarri behar lirateke, baina txoriburuek ez dute lekurik muin gehiagorako! Nik hala ikusten dut. Unamunok esaten zuen, gizonak bere gorputz osoarekin pentsatzen duela, eta egia da, baina batzuk soineko genitalak baino ez dituzte jartzen zezenarena egiteko, eta hor galtzen gara denok haserreak jotzen gaituenean! Gauza bera pasatzen zaie, ezker erradikalei ere, beste zentzuan!

2) Nire kasu honetan ez didate barkatzen euskara sinbolo bezala maite dutenek baino bere erabilerari garrantzirik ematen ez diotenenk, ez dituztelako honetarako bitartekoak direnen joera etimologikoak, sozialak, ikusten. Erradikal horiek, nire esperientzian, frakasatu dute euskararen alde lan egiten!, eta hala ere ez dira konturatzen bekatu originala berekin daramatela, intolerantzia ez delako inoiz bide izan aurrerapenerako, aldaketerako. Hauek dira barkatzen ez didatenak, gaur ere *Egunkaria* aurrera ateratzeko laguntza emana barkatzen ez didaten berak!

OPEn (Oficina Prensa Euzkadi) lanean aritu zinen, egun batzuetan, Parisen.

Gogoan dut bigarren bidaian, espreski OPE eguneroko boletina egitera joan nintzela egun batzuetarako. Don Manuel aritzen zen gehienetan, baina hau bere alaba ezkonduarengana, eta bakarra, Ingalaterran bizi zenarengana, joan zen, eta ni eseri nintzen bere bulegoan egun batzuetan. OPE, aurretik donostiarrak zen kazetari famatuak, Urkolak, egin zuen Agirreren denbora guztian eta gero ere,

Manuel Irujo, Libe Aretxabaleta, Agustin Alberro, J. A. Agirre lehendakaria, Javier Landaburu, Jesus M^a Leizaola (Parisen, Eusko Jaurlaritzako egoitzaren aurrean) (1959).



erretiratu zen arte, Hendaiara. Alarguna, seme bat Eibarren, Balbino Barriola andoaindarrarekin bizi izan zen hil arte. Hemen bisitatzen nuen, eta Hendaian dago lurperatua. Kanposantuan bere errainarekin eta Xabier Aizarna eta bere emaztearekin aurkitu nintzen. Urkola oso zen independentea eta karakter handikoa. Honek gerraurretik *El Pueblo Vasco* egunkari independentean idazten zuen, bere nagusi, oso famatua zen Rafael Pikabea Legia ("Alzibar") diputatuarekin. Behin Urkolari galdetu zioten ea nolatan aguantatu zuen Pikabea hainbeste urte, eta Urkolak erantzun zion: "eta ez al diozu inoiz galdetu Pikabeari nola egin duen berak ni aguantatzeko!?"

Aitzolen biografian aipatzen ditut Pikabea eta honen kandidaturaren xehe-tasun batzuk. Txispa handiko gizona zen Urkola. Elkarrizketa egin nahi niola eta eskatu nion. Baina ez zitzaion asmoa gustatzen, sekretuak zirela esaten zidan broman. Nire asmoak ezagutu zituztenek, Lezok esate baterako, eta Isidoro Fagoaga abeslariak esaten zidaten grabadora gordeta hartzeko!; baina ez zitzaidan iruditzen kazetari bati hau bere gogoz kontra egiteko gauza zenik eta ez nion egin. Asko famatzen zuen publikoki Agirre lehendakariak, eta hau Caracasera etorri zen batean, azken bidaiari zen, 1959an, Bingen Amezaga idazleak eta biok esan genion (Bingenek esan) Urkolak askotan OPEn ergelkeriak ere argitaratzen zitue-

la: "Orain gutxi, astoarekin batera gizon bat zubitik behera erori eta hil zela, Espainiako ez dakit non!... Eta Agirre haserretu zitzaigun, ez nuen sekula hain asaldatua ikusi! Honek esaten du zenbat arduratzen zen Agirre Urkolaren izen onaz, batez ere kazetari bezala.

Isidoro Fagoaga oso zen abertzalea. *Gernika* aldizkaria bere poltsikotik egin zuen Donibanen 1945etik aurrera. *Hablando con los vascos*—erako egin nion elkarriketa dela eta oso lagun egin ginen. San Inazio parrokiako aurrean dagoen kalean, Grossen, bizi zen, mutilzahar, pentsio duin batean, eta ordaintzeko Miarritzeko Barclays banku ingelesean saltzen zituen bertan, kaxan, gordeta zituen urrezko txanpon preziatuak. Bada, hauek saltzera eramaten nuen neuk, kotxean (eta bidez justifikatzen nituen mugaz bestaldeko nire bidaiak, hau berak ez bazekien ere!), laguntzen nion beheko kaxetara (zahartua baitzegoen). Hasieran, Ramuntxo Sotak errekomendatuta! Ni bestaldera bota nindutelako galdu nituen Lasarte, Teodoro Agirre eta Isidororen entierroak.

"Hablando de todo, como los locos", venezuelarrek esaten duten bezala, ari naiz hemen dena nahasten. Baina pintzelada hauek ez ditut ahaztu behar. Garai oso bat adierazten baitute.

(...)

Nola egin zizuten kontseilari izateko proposamena?

Arratsalde batez, 1972an zen?, Genevatik buelta egin eta laster, entregatu nituen *Alderdi*-ko lehen kopiak Lehendakari izan zenaren etxean, Aintzaneri, maketarako. Bestea etxera neraman zuzenketak egiteko. Eta Mikel Iasiren, orain EAJko idazkari ofiziala, Donibaneko etxetik pasa nintzen (Idazkaritza ez zegoen Beyrisen; Mikelen etxera joaten ginen, ni behintzat), uste dut Mikelek berak deituta. Aintzaneri emango

Meudon-en (Paris), Javier Landabururekin. Bizpahiru egunetarako joana zen Martin Parisera (1938).



zion enkargua, pasatzeko. Gogoan dut, ilunabarra zen, atea Mikelek ireki zidala, eta atean bertan, denborarik ez galtzeko —nik norabait joan behar nuen arratsalde hartan—, esan zidan, erdaraz (ez zuen euskararik egiten): "Aizu, enkargu bat zuretzat: ea Jaurlaritzako kontseilaritza hartuko zenukeen, Alderdiarena, alegia"...

Ez nuen inolatan espero. Juanek ez zidan, ez bestek, honelakorik aipatu (Hemen esan nahi dut, ahaztu gabe, Juan Ajuriagerrak berak esan izan zigula askotan, Alderdiaren norma zela batere nahi ez duenari postuak eskaintzea, ez bila dabilenari!!). Neu lanean ari nintzen etengabeko joan-etorrian (batzuetan nire pasaportearekin, bestetan "taxistarena" egiten zigun atso zahar batekin, eta bere txakurrarekin!). "Emaztearekin hitz egin behar diat"... "Hitz egin ezak"...

Emazteak egun bat hartu zuen pentsatzeko: gauza asko behar zituen pentsatu burua zuen andre batek, etxea hemen, haurrak ere bai eskoletan!...

Eta hurrengo batzarrean, Bilbon, Luis Mari Retolazaren etxean, eman nion taldeari baiezkua, eta aritu ginen hizketan. Jarraitu behar nuen *Alderdi* egiten, noski. Orduan etorri zitzaidan burura Genevako bat-bateko aldaketa xelege hura, tartean galdera askoko bazkari hura sendagile izango zenarekin, honen ardurak: nire bokazioa, nire planak, nire egoera, eta abar! Eta, geroxeago, Irujori igarri nizekion erreferentzia batzuk... Eta gogoratu nintzen, Bengoa-Irujok izan zituztela elkarlanak Genevan. Ez ahaztu Irujo Espainiako Gobernuaren ministro izan zela, eta ezaguera asko Genevako zentro politiko internazionalan... Esate baterako, joan berriak ziren Burgosko epaiketa eta Irujo juristaren ardurak! Ez nion inoiz galdetu zuzenean, baina susmoa izan nuen, Irujok atera ninduela Genevako lanetik orain egiten jarri ninduen lanerako.

Bestalde, sentitu nituen taldean bertan obstrukzio batzuk kasu honetan, kontrarietate batzuk...

Baina, beno, ez dut izenik emango.

Lana interior-ean egitea eskatu zizuten, ezta?

Nire lehen kontaktua Leizaolarekin Baionan izan nuen, eta ez hemengo Delegazioan, egoitza txiki apal batean baizik, gero batzarrak egiten genituen tokian. Hemen etorri zen behin Dirassar laguna, *Sud-Ouest*-erako Jaurlaritzaren argazki ofiziala egitera, eta neuk ez nuen agertu nahi izan, klandestinitatean nengoela eta, nahiz eta Leizaola jaunak eskatu behin eta berriz. Beharbada berak eman zion Dirassarri etortzeko baimena. Ez nuen nahi izan, oraindik bestaldean bizi nintze-

lako, baina baita taldean izan ziren erresistentziek min eman zidatelako ere, eta desasosegu bat sortu nire baitan.

Baina, goazen aurrera. Ni Hotel Loustalot-en —edo antzeko izen bat; kezka sortzen zait orain, zeren gero batzuetan Kapa Gorri hotelera joaten nintzen—, gela txiki batean, eseri nintzen ohean eta esan zidan don Jesus Mariak nire lana *interiorea* izango zela; kontaktu zuzenaren berri hau beharrezko sentitzen zuela berak, eta lan polita egin nezakeela. Nik erantzun nion, nire aldetik ez nuela zalantzarik, baina emazteari hitz egin behar niola berriz. Ulertu zidan, noski, eta oso leial hitz egin zidan, ongi hartu baininduen.

Bazkaldu genuen, eta Hondarribira pasa nuen pelota.

Emazteak argi ikusten zuen zailtasun berria. Arrisku gehiago, noski.

Hala ere, konformatu zen, eta han joan nintzen berriz Bilboko batzarrera. Eta, egia esan, ez dakit lehengoa edo oraingo bigarren hau izan zen Retolazaren etxean. Nolanahi, adierazi nien aldaketaren diferentzia, baina onartu nuen...

(...)

Joseba Rezola lehendakariordearen hutsunea bete zenuen Jaurlaritzan.

Joseba Rezola bizi zela nik harreman handia nuen Donibanen. Gizon isila, diskretua eta leiala zen. Hau ez zen EAJko kontseilaria bakarrik, lehendakariorde ere bazen. Nik bere lekua hartu nuenean, ez zidaten ordekotza aipatu, batzuk baieztatu bezala. Nire aitaren laguna zen, aberri lanean elkar ezagutzen zutenak. Idazten genion elkarri. Behin, ni Northwestern-en nengoela, eskatu zidan txosten bat idazteko: irlandarrek nolako lanak egin zituzten bere politikarako Estatu Batuen dirua jasotzeko. Egin nuen, eta bidali nion. Honez gero izango ahal duzu kopia, bestela, irtengo da oraindik nire paperen artean.

Honetaz bi hitz: behin, Garaikoetxea irten aurretik, hitz egin nion txosten honetaz, ni euskararen sustapenerako lanetan ari nintzela, eta, nahi bazuen, neronek presta nezakeela Ameriketara lan hau. Irakurri zuen txostena, eta beretzat nire egitasmo idatzia eskatu zidan. Egin nion, kopia hemen izango dut nonbait. Etorriko da dena. Baina ez zidan erantzunik eman. Egin nion eskaintza oso xumea eta praktikoa izan zen, hasieratik oso pertsonala zirudiena, baina hau hasiera zen, praktikoa, merkea: sekretaria bat eta egoitza bat. Hemendik irtengo zen dena bere bidetik. Honen ordez aparato handi bat sortu nahi izan banu, agian aurrera irtengo zen. Ez dakit. Ez da nire bidea inoiz honelakoa izan. Ez zait aparatorik gustatu.

Baina utzi bazidaten, uste dut lan zuzena eta praktikoa, eta egiazkoa, lortuko nuela.

Ez zen posible izan, ba kito!

Joseba Rezolarekin gaude berriz.

Meritu handiko pertsonaia maitagarria. Batez ere perlesiak jota pixka bat errendituta geratu zelako, baina beti zuzen buruan aberria eta bere lanak. Hau gertatu aurretik etorri zen Caracasera, bidaia ofizialean, 1964an zela uste dut. Nik aurkeztu nuen prentsaurrean. Gizon apal eta zuzena zen. Bere emaztea, Aurora, laguntzailerik leialena, andre fina hau ere, espetxetako, klandestinitateko eta ihes aldietako betiko laguna. Ezin daiteke bata bestea gabe aipatu! Oso gutxi aipatzen da, asko merezi badu ere.

Gizon hau ordezkatzek asko ukitu ninduen, bai. 1976ko abenduaren 26an hil zen.

Noiz arte izan zenuen kargu hori?

Bada, esango dizut.

Leizaola jaunaren zertifikatua daukat aurrean, 1984ko abenduaren 15a, eta esaten du nola eta zergatik izan nintzen izendatua kontseilari, eta datak: 1972an izendatu ninduen, eta 1975eko ekaina arte aritu nintzen berarekin.

Gobernuko bilera gehienak Baionako delegazioan egiten genituen. Biltzen ginen Eusko Ekintza edo ANVko Gonzalo Nardiz, PSOEko Juan Iglesias Garrigós, besamotza (Iruñeko kartzelatik ihes egiterakoan galdua), Izquierda Republicana-ko Carranza, Lesakako zahartxo bat (gero Agustin Arakistain), Union Republicana-ko beste gazteagoa, eta EAJ/PNVko ni. Leku txiki-apala zen. Bazkaltzera, handik gertu zegoen jatetxera joaten ginen. Zerbaitegatik bazkaririk egiten ez zenean, Leizaola eta biok Beyrisera joaten ginen jatera. Hemengo konserje bizkaitarra kontrakoa nuen, zeren eta sarrerako mahaian jartzen zituen ni salatzen ninduen *Agur* eta h-ren aurkako beste aldzkariak, eta askotan ez zen *Alderdi* ere ageri mahai gainean. Datu hauek islatzen dira nik bidali nituen errenuntziako hiru eskutitzetan, Lehendakariari eta EAJri, biei, bidaliak. Zoritxarrez, erdara izaten zen, ohitura hartua zegoen, mahaian erabiltzen zen hizkuntza. Neuk egin nituen ohar bi, baina hartua zegoen mania.

Giro honetan ez nintzen eroso sentitzen.

Leizaola jaunarekin, bai, ondo konpondu nintzen, eta ANVko Nardizekin ere bai.



Jesús María de Leizaola y Sánchez, antiguo Consejero de Justicia y Cultura del Gobierno de Euskadi y antiguo Consejero de Hacienda y Lehendakari del Gobierno de Euskadi.

CERTIFICO: Que, D. MARTIN ANDONI UGALDE ORRADRE fué nombrado por mí como Consejero en representación del Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco del Gobierno Vasco en el exilio, para ocupar la vacante dejada por fallecimiento del Vicepresidente, D. Joseba de Rezola, en el año 1.972, desempeñando sus funciones como tal hasta Junio de 1.975.

Y para que conste donde convenga, expido el presente certificado en Donostia, a 12 de Julio de mil novecientos ochenta y cuatro.

Fdo.: Jesús María de Leizaola.

Leizaolaren zertifikatua.

Juan Ajuriagerrarekin hitz egiten nuen honetaz, baina bazen besterik garai hartan. Aldaketa hasi zen Carreroren hilketarekin!

Kontseilari zinela gertatu zen Carrero Blancoren hilketa.

Hegoaldetik kanporatuta Donibanera heldu (1973.10.19) eta bi hilabete justu gero, ni familiarekin oraindik Sopitte kalean bizi nintzela, jaitsi nintzen goizean Mikel Iasiren etxera, beti bezala, eta ikusi nuen hau telebistaren aurrean bakarrik hizketan ari zela: "¡Que han matado a Carrero! ¡Que hostia le han metido!"... Eta egia zen, han ikusten dut kotxea teilatuan eta telebista negarti bat! Deitu nuen Parisera eta hitz egin Lehendakariarekin, gero Bilborekin, nik uste, nahiz eta telefonoarekin oso kontuz ibiltzen ginen zentsura dela eta... Honela joan zen eguna (1973.12.20), baina gauez etorri zen Mikel bera nire etxera esatera: ETAkoak etorri zaizkiola etxera pistola eta guzti, eta nahi dutela hurrengo eguneko lehen

hegazkinera, Parma-Miarritzera, joan beraiekin, Mikel bera eta ni, biok, Lehendakariari zerbait firmaraztera, zeren eta, nonbait, honek prentsa frantsesari esan zion ETAk ez zuela honelako hilketarik egin, euskaldunek ez dutelako honelakorik egiten-edo, eta ETAk hori errektifikatzea nahi duela egunkari bertan emandako hitzetan! Gogor!

Lehendakaria jakinaren gainean jarri eta joan ginen biok, ETako taldetxo batekin Parisera.

Baina hau ez dut berriz esango. Leizaola hil zenean Sabino Arana Fundazioan egindako omenaldian irakurri nuena oso justu egina dago, bai, eta handik hartuko duzu, Joan Mari, guztia.

Zer nolakoa zen kontseilari lana, erantzukizun aldetik?

Ofizialki Euskadik zuen erakunde bakarra zen Jaurlaritza. Mexikorentzat, ofizialki, Errepublikarekin batera, Eusko Jaurlaritza izan zen legez bakarra. Deleatuak zituen Europako herri batzuetan eta Amerikan. Hemen oso errespetatuak ginen euskaldunak eta Agirre edo Garaikoetxea etorri zirenean ia ofizialki hartuak eta erabiliak izan ziren. Francoren enbaxadak kexatzen ziren beti, baina ez zieten kasu handirik egiten. Gorde zuen Eusko Jaurlaritzak, tradizio batetik, legaltasun apur bat, batez ere Agirre bizi zenean, baina baita Leizaolarekin ere.

Harritzekoa da, bestalde, euskaldunak Frantziaritzen zirenean zenbat hurbiltzen ziren Delegaziora bisita bat egitera. Galde egiozu Santamariari zenbat aldiz joan zen Agirre bisitatzera, eta informazioa gurutzatzera, bere garaian! Beti genuen jendea hemendik han Parisen edo Baionan.

Nik ez dut hau gehiegi puztu nahi, ez da horretarako, baina euskaldunok, katalanak ez bezala, gorde genuen Jaurlaritzaren bitartez erakunde sinboliko handia. Katalanek askotan aitortzen zidaten hau. Bestalde, Madrildik ere joaten ziren pertsonalitate ez ofizialak bisita hauek egitera.

Gogoan dut, ni oraindik Jaurlaritzakoa ez nintzela, bidali zidatela enkargu bat: ezaguna den Jose Luis Abellaneke ("Taurus" eta abar), *El exilio español de 1939*-rako, euskal exilioa kontatzeko konfiantzako idazlea behar zuen Euskal Herrian, eta hala jaso nuen Irujoren deia eta Abellanen bisita Hondarribian. Nire *Sintesia* idatzi nuenean, lagundu zidan.

Bestalde, politika aldetik kontaktu internazionalak asko egin zituen bere bizi-tzan, batez ere Burgoseko arazo larrietan. Eusko Jaurlaritza denbora askoan zerbait izan zen; kontuan eduki, Irujo Errepublikako Ministroa izan zela eta Errepu-

Donibane Garaziko "La Citadelle". Eusko Jaurlaritzak antolaturiko haur-kolonia honetan bizi izan zen Martin Château-Chinon-eko egonaldiaren ondoren (1938).



blikako pertsonaiek gorde zutela pertsonalki Gurutze Gorriarekin Genevan, eta hau bezala besteak, kontaktu pertsonal asko.

Nire denboran, ni nintzen Leizaolarekin Jaurlaritza ordezkatzeko genuenak, Alderdia eta Demokrazia Kristaua, Frantzia denbora batean eta gero Italian. Espainian eta Euskal Herrian, batez ere hemengoak, noski, grebak eratzen zirenean, asko kontaktzen zen gurekin eta Alderdiarekin. Polizia frantsesaren aurrean bagenuen kontaktu ia ofiziala. Gogoan eduki azken Frankismoan Polizia ez zela gure mutilekin ia sartu ere egiten, ezikusia egiten zutela. Hau ahazten da batzuetan. Gogoan dut nola ni heldu nintzenean hemendik botata, hartu ninduen goiz batez Nardiz kontseilari beteranoak eta eramane ninduen Poliziako buruarengana Baionan eta ordu-bete iraun zuen nire presentazioak. Galdetu zizkiguten nola ikusten genuen Frankismoa eta fitxa berezi bat egin zidaten niri. Hau Paris mailan ere bazegoen. Politika zen honela garai zail hartan, eta laguntza behar zenean lortzen zen askotan.

Euskaldunon seriotasun ofiziala zen Jaurlaritza, urte askotako kontaktua eta esperientzia. Ez dakit nola konpontzen ginen, baina bilerak sindikatuekin, ELA nagusiki, baina baita UGTkin ere, eta beste, bagenuen beti zerbait. Alderdiak, EAJK, zuen gure prioritatea, noski, hurbiletik, baina gainontzeko alderdi eta sindikatuak ere kontu handian eduki behar genituen gure erabaki guztietarako.


Bigarren edo hirugarren mailako politika zen gurea, baina ahalegintzen ginen hitz egiten, laguntzen, ahal genuen moduan. Leizaola beti prest zegoen laguntza bat emateko. Nik honela ikusi nuen beti.

Beno, beharbada irtengo dira gero gauza puntualak, baina orain orokorrean burura etortzen zaidana diotsut, zure galdera gehiagoren zain.

Nola moldatzen zinen Estatu espainolean bizi izanik?

Nik etorri eta hilabete batzuetan ez nuen ofizialki zubirik pasa. Ez nuen harantzako interesik erakutsi nahi. Pasaporte venezuelarra nuen, Iparraldera hiru bisitarako ematen zidaten bisa, hiru hilabeterako! Tantaka dena, ikusten duzunez. Ahal nuen naturalen egiten nituen bidaiak, norbaitekin bazen hobe (Isidoro Fagoagarekin!, semeren batekin, andrearekin). Zubian ezagutzen ninduten, batzuk ondoegi, zorrotz, eta beste batzuk seilatu gabe uzten ninduten. *Alderdi* egiten jarri nintzenean, ez zitzaidan gustatzen hilaren egun beretsuetan pasatzea, periodizitatea markatzearen kezka. Batzuetan Anamarik pasatzen zituen probak. Gero, Leizaolarekin jarri nintzenean, egunak pasatzen nituen han. Gauza berria zen hau. Ez dakit konturatzen ziren nik pentsa hala!, kezka, beti! Orduak, normalak, lasaiak, nahiz eta gauz behin pasa behar izan nuen. Atso zahar batekin, eta bere txakurrekin!, pasa nintzen batzuetan. Ezagutzen zuten, eta seilatu gabe pasa izan naiz. Baina, ez ote zuten andrea gehiegi ezagutzen!?... Kezka hau sortu zitzaidan.

Nolanahi, 1973ko urrian bota ninduten, eta 1976ko iraila arte ez nuen Hegoalderako bidaiarik egin. Bitartean alaba ltxasok, Bilborako joan-etorrian, Deustu-



Ezkerretik hasita, Iñaki Agirre, Javier Landaburu, Jose Maria Lasarte, Teodoro Agirre eta Iñaki Renteria (1948).

ko zubian, auto istripu larri bat izan zuenean pasatzeko egon nintzen, baina nire andreak ez zidan utzi.

Anamari zen maiz pasatzen zena, kotxe berean!, eta ezaguna bera egin zen. Beno, honez kanpo, galderarik baduzu, esan.

Baina jarrai dezadan Hondarribitik begira oraindik, 1973ko urriaren 18a arte, gure munduko giroari dagokionez zerbait.

Hasiak ziren autopistaren zati bat egiten; Bilbotik hasi zirela uste dut. Nola nahi, nik ez nuen zatirik estreinatu oraindik bota nindutenean. Asteroko bilerak, gehienak Bilbon egiten genituen, eta kostako bide luze, akabaezinak, egiten genituen, batez ere bueltakoak, goizeko ordubiak aldera. Goardia Zibilaren parejak ikusten genituen bidean, baina ez genuen sekula arazorik izan. Gogoan dut behin Hondarribiko espigoian gauetz bueltatxo bat ematera irten nintzela, arnas hartzerara, argirik ez zegoen orduan hor, bat-batean aurrean argi bat piztu zitzaidan eta: "A dónde va usted?!", esan zidan; pareja zen, nik batzuetan gauetz Butroi pasealekuan ikusten nuen goardia zibiletako bat, oraindik etxaurreko, eta goardietarako kasetatxoak zutik zeuden... "He salido a tomar el aire, vivo en el paseo Butrón"... eta utzi zidaten joaten. Egia esan, oraindik ez zen laster sortuko zen giroa hasi...

Hara garaiko eskema txiki bat:

Ni 1969an heldu nintzen. Ordurako Txabi hil zuten eta Manzanás; 1970ean Burgos, Argalak aipatzen duen 6. Asanblada, 1971ren azkenean 110 preso ditu ETAk, ETA indartzen da Egi Batasunarekin, eta Txikia 1972an eta Goikoetxea hiltzen dituzte, Posada hiltzen dute 1974ko apirilean, 1975eko apirilean Estado de Excepción delakoa sortzen da, irailean Txiki eta Otaegi hiltzen dituzte, "Urte gorriak". Hauek dira momentu batzuk, perspektiba apur bat izateko.

Leizaolarekin nolako harremana izan zenuen?

Leizaolarengana Parisera egin nuen lehen bidaia, ni Hondarribian bizi nintzela egina izan zen. Data ez dut gogoan, baina gainontzekoa, bai, noski. Ez nintzen aurretik 48 rue Singer, XVI-an inoiz izan; esan nahi dut, kontseilari izendatu aurretik; sarreran, eskuinetara, Jose Mari Azpiazu idazkaria zegoen, gizon apala baina langile bizkorra. Honek bultzatzen ninduen, erretirokoan, Gasteiztik nire kontseilari izandako hilerokoa jasotzeko paperak egitera!, eta hil zenean, bere semea etorri zitzaidan bere paper guztiak ekartzera, familia argazki eta guzti, aitak eman zion enkargua betetz, eta paper hauetako bati esker lortu nuen Irujori eskainitako

liburuxkan Lehendakari Agirreren heriotza pixka bat argitzea. Agirre lehendakariak konfiantza osoa zuen gizon honetan jarria, eta beti leial portatu zen denekin.


Bada, Azpiazuk hartu ninduen eta eraman, ezkerretik, pasilotxoaren azkene-rantz... baina heldu aurretik irten zitzaigun bidean gure ezkerrean zegoen despax-tutik don Manuel Irujo, eta hartu ninduen besotik eta sartu nahi izan zuen nire-kin batera Lehendakariaren despaxtura, hau atean zain zegoela, eta honek ez zion sartzen utzi!, ezetz: "Usted espere a que salga"... , eta atea itxi zion. Anekdota xume bat da, baina ematen dut bi gizon handi hauen pertsonalitatea erakusten duela-ko: bata, don Manuel, espontaneo eta bizia, eta don Jesus Maria, berriz, hotza eta formala; honek gauzak erreglamentuz egin nahi zituen eta hark, berriz, zeto-zen bezala bihotz beroz. Ikusi ditut bi gizonak eztabaidan maiz, honelatsu, baina inoiz elkarri zor zioten errespetua, eta "zu" a, galdu gabe, nahiz eta bizi guztia elkarrekin bizi izan! Kostako da honelako portaerak gaur ikusten.

Leizaola jaunak bere eserlekutik formalki hartu ninduen, eta esan zidan elka-rrekin bazkalduko genuela; gero hartu ninduen eta don Manuelena eraman nin-duen berak, eta gero, eguerdian, bazkaritara, ez bidez Azpiazu formalki aurkeztu gabe. Bidean, interes handia jarri zuen dendetako erakusleihoetan, eta laster kon-turatu nintzen niri ari zela janarien prezioak erakusten, eta sardina lata bakoitza zer kalitatekoa zen eta abar nirekin komentatzen. Hau izan zen gure exilioko Jaur-laritzak eman zidan lehen lezioa! Lehendakariak berak behin baino gehiagotan egindako aukerak ari zen niri pasatzen! Delegazioaren inguruan prozesio luzea egin eta gero heldu ginen, azkenean, bazkaritara; lasai eta ongi egin genuen, ez garesti!, baina duinki...

Une honetan aipa nezake, datu bezela, Leizaola lehendakariak erakutsitako joeretako bat: tren geltokietako jantokiak gustatzen zitzaizkion, eta behin baino gehiago esan ere egin zidan zein gustoko zuen hau! Ez zela garesti jaten, aukerak ongi eginez gero, eta jana freskua izaten zela, mugimendu handia zegoelako, eta azkar zerbitzatzen zutela ere!

Arratsaldean etxera joan zen zuzenean, zerbait idatzi behar zuela. Aspaldi alargundua, don Jesus Maria alaba ezkonduetako batekin bizi zen. Gero, bere lan osoak bildu nizekionean, Sendoa-n, konturatu nintzen zenbat idatzi zuen, eta eus-karaz asko! Eta ni etxeratu nintzen trenez, joan bezala.

Pariseko hurrengo egonaldiez aipatu nahi dut, gauean, Delegazioko konser-jeak eta bere emazteak (Alberdi senar-emazteak, Plazentziako ELAko leialak) egin zidaten ohea denbora batean Delegazioko enfermeriako (errefuxiatu euskaldu-nentzat jarri zuten) mahai edo gaixoak etzateko armatoste gainean. Hemen lo



Gurs-eko kontzentrazio-zelaian egon zen Martin hilabete (1940).

egin nuen orduan egin nituen egun batzuetan. Eta Azpiazu haserre! Eta hurrengo bidaian, niri ezer esan gabe, inguruko hotel batean erregistratu ninduen, eta bertan lo egiten nuen. Ikus ekonomia! Hemengo numeroak ematen zituenen Andoni Urrestarazu zen: Baionako delegazioan egoten zen, numeroak eramaten, eta noizean behin Parisera etortzen zen hemengoak hartzera.

Poliziak Hegoaldetik bidali ondoan ere, jarraitu nuen *Alderdi* egiten eta Leizaolarekin lan etengabea, Parisen, Baionan eta Donibanen. Gauzetako bat, Lehendakariaren Gernikako agerraldia Mikel Isasirekin batera prestatzea izan zen. *Alderdi*-n 1974ko apiril-maiaztean agertu ziren Euskadiko Jaurlearitzako Kontseilu kontsultarako lehendakari zen

Donibane Garaziko "La Citadelle" koloniako nagusiak. Hauen artean daude Gustavo, Kepa, Agirrebengoa, Jon Uriarte, Iñaki, Sabin Gezala, Javier Ugarte (1938/39).



Gabriel Goitiak eta bazkarian Lehendakari jaunak berak Donibanen, esan zituzten hitzak.

Beraz, hau da data.

Hor daude hitzaldiak eta beroietan informazioa.

(...)

URRUTIRATZETIK HAUSTURARA

1985 ondorengo hausturan EAra zoaz. Zergatik?



Arteder Bi. C. Garaikoetxeari Martin Ugalde eskua ematen.



Carlos Garaikoetxea Lehendakari ohiak Martin Ugalde "Honoris Causa" Doktore berria zoriontzen du (1999).

Nik kartaz, hiru!, adierazi nuen ez nengoela konforme lanarekin. Erantzunik ez, hau zen Alderdiaren eta Jaurlaritzaren (bati karta, besteari kopia) taktika zaharra, betikoa. Neuk arrazoiak nituen Alderdiarekin (ez Jaurlaritzarekin) konforme ez egoteko, baina hau utzi behar nuen, kritikak, tratuak, ez ninduelako gustora uzten.

Nik heltzen banion oraindik, Ajuriagerrarengatik zen, honek ez zidan utzi nahi joaten. Ulertzen zituen nire kezak, berak izan zituen nire garai berak Alderdian behin baino gehiagotan, eta honek ezetz esaten zidan. Normala zela hala gertatzea, baina ez zaiola kasurik egin behar. Aurrera!

Nire eskutitzak argia egingo dizute, baina hauek etorriko dira, ez oraindik.

Honela gauzak, distantzia sortu zen nire eta Alderdiko taldearen artean. Gogoan dut nola Alderdiko kide batzuk, bisitetan, esaten zidaten zergatik ez nuen zatiketa bat sortzen, beraiek ere ez zeudela konforme jokabide batzuekin. Badakizu, klandestinitatetik irteten, eta gauzak berez joan behar zuten bere tokira etortzen, beti gerta ohi den bezala. Niri, berriz, ez zait inoiz hausketa gustatu. Batu, bai. Hautsi, ez. Hau Agirrerengandik jaso nuen, dut, bide zuzen bezala: ez dugu Luterorena egin behar, hau kaltegarri izan zen beti, Erasmorena baizik. Berarekin egon naiz beti puntu honetan eta beste gehienetan ere.



Chillida, Arzalluz eta Zabalarekin batera manifestazio batean, Bilbon (1979).

Baina, goazen zurera. Distantzia honetan geratu nintzen, nire kabuz. Ikusten ginen manifestaldietan eta beste, baina ni Ajuriagerrak deituta sartu nintzen *Deia*-n, gero idazteko lanak etorri zitzaizkidan eta politika kurpiletik at geratu nintzen, ia nahi gabe, baina politikako interesa galdu nuelako. Ikusten ginen manifestaldietan, beraiekin joaten nintzen beste lagunekin batera, Juanito Zabala, Chillida eta abar. Gogoan ditut Xabier Arzalluz eta beste oso ongi.

Honela etorri zen haustura, ni Euskararen Sustapenerako Jaurlaritzan lanean, Velez de Mendizabal eta Joseba Azkarraga bila etorri zitzaizkidalako eta Euskara gai zelako! Egia esan, nik ez nuen politika gertutik bizi eta ez nuen ondo eza-gutzen korapiloa. Bakarrik, Garaikoetxea gertuago neukan, hitz egiten nuen bera-gaz Gasteizen, eta Arzalluz urrunago geratu zitzaidan alderdi askotatik. Bestalde,



Europako
Parlamenturako EA
alderdiko taldea,
Donostiako Alderdi
Eder-en (1988).

eta arrazoi berarengatik, orain ere hausturaren aurka nengoen, baina parte har-
tzerakoan dudarik gabe Garaikoetxearen aldean, legitimitatearen terrenoa bestal-
de, geratu nintzen.

Gogoan dut garai hartan zer zerbitzu ari nintzen egiten Alderdiari: Alderdia-
ren historia ematen ari nintzen batzokietan: Donostiako nagusian, Ordizian eta
abar, nenbilen lan honetan, eta interesa bazegoen! Aurreneko aldia zen Alderdiko
historia zehazten hasi nintzela, eskabidea egin zidatelako garai honetan, eta
aprobetxatu nuen lan pixka bat egin eta nire klaseak organizatzeko. Donostiako
klaseetara etortzen ziren, bestek beste, Joseba Agirre, Lehendakariaren semea,
lagunekin, Maite Elizondo eta abar. Eta gertatu zen, hain zuzen, EArako geratu
zela Donostiako batzokia, eta Gipuzkoako gehienak Garaikoetxearen alde. Dena,
gerraren hasieran loteria geografikoak eragina izan zuen modura, etorri zela joko-
an oraingoan ere.


Eta jokabideak dekantatzen hasi ziren hartan klaseetako bi alderdikide hurbil-
du zitzaizkidan etxera esatera beraiek Arzalluzen taldearekin geratzen zirela, eta
nirekin hitz egin nahi zutela, beharbada ez nengoela ongi informatua eta beraiek
bazutela datu zehatza, niri pasa nahi zidatela. Sentitu nuen, besterik gabe, tximea
zela, garai hartan asko sortu zen!, eta esan nien ez nuela entzun nahi. Esango zida-
tela, harrez gero, baina neuk ezetz, eta hala joan ziren nik entzun gabe.

Hurrengo historia ikastaro hura Ordizian izan zen, hain zuzen, eta hemen
ikusi nuen bi talde egin zirela eta eztabaida txiki bat sortu ere egin zen batzoki
honetan! Sentitu nion, pena handiz, gure arteko hausturari pozoina!

Nire aldetik, hitz egin nuen Gasteizen Garaikoetxearekin, maiz edo joaten nintzaion, esan nion lan hura uzteko asmoa, eta esan zidan ezetz, hobe zela nik jarraitzea beste bat sartzea baino. Hala esan zidan. Hala ere hartua neukan erabakia. Ez nintzen boteak izan zirenekin batera joan, itxaron nuen aste batzuk, eta egia esan, Joseba Arregiren ordez Luis Mari Bandres etorri zenean nirekin ezin hobe portatu zen, geroztik beti portatu zaidan legez, eta geratzeko esan zidan; orduan erakutsi nion nire asmoa, eskertu nuen, eta aste batzuk barru Kulturako kontseiluaren izenean bazkari bat eman eta gero, orogarri polit bat eta guzti, irten nintzen purrustadarik egin gabe, alderantziz, gustatzen zaidan modu zibilizatuan. Eta, esan bezala, aurkitu nuen bestaldean ere jarrera bera. Eskertu nuen hau.

Hara hausturaren garaian EAren sorrera eta honen aukeraren nire historia laburra.

Haustura hori traumatikoa izan al da zuretzat? Nola bizi izan zenuen pertsona eta abertzale gisa? Euskaldunon batasun-kezka behin baino gehiagotan azaldu duzu.



EAKo Joseba Azkarraga, Pelay Orozco eta Nestor Basterretxearekin batera Gernikan (1989).

Hara zure galdera, ez nekiela, erantzuna emanda utzi. Hala ere, "traumatiko" hitzak merezi du bereizketa bat: haustura beti izan da niretzat hori, traumatikoa, bihotzean eta buruan ere marka bat uzten didana. Biolentzia dago hor, eta honek, neurri txikietan ere, min ematen dit. Alderdiari kalte handia egin dio, eta herriari ere bai, nik uste. Geunden baino ahulago eta txikituago geratu ginen, eta gara

oraindik! Alderdia, bi jarrerarekin, zentratuagoa izango zen. Eta hemen, zentro bat, ezker bat, nahiko izango lirateke beste eskuin espainolaren ondoan.

Sinpleegi ari naiz jartzen, baina hara nire asmoa.

Zuk barrutik ezagutu izan duzun Alderdiaren eta oraingoaren artean zer da desberdin? Zure ametsetako euskal alderdia nolakoa litzateke?

Haurtzaroan ezagutu dudana Alderdia, Andoaingo batzokia, aitaren lanak udalean, nire dantzatziki lanak, antzerkiak eta beste, oso gustu gozua eta betea utzi didate. Dena zen polita, garbia. Gerra, abentura izan zen, gordina Bilbon, herriko heriotzak, lehen Gobernu euskalduna, lehen exilioa, bakardadea eta haustura tristetia. Eta hiru zatietan sentitu dut Alderdia gertu. Gure familiako eta pertsonalki nire historian dago lagungarri, pertsona fisikoak tarteko direla. Herrira lehen aldiz itzuli nintzenean, sentitu nuen falta, bilatu nuen, eta azken fasean antzeman nuen, ahuldua. Venezuelako bigarren exilioan sentitu nuen eta barrutik lan egin nuen ilusio handiz, eta berak bultza ninduen bigarren herriratzera. Berton lan egin nuen, bigarren botaldia arte eta gero, bere txikikeria batzuek zehar, ezinbestean, eta demokraziako fase berrian, bigarren Gobernuan, izan direnekin gorabeherak sentitu ditut. Beharbada, egia hau da, baina ilusiozkoak ahaztu gabe oraindik.

Bi zati nagusi egingo nituzke. Antifrankismoak bultzatakoa garbiagoa izan zen: klandestinitatea eta exilioa errazago bizi izan ditut Alderdiari edo Alderditik begira; aukera garbia zen, erraza. Bigarrena, politika bere barrutik edo berari begira egitea, politika praktikoa, zailagoa da, eta hau da egiazkoena!, noski! Baina denak sentitu ditut, eta ezin dut gaur bertan ere, egiten duena ikusterakoan, kanpotik bakarrik ikusi; nolabait identifikatzen naiz bere historiarekin, merituekin, hutsekin, bat ametsekin eta errealitateekin uste gabe ere identifikatzen den bezala. Nola ulertu EA Alderdirik gabe, onean eta txarrean?

Gauza bat ez zait atsegin gaurko Alderdian: euskararenganako duen indar falta. Lehen, EAJren ardatz zen, ez zegoen aurrerago zegoenik, eta gaur atzera geratu da, oso ahuldua.

Min ematen dit ikusteak.


Caracasetik Ipar Euskal Herrira etorria zara 1964an ETakoekin mintzatze- ra. Zertarako? Ofizialki ala inizatiba propioa?

Pertsonala, osorik. Txillardegik eta biok idazten genion elkarri. Ni gai honek kezkatzen ninduela zer esanik ez. Agirre etorri zen batean, berari egin nion galdera zuzenki Eusko Gaztediaren izenean, jendaurrean. (Nik prentsaurreak prestaten nizkion eta beragaz egoten nintzen luze batzuetan, baina beste hau formala izan zen). Eta erantzun zigun: gazteek beraiek eskatu ziotela elkarrizketa, eta pozik hartu zituela, baina esan, horiek nahi bazuten taldearen ardura hartzea, Lehendakaria berak agindu behar zuela, ezin zuela gazteen jostailu jarri Jaurilaritzaren edo honen buruaren prestigioa. Honetan arrazoi zuen. Ezina zen babesa eman agintzarik gabe. Bistakoa zen hau.

Eta honetan geundela, gero, 1960an, Agirre hil zen. Eta itxaropenetan geundela Landabururekin, laster hau hil zitzaigun. Neuk bi urtetan nahiko lan izan nuen estudioekin. Baina Caracase-
ra itzuli nintzenez gero, *Iltzalleak* agertu berria eta Txillardegirekin idazten nintzen eta gaiak asko arduratzen ninduen. Behin nire lehengusu Zubillagari idatzi nion Angelura esanez (hor dira eskutitzak, ez gutxi) neuk ETakoekin hitz egin nahi nuela, ez hausle bezala. Agirrek esaten zuen behin eta berriz, gure herrian ez genuela Luterorena egin behar herri barruan, honek elizbarruan egin zuen zatiketa legez, baizik eta Erasmoren moduan, konponketa eta elkartasunaren, batasunaren, alde. Agirrerri entzundako gauza asko geratu zaizkit gogoan, batez ere hau.

Zubillagak, hitz egin zuen orduko Alderdia ziren Solaun, Eli

Txillardegiren gramatikaren aurkezpen ekitaldian, Martin Ugalde F. Krutwig eta Txillardegirekin (1979).



Etxeberría, Monzonen lehengusu zen Iñaki Unzeta —gizon jatorra oso, eta garai hartan *Alderdi* aldizkariaren zuzendari zena—, eta hauekin batera, idazkari praktikoko bezala Donibanen bizi zen eta Ajuriagerraren gizona zen gazte Mikel Isasi-rekin (hau ez zen Solaun eta besteen konfiantzako gizona eta gauza hauetatik kanpo uzten zuten, kasu honetan gertatu zen bezala), alegia, nik nahi nuena zera zela, ETAko taldearekin hitz egin, baina ez haiekin bakarrik, baizik eta haiekin hitz egingakoa Alderdiari pasa nahi niola, eta alderantziz, noski, behin edo bi edo hiru aldiz, ea zerbait argitzeko eta konpontzeko modurik lortzen nuen. Ni joango nintzela honetarako bertara laster hartu nitzakeen oporretan.

Nik berauekin lortu nuen Eusko Gaztedi "mixtoa" sortzea Caracasera heldu nintzenezan, 1948an, nik uste. Ez dakit hau aipatu dizudan, ez nago seguru, baina uste dut beste nonbait ere idatzi dudala: Caracasen alderdikide batzuk, Andoni Arozena, Periko Olariaga, leader kontserbadoreek, eta beste hamarreko batek, asanbladan bronka handi bat armatu ondoren Eusko Etxetik baja eman zuten. Hala ere, bazekiten gauzak ongi irten zirela, Agirrek ere ondo hartu zuela egindakoa. Eta nire lehengusuak ere lagunduko zidan abokatu lanean, bera kontserbadore bat bazen ere, eta ETAREN kritiko handia, baina zentzua bazuen.

Eta baiezkoa eman zidaten, ez dakit Parisekin hitz egin zuten, nolanañi baietz, eta joan nintzaien. Berauekin hitz egin nuen aurrena. Gero Txillardegirekin, eta bere taldearekin, bi anaia Benito del Valle, nafarra zen Irigaray, euskaltzain eta idazlearen biloba eta semea; Julen Madariaga, Jose Manuel Agirre. Ez dakit Iñaki Larramendi ere hor ez ote zen. Hemen aurreratu behar dut gero idatzi nuen Historian, Iñaki Mugika Arregik erregalatu zidan ETAREN historia izan nuela eskuetan. Nahiko presaka aritu nintzen, zeren eta Bartzelonatik, Madrildik hobe, hemendik tiratzen zidaten gehien, Planeta-tiki, eta zatika bidaltzen nuen, ahal nuen bezala dena.

(...)

Baina, bildu nintzen bada ETAREkin, eta, egia esan, ameslari batzuk bezala ebaluatu nituen. Izan dugu lehen ere ameslaririk gure herrian, behar ziren!, baina ni nenbilen orduan praktikotsun apur baten bila, eta esan zidatenean gure herrian zergak nola kobratuko zituzten, ez nuen pentsatu egin zitekeenik. Gerra karlistetan bi aldeak egiten zuten gauza bera diruz kaxak eta txekorrak edo behiak sabelak betetzeko, baina orduan kobraketa haiek ez nituen bisualizatu. Ni neu ez

negoen prest gauzak honela ikusteko. Baina haiak, herri-borrokan sartuak zeudenez, bai! Ezin izan nuen, beraz, ezer konpondu.

Ni konturatu nintzen alde batetik bestera tarte handiegia zegoela: gerraurreko eta gerrako jarrera oso zegoen gazte hauengandik urrun. Ni, gazteagoa, bien arteko belaunaldiko pentsakerak nituen buruan, baina lotuago nengoen batez ere Arana eta Agirre zenaren moral eta abertzaletasunera. Neuk biak nahi nituen lotu, ez ezer hautsi, denen beharra zegoen orduan, eta gaur ere!, baina gaztegoak hartua zuten bidea, orduan ikusi nuen argi etena. Min egin zidan. Geroztikoa hortik dator, min horretan bizi izan naiz beti.

IDAZLAN POLITIKOAK
Periodismo político



JUSTICIA PARA GALÍNDEZ

El Nacional / 1958.03.12

Ahora, el 12 de marzo, se cumplen dos años de la desaparición de Jesús de Galíndez. La garra del tirano lo acechó de noche, cuando hacía su recorrido habitual en subway desde la Universidad de Columbia, donde explicaba Historia Latinoamericana, hasta su domicilio en el Downtown de Nueva York, trayecto que hice muchas veces con él.

Cuando nos llegó a Caracas la noticia de su desaparición recordé las precauciones con que atendía a la puerta en el número 30 de la Quinta Avenida, donde residía en la misma sede de la Delegación del Gobierno Vasco, y las confidencias que me hizo acerca de las misteriosas amenazas telefónicas con que le estaban asediando constantemente.

A veces angustia cuando hacía el relato de los terribles métodos de venganza política de la dictadura dominicana. ¿Tendría el brazo tan largo y la mano de garfio tan hábil como para alcanzar impunemente a los habitantes de una ciudad tan eficazmente protegida como Nueva York? Y como si el tirano hubiese querido hacer en aquellos días un alarde de su poder, sus asalariados abalearon en el pasillo de una casa de la ciudad a Andrés Francisco Requena, un líder antitrujillista exiliado que era amigo de Galíndez. Muchos les han precedido en esta enorme fosa común que ha ido cavando de nuestro tiempo, y muchos otros serán todavía ignominiosamente torturados, vejados y asesinados por haber osado combatir la terrible noche del despotismo con la luz de las ideas. Y el cuerpo de Galíndez acaso no hallará reposo nunca "allí en la finca que tienen mi padre en Larrabeobe, en la parte donde se dividen las montañas de mi patria".

Jesús de Galíndez era un romántico de los derechos humanos. Era un poeta de todas las libertades del hombre, las individuales y las colectivas de los pueblos, el decía que no podían separarse, y era peleador incansable de los derechos de su



Jesús Galíndez.

patria vasca y de la patria de todos los hombres. Tuve oportunidad de acompañarle a la residencia de uno de los líderes de la independencia argelina, cerca del Central Park, para quienes traducía unos documentos que necesitaban para su campaña independentista, que ya en el 52 estaba en discusión desventajosa en el seno de las Naciones Unidas. Lo vi manifestando con carteles que reclamaban asesinatos y torturas frente al Consulado Dominicano, hombro con hombro con los exiliados dominicanos. El me presentó a Valmore Rodríguez durante un acto democrático en Nueva York, y a Gordón Ordás, Presidente del Gobierno de la República Española en el exilio, y a Germán Arciniegas, el gran escritor colombiano, hombres de pueblos distintos a los que se sentía unido por el común anhelo de justicia y de libertad.

Jesús de Galindez era un hombre solitario. A pesar de estar tan ocupado en su vida de relación, recibiendo a sus compatriotas en la Delegación del Gobierno Vasco en el exilio, o dando clases a sus alumnos en la Universidad de Columbia o trabajando al frente de una agrupación de intelectuales latinoamericanos (organizó los primeros Juegos Florales en lengua castellana celebrados en Nueva York) o acompañando en sus reuniones a los dominicanos exiliados en las Naciones Unidas, él era un hombre de amplia vida y también un poco de sus ansias de irse quedando en su obra, en su mensaje. Así, con ese espíritu de dar una lección perdurable, desafió las amenazas que recibía en la agobiante soledad de su habitación de soltero en Nueva York, y redactó valientemente, sin omitir un dato de su información y sin torcer una intención por apasionamiento, con la frialdad y el aplomo de una tesis doctoral destinada al prestigio de la Universidad de Columbia, para asestar el mazazo terrible de La era de Trujillo, una obra que esta parte fundamental de la historia de la lucha contra las dictaduras latinoamericanas.

El temerario desafío de este hombre solo contra el poder de la más absoluta de las dictaduras, nos ha ofrendado al mismo tiempo que un hermoso episodio de la lucha del hombre por su dignidad, el triste ejemplo de la quiebra moral de la justicia cuando está mediatizada por los intereses de la política y el comercio.

Pero los hombres de bien, la gente de los pueblos que han sufrido en su espíritu y en su carne el botazo brutal de la tiranía, seguirán uniendo su voz para reclamar justicia.

AGUIRRE: LA DEMOCRACIA VASCA EN EL EXILIO

Elite / 1959.03



Agirre lehendakariarekin Caracaseko kazetari-taldea. Martinek antolatu zuen bilera.

Cuando el Presidente del Gobierno Vasco, el Excmo. Sr. Jose Antonio de Aguirre, llegó a Caracas en 1950, el recepcionista del Hotel Nacional, un español amigo mío que estaba haciendo el registro de rutina, le preguntó:

—¿Nacionalidad?

—Vasca.

El español le sonrió cortesmente, y con cierta simpática malicia insistió:

—Sí, ya se; pero la de su pasaporte... pone en evidencia su nacionalidad.

El Presidente vasco se sonrió también, y recibió de Jesús de Galíndez, quien le acompañaba entonces como su secretario, el pasaporte con visado diplomático en vigencia para todos los países del mundo, excepto la España franquista, extendido... por el Gobierno Vasco.


El español amigo mío tuvo un gesto de sorpresa, y devolvió el pasaporte con una excusa que el Presidente de los Vascos no quiso aceptar, porque le dijo:

—No, no tiene por qué excusarse; todavía hay muchos que no comprenden nuestra situación jurídica.

Jesús de Galíndez explicó entonces que él también tenía un pasaporte igual. Después hizo auto de fe bien claro acerca de esa su voluntad indomable de demócrata o de vasco.

En Venezuela, donde los vascos exiliados (los primeros llegaron con su documentación vasca) y emigrantes tienen tan viejos y sólidos lazos de hermandad, también se confunde con frecuencia el carácter y la profundidad del problema vasco. ¿Qué es el Gobierno Vasco dentro de la República Española? Y ¿quién es este hombre enérgico y sincero que lo preside y que nos visita cada dos o tres años, y a quien la prensa venezolana lo acoge con tan general simpatía?

Agirre lehendakariarekin Caracaseko kazetari-taldea. Martinek antolatu zuten bilera. General Aranburu, Argentinako presidentea, Caracaseko Euskal Etxean. Martin Ugalde zen Euskal Etxeko lehendakaria (1959).



EL FUTURO DE LA DEMOCRACIA

Es bien sabido que los Estados modernos de Europa son de creación histórica muy reciente. Y de estructura muy accidentada. ¿Cuántos cambios fronterizos han sufrido Polonia, Austria, Alemania, Francia, Yugoslavia, Finlandia, y casi todos los demás países durante los últimos cincuenta años de este siglo? Sin embargo, esas familias humanas, esos pueblos, continúan sintiendo las mismas patrias.

Europa es un rico mosaico de pueblos dotados de una fuerte personalidad que han sido caprichosamente repartidos por los intereses de las dinastías reales, por sus conveniencias de bodas, de herencias o por simple ambición personal, sin contar con la voluntad de los pueblos que estaban mandando. Estos hechos no son de hace miles de años, sino de ayer mismo.

Por fuerza mental, el hombre siempre está dispuesto a creer que los Estados fueron establecidos así desde los primeros días de la Creación. Esta conciencia no es sólo de ahora; así pensaban en Venezuela a principios del siglo pasado, cuan-

do precisamente se estaba perpetrando el atentado contra la nación vasca. Pero la vieja memoria de los pueblos no olvidan tan fácilmente su derecho a la vida. No hay más que dar un vistazo a la Historia Universal para ver cuán caprichosa y descuidadamente se repartían algunos reyezuelos sin cultura el dominio de los pueblos, tejiendo esa espesa y sucia red de intrigas, crímenes, amoríos, ambiciones y atropellos que se cuentan como si fuesen novelas de ficción que ni siquiera mencionan los sentimientos de los pueblos que los soportaron.

Naturalmente, cuando los pueblos se despiertan a su conciencia (ya que es un error conceder sólo este privilegio a los pueblos de América o de África), cuando con su desarrollo político los pueblos despiertan a la conciencia de su lengua, de su cultura y de su personalidad, levantan la voz para pedir que se les oiga y se les repite.

No ha habido otra época de la historia humana en que se hayan despertado tantos pueblos a su propia conciencia. Sólo en estos últimos años han sido proclamados libres, desde Irlanda e Israel, hasta Gana y Chipre, casi cuarenta pueblos.

Esta conciencia de la libertad nacional llega precisamente en la era de otra conciencia avasalladora: la de la solidaridad universal. Y es un indicio. Es que de ninguna manera se contradicen, o se chocan. Es que esta conciencia nacional no contradice la de otra cada vez más paternal y más estrecha de solidaridad internacional, sino que asoma como el gran cimiento de su fortalecimiento en la práctica del respeto mutuo.

La estructuración de la solidaridad humana en la libertad no tiene otro camino que articularse en los pueblos en los núcleos humanos a los que una lengua, una sangre y una cultura comunes une espontánea y voluntariamente, y no en los Estados creados espúrea y caprichosamente por la voluntad tiránica de las dinastías reales. En esta época del reconocimiento de los derechos del hombre y de los pueblos, en esta magnífica era de la conciencia de la libertad y de la solidaridad de todos los hombres, resultan inadmisibles e imprácticas las bases arbitrarias de las estructuras nacionales heredadas de la fuerza. O ya el hombre ha fracasado otra vez rotundamente en su visión de futuro.

Y el País Vasco (Euzkadi lo llamó el Libertador de la conciencia del pueblo vasco, Sabino de Arana), ¿tiene razones suficientes para aspirar a este reconocimiento; o es una terquedad, o es un siempre capricho?

AQUÍ ESTA EL PUEBLO

No hay duda de que el Pueblo Vasco existe desde hace miles de años, hablando la lengua más antigua de Europa. Como era costumbre en los pueblos de escasa fuerza guerrera, los vascos pactaron y acometieron empresas de defensa y ataque con otros reinos de la Península Ibérica; sobre todo son importantes sus pactos con la Corona de Castilla; pero nunca afectaron su soberanía en las fronteras, ni en su organización de la justicia, ni en su administración, hasta que en 1839 (después de las independencias americanas) una ley engañosa y torpe comenzó a minarla, y en 1876 obligaron a los vascos a servir en el ejército español.

En cuanto al gran periodista y escritor que fue José Olivares Larrondo, "Tella-gorri", era su correligionario, y sobre todo su colaborador más fiel en el quehacer ininterrumpido en *Tierra Vasca*, el órgano de ANV en que escribíamos gentes de todas las tendencias, y cuando murió "Tella-gorri" en Buenos Aires, en 1960, al mes de morir el lehendakari Aguirre, es Peio Mari el que toma el relevo. Para conocerlo, hay que leer los graciosos perdigonazos políticos (que a veces escondían posta gruesa) en forma de "Pajaritos" que disparaba contra el franquismo mientras duró. Para comprender a Peio Mari hay que verlo también en esta frase del homenaje que tributó a su leal amigo de partido y de exilio:

"Durante cuatro años enteros yo he sido los ojos y las piernas del viejo "Tella-gorri". Era mi director, un director al que llamaba 'viejo', que es la forma más cariñosa de llamar a un amigo. (...) Por su poca salud, su mala vista, por esas piernas fuleras –que, quién lo diría, se habían enfrentado a las 'Pichichi', el viejo necesitaba ojos y piernas de repuesto, y yo hacia de eso, de repuesto".

Como tuve ocasión de decir en el prólogo que hice al "*Anttxon Sukalde*" de "Tella-gorri" editado aquí en 1978, es la más bella forma de entrega en la amistad que he leído.

Euzkadi era su sueño político, concebido a su edad, todavía, a la manera en que lo ven lejos, en la utopía realizable los que tienen todo el tiempo del mundo para esperar que el milagro se convierta en realidad: Los jóvenes más audaces de hoy. Trabajó por ella y se enfrentó a la cárcel y la pena de muerte, a trabajar de topo en la clandestinidad junto a Rezola en Madrid, al paso clandestino de fronteras, a toda una vida de exilio, y luego, al acaso para él el más amargo regreso al dolor de Navarra.

Le dolía Navarra, su distanciamiento del proyecto político más lógico y beneficioso: Euskalherria, todos los días del año. Iba de Estella a Iruña, de Iruña a Estella, con salidas al mar de Donibane para respirar, y siempre con la preocupación de su suerte política.

Ha caído en una de esas sus dos estaciones de calvario, pensando en Navarra, soñando en Euzkadi.

Y se ha ido, no como "Tella-gorri", quien murió de exilio, sino del dolor de regreso, a veces más amargo.

Allá, lejos de la tierra y en el tiempo de la desesperanza, se han ido muriendo muchos patriotas de ese dolor de no poder alcanzar a ver la explosión de luz y de libertad que esperaban recibir como compensación a tanta constancia, dolorida de la espera interminable. Pero creo que ha sido mejor para muchos. Estoy

pensando en "Tellagorri", en Vicente de Amézaga, en Andima de Ibiñagabeitia, por citar sólo algunos poetas de la Patria que he tenido la suerte de sentir cerca, a los que, en su dolor de sentirse morir en tierra de exilio, se les ha reservado de otro que les esperaba en su propio País, magnificado tantas veces por amor.

Pues Peio Mari ha cubierto todo el camino de este dolor patrio.

Merece la gratitud de los vascos y la paz que aquí no ha llegado todavía.

Goian Bego.

"ABERRI EGUNA"-REN GAURKOTASUNA

Deia / 1983.03.31

Aberri-Egunaren erroak sentikorrek dira; eta bide batez, Aberri-Eguna erantzun politikoa baten oihartzuna da.

Erantzun politikoa hontan dago: Lehenengo Aberri Eguna ospatu baino hila-bete aurretik eskuindarrek Bilboko "Euskalduna" frontoian mitin handi bat antolatuz; Eusko Alderdi Jeltzaleak pentsatu zuen honi erantzun nabarmen bat eman behar zitzaiola. *Bihotza*, berriz, beste hoietan: Don Luis Arana-Goirik Sabini abertzalearen begiak ireki zizkiola 50 urte betetzen ziren 1932ko udaberri hartan, eta Pazko eguna Berpizkunde Eguna denez, gure herriaren berpizteari eskaintzeko izpirituarekin sortua izan zen Aberri Eguna.

Eli Gallastegi bide zela, Irlandako Pazko odolezko haren oroipenak ere izan zuen antolamenduan bere jokia.

Dena dela, gauz bat dago argi: *Sortu zen, behar zelako.*

Eta lehenengoa *Bilbon* ospatu zen, izpiritu berriaren jaioterria, Abando, bertan zegoelako.

Eta dagoelako oraindik.

Harrezkero beste hiru ospakizun egin ziren guda arterainokoa: 1933an *Donostian* (Euskadi-Europa), 1934an *Gasteizen*, eta 1935an *Iruñean*.

Gerrarteko Aberri-Egun hoiek izan ziren gero ospatuko zirenen hazi.

Eta hazi emakor eta iraunkor.

Larrialdi ikaragarrietatik zehar iragana da hazi hau, eta beti eman du frutua, gure Arbolak bezala; gudan bertan, eta gero espetxean, torturapean, ixilpeko lanetan, kultura eta politika zanpaketan, beste era askotako hilketetan, eta erbestaldi luzean.

Aberri-Eguna, herrian eta atzerrian, gure itxaropenari eusteko ospakizun zoragarri bat izan da abertzaleontzat.

Eta orain, baretu da ekaitza.

Argiak hasi dira pizten; neketsu bezain pozgarri; ez da oraindik askatasun eguzkiaren egunsentiaurrea besterik, baina hasi da zabaltzen zenbait alorretan.

Ezin du hau inork uka.

Baina badirudi, Aberri-Egunaren frutu batzu ehiartzen hasiak direla; ez da gure artean Agirre Lehendakariak aitatzten zuen "gure arteko anaitasun sakon"

hura ematen. Egia da, bestalde, gure herriak inoiz baino herri kontzientzia handiagoa duela; baina berekoikeriak direla, eta isukeriak eragindako hilketak direla tarteko, geu hasi gara Aberri-Egunaren izpiritua itotzen.

Ez dugu azken bizpairu urte hoietan Berpizkunde eguneko ospakizunerako batasun deirik egin.

la-ia gure herria batu zuen izpiritua nolakoa den ahaztu ere egin zaigu.

Ez ote dugu *gaur behar*?

Hil ote zaigu? Hazi hura, Arbola emankor hura, antzutu ote?

Bi batasun moeta lortu behar ditugu Euskerian, zorigabeko herri hau bere buruaren jabe izango bada, zion Sabinekin; eskualde bakoitzean bertako semeen artekoa, eta sei eskualde hoi batasuna bestetik, gure Aberria herri bezala bizi-rik irtengo bada.

Lekutan gaude oraindik.

Baina bestalde, eman diren pausoak handiak izan dira; lorketa honen pozak ematen duen eraginarekin ez genituzke Sabinekin jarritako jo-muga eta bideak hain zabarkin ahaztu behar; bestela, orain ehun urte paseak Arana batek besteari pasa zion eragin bulartsu haren nekeak alperrikakoak izango liriteke, eta Euskadi, gure naziotasunaren proiektu politikoa, bidean zirtzilduta geratuko litzaiguteke.

Eta orain arteko neke-minak eta hilak erantzungo liguteke.

Eta etorkizuneko seme desanparatuak madarikatuko.

LA ÉTICA POLÍTICA DEL PSOE

Deia / 1983.04.27

Los vascos del PSOE han comenzado a difundir en su campaña la especie de que las cosas que importan al País Vasco se resuelven en Madrid.

No se trata de una campaña pro-Estatuto, como se ve.

Se trata, al contrario, de desprestigiar una institución política establecida en la Constitución Española como uno de sus pilares, sobre el que se sustenta la novedad más clara de esta nueva etapa democrática: el Estado de las Autonomías; defendida por el PSOE desde su referencia "federal" en sus estatutos internos hasta sus afirmaciones políticas más responsables y las promesas más optimistas en los pueblos y las regiones del Estado.

Como lo vino haciendo en Euskadi a su tiempo.

Lo que ocurre es que aquí, y a raíz de algunas derrotas políticas, está ensayando el correctivo de una hegemonía socialista en el Estado, lanzándose temerariamente por el camino de sacar provecho de la avalancha que produjo un vacío de poder en las elecciones de hace unos meses. En cuanto a los vascos, para vaciarnos del voto de los ciudadanos venidos de otras regiones y ya parte de nuestro pueblo valiéndose, incluso, de cartas escritas por manos dirigidas desde aquí.

Esto lo inventó ya UCD sin mucha suerte.

Esta situación nos mueve a unas reflexiones elementales: 1. Constituye una afrenta a la dignidad de estos ciudadanos, a parte entera en el País Vasco, a los que tratan de apartar de las responsabilidades sociales y políticas que libremente han ido adquiriendo en la convivencia y el respeto a los derechos históricos de este País que ya es también el suyo. 2. A las muchas acusaciones de insolidarios, de racistas y de discriminadores que se han venido acumulando aviesamente contra los vascos desde el centralismo, se une ahora la campaña de hacer que sean estos mismos ciudadanos vascos que se han venido incorporando a nuestro pueblo los que discriminen, los que levanten en nuestro país la bandera de la división y la insolidaridad contra el proyecto de un País Vasco que está trabajando denodadamente por hacer llegar a todos sus ciudadanos los frutos de una moderna estructura administrativa, social, sanitaria y de trabajo. 3. Y es ahora precisamente por insistencia de algunos socialistas, estos universalistas de pacotilla de ¡sólo Madrid basta!, aunque fomenta este recelo social insolidario.

¿Qué hay en el fondo de esta defeción de los Damborenea y Benegas al pueblo del que vienen?

Hay una evidente situación de divismo herido y de frustración que buscan superar a través de un ideario con rasero centralista en que se saben mayoría omnipotente. A esto se dirige el PSOE con su política de bipolarización. Sus consecuencias, la confrontación del maniqueo negro-rojo en el que las minorías ideológicas de libre decantación van a ser sustituidas por dos ideologías centralistas que van a conducirnos por derroteros acaso irreversibles.

Que un PSOE con medio siglo de clandestinidad se preste en su estreno de poder a este juego que nos lleva a todos a la confrontación sin salida sólo puede ser fruto de la escasa capacidad ideológica de sus líderes, de su falta de cuadros, y de su escaso arraigo popular.

Puesto que está viviendo de la quiebra de UCD y el miedo a Fraga.

Hasta hace pensar que su "cambio" consiste sólo en saltar de aquel increíble y frívolo contacto aventurero con Armada a algo que sea más institucional.

EL ELOGIO DE LAS INSTITUCIONES VASCAS

Deia / 1983.06.05

Recibí el encargo de decir algunas palabras en representación de los exiliados en la reunión de Euba, el jueves pasado.

Lo apretado del programa, la emoción, impidieron que yo cumpliera con el deber de decir las palabras en nombre de los exiliados. Estas palabras que iba a decir, las digo ahora.

No es ésta la oportunidad de hacer historia de este largo exilio de los vascos a partir de la guerra de 1936, partido el cuerpo nacional en dos: una parte constituida por los 150.000 que salieron con su lengua, su literatura, sus publicaciones científicas, culturales y periodísticas, además de su Gobierno, el símbolo de nuestro autogobierno y de nuestra libertad; y la otra, el exilio interior del resto del cuerpo de nuestro pueblo, que quedaba desnudo de todo eso en su propia tierra, martirizada por la guerra y sus crueldades sin nombre, con los muertos, los asesinados y los condenados a tortura de cárcel, de campos de concentración, de trabajos forzados, sometidos a vejaciones, amputada la lengua en sus publicaciones y en sus conversaciones públicas y hasta en los epitafios de nuestros muertos.

Claro que no hay espacio para enumerar siquiera los crímenes que han cometido contra nuestro pueblo.

Ni siquiera los referidos a la guerra de 1936.

He solido mencionar el hecho de la existencia de estos dos exilios: el exterior y el interior. Es difícil generalizar y medir comparativamente su dureza; estoy seguro que a cada cual le ha sido duro el suyo y ¡le basta!, tan duro es morir de este dolor de sentirse un extraño en su propia casa como caer en el camino de regreso sin llegar al reposo de su tierra.

Pero el exilio resultó más esperanzador dentro y fuera gracias a las instituciones políticas de nuestro país.

En el día en que estamos rindiendo un homenaje de agradecimiento a la *andereño*, que quiere abarcar a todas aquellas jóvenes que estaban al servicio de lo más inocente y desprotegido de nuestro pueblo en una guerra que se le impuso brutalmente, quiero recordar el hecho de que ninguna de estas instituciones de atención social y de dirección política después, de aliento político, que funcionaron sin respiro, muchas veces sin esperanza, algunas en momentos de gran desaliento, sin esta responsabilidad que los hombres que dirigieron la vida vasca

no hubieran sabido afrontar con decisión, con valentía y también con un ejemplar sentido de la responsabilidad política y patriótica.

Ha habido otros pueblos que en el mismo exilio tuvieron Gobierno y sin embargo, no acertaron a resolver estas dificultades.

Y no sólo a ésta de la atención de sus compatriotas, dentro y fuera del país, sino que extremaron su generosidad y su trabajo responsable al representar a nuestro pueblo en las más altas instancias políticas en Europa y América con un sentido de responsabilidad, de acierto, que nos ha venido enorgulleciendo a todos los vascos. Este es el capital de prestigio que el Gobierno vasco supo ganar y mantener en las condiciones políticas más adversas. Este pueblo que representaron supo responder después ofreciéndole su colaboración espontánea; con su dinero los que podían hacerlo, y su apoyo político en todos los campos del trabajo y la conducta de los vascos, en el exterior y el interior, para dar al mundo la imagen del Gobierno con pueblo y pueblo con Gobierno, que se ha venido reconociendo por propios y extraños durante estos largos y terribles años de desierto político que tuvieron que atravesar nuestros hombres, con algunos que han ido quedando en el camino, como el primer lehendakari que tuvimos los vascos: José Antonio de Agirre, como Javier de Landaburu, como Manuel de Irujo, como Rezola, Ciaurriz, Aznar, Monzón, Juan Gracia, Eliodoro de la Torre, Alfredo de Espinosa, Juan de los Toyos, Jose M^a Lasarte, y que saludamos hoy en los que les sobreviven, como Gonzalo Nardiz, Astigarribia, y el segundo lendakari del Gobierno: Jesús M^a de Leizaola.

Hasta lograr entroncar institucionalmente aquel primer Gobierno de Euzkadi con éste presidido hoy por Carlos Garaikoetxea. Esta hazaña es sólo vasca.

Y es porque nuestro pueblo ha sabido apreciar y sentir el valor de las instituciones políticas como el camino de andar los pueblos sin ruptura, con responsabilidad.

He pensado muchas veces que el exilio de los carlistas vascos, después de cada una de las dos derrotas militares, fue mucho más amargo que el nuestro, porque estos vascos carecieron de las instituciones vascas que se responsabilizaran de su suerte, que les marcara un norte capaz de vertir la *derrota* en sólo una *batalla perdida*.

Así, con este ejemplo fácil de aplicar para observar la diferencia entre dos momentos vascos importantes, me resulta honroso decir, con los exiliados, que estamos agradecidos a nuestras instituciones políticas y de Gobierno que supieron cumplir tan dignamente con su deber con su promesa de servir al pueblo que supo confiar en ellas.

ESTATUTOA BEREZ HIL DADIN

Deia / 1983.06.09

Euskarak heriotzaren bi modu bereizten ditu: bat, *pasiboa*, berez datorrena, "heriotza ona izan du", eta bestea, *aktiboa*, "heriotzak eraman du".


Orain Gernikako Estatutoaz gertatzen ari denak aldaera hontaz pentsa arazi dit, zuzen-zuzenean gauza bera ezbadira ere: gure kontrarioak ez du nonbait une honetan eraille gisa agertu nahi; oraindik kristoren haiek egingadako lotsaz edo; eta demokraziaren gobernukideak

oraindik itxura gordetzen lagunduko diolakoan, aurrez-aurre Espainiako konstituzioak berak babesten duen legearen hausle bezala agertu gabe, Gernikako Estatutoa berez hiltzen uzteko jokoan hasi da azken hilabete horietan.

Bidea, maltzurra bezain erraza da:

Espainiako legez lortu zenak gure herrian bidea egingo badu Espainiako Gobernuak Euskal Herrikoari ahalmenak pasa behar dizkio trasferentzia bidez; UCD-k pasa zizkion gobernu zen bitartean lehenengoak, eta PSOE-k irabazi zuenean alderdi hau zen noski, falta ziren trasferentziak pasa behar zizkiona. Sozialistak, horiei zegozkionak berehala pasako zituztela ozenki agintzaria egin eta gero, bidean zetoztenak aparkatu eta horien iturria bera itxi dio gure Gobernuari. Hau nahikoa ez balitz, bien bitartean, kanpaina maltzurra egiten hasi dira PSOE, Madriliko agintariak eta komunikabide batzuk gure herriko jaurlearitza (lehendakaria aurretik), eta EAJ (Arzalluz aurretik) gai nagusi direla.

Eraso ustel honek ez gaitu ixilgeldi araziko.



La Salleko Hno. Ginés (Pablo Mandazen) euskaldunarekin. Martinen iritzian, Hno. Ginés da Venezuelako atzeritarrik inportanteena. (1979). 2000. urtean "Euskaldun Unibertsal Saria" eman zion Eusko Jaurlaritzak.

Etxenike kontseilariak esan du euskaldunak ernetu behar dituen hitza; ez du, noski, Euskal Gobernu berearen izenean esan, berez baizik, baina zozoa ez den arerioak badaki ñabardura honek ez duela gehiegi esan nahi, eta hitz horien atzetik Euskal Gobernu babesten duen eta abertzale sentitzen den herri guztia dagoela. Ez gaituela jokabide desleial horrek kizkurtuko, aitzitik, indartu egingo duela gure herriaren determinazio eta ausartzia hain gurea den eta hainbeste aldiz demokrazia bidez jokatu eta irabazi dugun herri-eskubidea defendatzeko.

Indarkeriaz beldurtu nahi gaituzte.

Beldurraz amore emango ote dugun, *gure herriaren heriotza ona izan dadin*; bestela, heriotza aktiboaren mehatxu zaharra beteko duten asmoa dago, noski, askotan zapaldu gaituztenetan.

Orain, arrosa gorria eskuetan dutenak lagun!

Odolez gorritutako heriotzak Euskal Herria eraman nahi balu bezala.

Ez dute inoiz ikasiko espainolek, zuri nahiz gorri, gure abertzaletasuna bade-la haiena bezain errespeta garria eta elkarrenganako errespetoak bakarrik erakarri dezakela gure artean pakea.

EZ GAITUZTE ULERTZEN

Deia / 1983.06.10

Izenburu honekin, "No nos entienden", argitaratu du Fernando Savater idazleak *El País* egunkarian aipamena eta irazkina ere merezi duen artikulua.

Esaten du egia franko.

Egia, denok dakigunez, milaka aurpegiko irudia da; euskarak ba du hau adierazteko esaera argi bat: "Buru bezanbat aburu". Fernando Savater-ek, buruz argia denez, esaten ditu argiak diren bereak, eta, bestalde, izpirituz lokabe denez, interesgarriak aipatzen dituen bi muturretako euskaldun eta espainolentzat.

1

Euskaldunak kexa gara beti: "ez gaituzte ulertzen"; harritzen da Savater inguratzen gaituztenak hain kamuts izateak, edota gu hain misterioitsuak.

2

Savaterren susmoa: "ez gaituzte ulertzen" esaten dugunean "ez didate nik dudan arrazoirik aitortzen" pentsatzen ote dugun; edota beste hau: euskaldunen artean elkar ez ulertzearen ondorio sinplea besterik ez ote den.

3

Ba da Euskalerrian arrazoirik espainolek gure arazoetan erakusten duten sensibilitate ezaz kexatzeko: eskuin-ezkerreko espainolak nozitu dituzte betiko zentralismo patrioteroz apainduta: "hábleme en cristiano" dariotela, berea ez den abertzaletasun guztiak irrazional eta antihistoriko bezala salatuz; espainolek onartu ezin dutena zera da, euskotarren abertzaletasuna ez dela gutxi batzuen nahikeri zentzugabea, eta ezta orain jakobino berriei hainbeste gustatzen zaizkien gezurrezko *autonomia* berri horietakoa; aitzitik, historia luzea eta egiazko sustraiak dituen, eta herriaren marjinazio luzeak ongarrizatu eta gero atzera ezi-nezkoa den nazionalitatearen sentipena.

Honeraino, dio Fernando Savaterrek, euskotarren arazoa uler erraza da.

Baina ba dira ezinak diren batzu ere.

4

Ez da ulergarri eta ez garbi, haurdunari lau tiro jotzea, edo EuskalERRIAREN ize-
nean zauritua dagoen bati hotzean akabatzea.

5

Honetan, okerrena zera da, "ezker politikoa" dena beste zerbaitez nahasten
dela; honen ezaugarri ez baita maximalismo iluminatua, justiziaren arrazoibidea
baino. Hitz batetan: ulertzen ez dena, eta ulergaitza ere dena, borroka armatua-
ren luzapena da.

"Buru bezanbat aburu", dio gure esaera zaharrak.

Hoiek dira Fernando Savaterrek artikulu honetan erakusten dituen puntu
nagusienak; berea den ikuspuntutik ikusiak, noski. Ez gara denok eta denez bat
etorriko; iritzi batzu irazkin luzeak ere merezi dituzkete; baina, dena dela, hango
eta hemengo, ba dago hemen denontzat zer pentsa.

HERRI BATASUNAREN UKAPENA

Deia / 1983.06.18

Gure herriaren egoera politikoa larria da.

Espainiako Estatuak dituen erasobide guztietatik Euskalerria ahultzeko aha-
legin maltzurretan ari da. Ez da Estatutua bakarrik; gure herriaren Unibertsitate-
aren autonomia da, euskararen etorkizuna da, nekez berreskuratu dituen eskubi-
deen ukapen lapur-baldarra da; eta indarkeriaz ezarri nahi dioten zama berria,
hau dena da gure herrian gaur jokoan dagoena.

Egoera larri honetan, dei bat: herriaren gehiengoak autatutako gizonak, eta
ofizialki, egindakoa.

Ba dira familia osatzen dutenen bilera hertsia eskatzen duten uneak, eta asa-
rreak ahaztuz agertzekoak, urrun bizi diren semeak hurbiltzekoak, anai baten
aurka esandako hitzak irenstekoak, ozenki botatakoak isilean pasatzekoak, ozpi-
nak gozatzekoak, gauza *guztien* gainetik *aitaren etxea defendatzeko* egin behar
direnak elkarrekin egitekoak.

Herria osatzen dutenen kemenak *batzekoak*.

Herriaren Batasuna exigitzen duten horietakoak.

Herriak ba daki botoaren bila esandakoetatik estuasunean botatzen den
deihadarra bereizten.

Euskalduna denak ba daki aita batek elkar ondo eramaten ez ziren semeei
eman zien adibidea: Bildu zituen seiak, eta gazteenari habar bat eskuratuaz esan
zion: "Hautsiko ahal duk habartxo hau?" Eta gaztetxoak, "klik" batez bi zati egin
zuen. "Orain bildu surtarako dauden artean lodi bereko sei -esan zion berriz-, eta
eman anai nagusiari..., ea hik, Joxe, sortatxoa eskuaz hausteko kemenik baduken".
Seme zaharrenak egin zituen ahaleginak, eta alperrik. "Hauxe diotzuet -hitz egin
zien aitak-, sakabanaturik bizi zareten anaiak banan bana arerioaren eskuetan
jostailu zarete, baina elkar egiten baduzute, ez zaituzte inork menderatuko".

Adibide ximpleak esangura handia du.

Herri Batasunak ez du Lehendakari Garaikoetxearen deia entzunaz bereak
dituen puntuei uko egin beharrik. Aski du joan eta auziaz dituen asmoak erakus-
tea, legezko denez. Ez du, honetarako, defendatzen dituen printzipioen bizkarre-
zurrik okertu behar, ez eta bururik makurtu behar ere. Edozein herritan gobernauk
hartzten ditu bi muturretan aurkakoak dituen alderdietako buruak, eta deiari eran-
tzuten duenak ez du hurbiltzearekin ezer galtzen.

Bestelako joera, integrismo huts eta ahula da.

Eta honek ez dio Euskalerrriaren instituzio nagusiari arrotzen begietan kalte
besterik egiten.



Manuel Irujo Olló (1979).

SANTANDERREKO ALKATEA, PSOE ETA EUSKADI

Deia / 1983.07.17

Santanderreko alkateak (deitura euskalduna eta Fragaren politika!) "Universidad Internacional Menéndez y Pelayo"n egindako hitzaldi batetan esan duenak Espainiako prentsa guztia astindu du, eta erresumako fiskalari bidali diote jaso den testua; laburki esanda: *Euskal Herriak eta Catalunya, herri berezi direnez gero, badutela autodeterminazioa eskatzeko eskubidea.*

PSOEk gizonak ere eskandalizatu dira!

Ez dakit zergatik, horiek berak agertu baitira orain egun batzu Latinoamerikako herriak noziten ari diren zapalkuntzaren aurka daramaten borroka armatuaren alde! Han, Ameriketara, bai borroka armatua ere; eta hemen, autodeterminaziorako demokraziak lekuetan erabiltzen duen biderik ere ez.

Baditu PSOEk aisa uler ezin direnak. Aipatzekoa da kontexto honetan PSO-Eko UGTk Araban egin duen bihurrikeria: Arabako mailan UGTko idazkari orokorra zenak prentsari ekainaren 18an adierazi ziona hau izan zen: Euskadiko arazo nazionalak garrantzi handia dutela politika mailan, eta gaur PSOE gai honetaz egiten ari dena ez dutela Arabako UGTkoak onartzen. "Ez dugu uste -esan zuen Arturo Val del Olmo jaunak- gobernu sozialista terrorismoari buruz hartzen ari den neurriak eraginkorrak izango direnik; bestalde, Euskadik autodeterminaziorako eskubidea ba du; ez independentziarako, baina ezagutu behar litzaiokie Espainiako estatuarekin izan nahi dituen lotura moetak aukeratzeko eskubide osoa".

Eta UGTren exekutiba mailan duten *konfederakuntza* aipatu zuen honek esandakoaren oinarri bezala.

Disidentzia hau ez da berria PSOEn.

Hara Mundu Gerra amaitu ondoren, 1945ean, Eusko Jaurlaritza eguneratu behar izandu zenean gertatu zena: 1940an, Alemaniarrek Hendaiaraino heldu ziren une larri haietan, Eusko Jaurlaritzako gizonen artean asmo bat sortu zen: Osatzen zuten indar politiko guztiak naziotasunaren adierazpena egitea, delako "declaración de nacionalidad". Pasa ziren urteak, eta 1945an Baionako Paktua izenpetu zenean, Toyos kontseilari sozialistak ez zuen egin nahi izandu, baina alderdikide zen Santiago Aznarrek, bai.

Eta Aznar PSOEtik bota izan zen.

Kontuan hartzekoa da, garai hartan Eusko Jaurlaritzan zeuden alderdi errepublikarrak aisa asko izenpetu zutela Eusko Naziotasunaren adierazpena; baina sozialistak ez, batez ere orduko lehendakari zuten Llopis-en seta gogorra bait zen hau.

Llopis, orain agintzen dauden hoiek bota zuten.

Baina haren markako seta bera gorde dute gure eskubide soil besterik ez direnen aurka.

ARTURO CAMPION NAZIONALISTA AL ZEN?

Deia / 1983.07.20

Euskal Herriko semerik zintzoena bezala jokatu zuen gizon hau nazionalista eta abertzale ote zen?

Auñamendi Enziklopediak ezetz dio:

"Políticamente no se puede señalar a Campion afiliado a ningún partido político aunque en su primera juventud se sintiera republicano federal. (...) ... Deja pronto su republicanismismo (...) pero se queda con su federalismo, (...) no es ya ni republicano, ni monárquico, ni carlista, ni integrista, *ni siquiera nacionalista vasco*; (...) toda la obra de Campion es en pro del lema que estampa en sus libros: 'Euskalerraren alde'".

Hau da nik proposatzen dutan gaiaz Auñamendik egin dion aipamen zehatzak diona.

Bestalde, 1934ean Donostian berriz premiau zen Campionen nobelarik aipatuena den *Blancos y negros*-i don Carmelo de Etxegarai-k egin zion hitzaurrean gauza bera esaten da beste hitzetan: "Se enderezan (sus obras) a la defensa de los ideales regionalistas, enaltecidos con calor y elocuencia, y opuestos a los desvaríos de los ideólogos y de los fabricantes de utopías". (1)

Baina ez nengoen konforme; ikusi nuen nonbait "nazionalista" bezala aitortzen zuela bere burua.

Bila ibili naiz, ikuspuntu hau zerbaiten argigarri izan dadin.

Eta Javier Corcuera-n aurkitu dut, honek eusko abertzaletasunaz egin zuen ikerketa zehatzean (2). Ez da egile honen iritzia, honek aurkitu duen testo bat baizik: hasten da Corcuera honek uste duen zerbait adierazi nahian, alegia, nahiz eta Campion hasieratik beste tradizionalagoak ziren Eusko Alderdien inguruan ibili (eta Sabino Aranak ere salatzen du Campionen ibilbide hau gogorki) laster hurbilduko zela nafarra abertzaletasunera. Aranarekin diferentziak bazituen ere! eta, egia, Donostiako Centro Vascon 1906an urtarrilak 7, Sabin hil eta bi urte gero, eman zuen hitzaldian esan zituen hitzak: "*Fueristas* nos llamábamos con orgullo en días de mayores riesgos que los actuales, puesto que circula un vocablo más gráfico, más intenso y totalmente expresivo y que no se presta a que bajo él se cobijen los eúscaros que quieren las cosas a medias, o sofisticadas, que es lo mismo, *sin renegar un ápice de mis antecedentes, ni profesar nuevos dogmas, ni*

adoptar nuevas actitudes, antes bien continuando mi modesta historia, renuncio al antiguo calificativo, y desde hoy me llamo y llamaré nacionalista".

Eta hau idatziz geratu zedin, urte berean inprimatu zen hitzaldia: *Nacionalismos, fuerismo y separatismo*, Tolosan, Eusebio Lopez-en moldiztegian (41.go orrialdea).

(1) Euskalzaleak, Beñat idaztiak, Donostia, 1934.

(2) *Orígenes, ideología y organización del Nacionalismo Vasco, 1876-1904*. Siglo XXI de España Editores, S.A. Madrid, 1979, 128-129 orr.

FRAGA ETA SEGURITATE SOZIALA

Deia / 1983.07.25

Felipe Gonzalez presidentek gure lehendakaria hartu aurretik, *Fraga* errezibitu zuen.

Moncloan Fraga eta Gonzalezen artean hitzegin zena ez dakit, ez naiz azti. Sorgin, gutxiago.

Bi pertsonaia horiek *hitzegin zutenaren berri Fragak esandakoa heldu zaigu prentsa bidez*. Bat, espainolen presidentearekin eta honek ekonomiaz erabaki dituenaz ados dagoela (kontuz langileok!) eta Euskal Herrian izaten ari den esku gogor eta beroaz ere baietz (ez da berria!); eta, batez ere, gai irristakor bat aipatu du: *Seguritate Soziala*.

Dena konfirmatzen da ba: Sozialistek irabazi zuten gero sortu zen Fraga eta Feliperen arteko ezkongai aldia aurrera doala; venezolarrek badute egokiera honetarako esaldia: "Ellos son blancos y se entienden".

Gai hau argitzeko, Kanpionek (1) Erreterian 1920an eman zuen hitzaldian erakutsi zuen silogismoaz baliatzea iruditzen zait egokien: "En Francia hay vascos que no son españoles; en España, vascos que no son franceses. Luego, lo característico y esencial de ellos, no estriba en la nota variable del hispanismo y del francesismo, sino en la constante del vasquismo. El vasco-español no es francés, pero es vasco; el vasco-francés no es español, pero es vasco. Luego el vasco no es español, ni francés, es vasco". Nik, neuk, joko beraz baliaturik zera esango nuke: Bat, Espainian bada PSOEkoa ez den espainolistarik, eta baita *franguista*, ez den espainolistarik ere; bi: baina ez da espainolista ez den PSOEkorik eta ez da espainolista ez den *franguista*-rik ere; hemendik hirugarren proposamentua: Bereizgarri eta esentziazko elkarrekikoa ez da bariabile den *franguista* edo psoelista izatea, orokorra eta iraunkorra den *espainolista* baino.

Mitxelenerari omenaldia
Erreterian.



Baina zertan da nire ikuspuntuako *Seguritate Soziala*?

Instituzio hau hemen da euskaldunen eskuetan *arriskugarri*. Zergatik? Fraga eta Gonzalezek badakite orain artekoetan baino esku zikinagoetan ezin direla diru horiek eror; aitzitik, horiek dakitena da hemen esku garbiagoak erabiliko luketee-la, eta hori *ikusi egingo litzakeela*!

Garbitasunaren beldur dira politiko horiek, beraz!

Hurbiltzen ari diren hauteskundeetarako propaganda-gai polita guretzat! Etorkinak garbitasun eta dignitate piska baten bila etorriak direnez, badakite bi gauza horiek Eusko Jaurlaritzak garantizatuko lizkiotekeela ondoen.

(1) Kanpionen gaiak eraginik izan du; horien artean, Erreneriako batzokiaren zabaltze jaietan 1920an nafar ospatsu honek egin zuen hitzaldiaren testoa bidali dit Sabin Lasak.

AUTONOMIA, SOZIALISTAK ETA UDALAK (1)

Deia / 1983.08.07

Barne-Estatutuetan erakunde federala aukeratu duten PSOEko sozialistek, "Autonomia" dute ahoan eta zentralismo jakobinoa buru-bihotzean; Fraga-ren espainol-nazionalismoak ez dio Gonzalezenari irabaziko; biak daude orain Udale-tako idazkariak ere Madrilen aukeratu behar direla esijitzen.

Zertan datza, beraz, "A" handiaz idazten duten Autonomia, herri txikieneta-ko idazkariak ere Madrilen aukeratu behar badizkigute? Erdaldunak, seguru?

Irtenbentore-bijilanteak ere bai!

Esan, orduan, zertarako ditugun gure Diputazio Foralak eta gure Jaurlaritza Autonomoa! Ez ahal dira hemengo bijilantziarako nahiko dagoeneko hemen toka-tzen zaigun Ordezkeri Nagusia eta propinaz ezarri dizkiguten hiru gobernadore, eta nahi ez ditugun gainontzeko guardia zibil, polizia (uniformedun, uniforme gabeak eta txibato agretatuak) eta gure erakunde guztietan transizioak ereden-tziz utzi dizkigun Franco denborako funtzionariak eta gainontzeko politiko espai-nolistak gainezka...!

Nork bijilatuko du hemen handik jarri edo bidali diguten hainbeste mila bijil-ante?!

Hemen ere esan genezake gaztelaraz esaten den esangaitz edo ahokorapilo bera erabiliaz: bijilantea bijilatuko duen bijilatzailea, bijilatzaile kaiku ederra izan-go duk.

Bada Espainiako Estatu honetan oker jokutzen duenik demokraziarik ezin eraiki ahal izateko.

Beste giza-ekintza guztietan bezala, politikan ere beharrezkoa da, funtsezko zerbait eraikiko bada, demokratikoak diren gizon eta instituzioen arteko konfi-dantza baten oinarria, eta Espainian ez da lore hau erraz ematen.

Arrosa ez da, aise ikusi ahal izan dugunez.

Gero eta argiago ikusten ari gara nazional-sozialista horiekin hemen ezin izango dela *deszentralizazio* soila ere jaso. Hemen ere agintea delegatu egin behar baita, eta ezkerre ere ez da liberaltasun honetarako gauza.

Eta erraza da!

Sistema honen funtsa honetan datza: *beheko mailak erabaki dezakeenik ez du goikoak erabakiko*. Erraza da esatea, eta lojika errazekoa ulertzea, baina oina-

rizko konfidantza zabal hau ematen ez den herrietan nekez sor daiteke Franco-Pinochet-Castroren sistematik kanpora dagoen ezer. Pena da Francopetik irten berri-berrian *Gerra* batek esate baterako, erakusten duen agintekeriarako jite despota hori!

Zertan dago gizon moeta horien ahulezia?



Andoaingo alkateak Martin agurtzen du. Anamari emazteari lorte-sorta eskaintzen diote (1997).

AUTONOMIA, SOZIALISTAK ETA UDALAK (2)

Deia / 1983.08.08

Espainian, demokrazia eraikitzeko gizonagan eta horriagan *jarri behar den* konfidantza falta da.

Haurrak balira bezala tratatzen baidituzte.

Eta ez da kuarteletako gaitza bakarrik, sozialistak ere ahulezia bera erakusten dute agintea hartzen duten bakoitzean.

Oraingo horiek diktatoreen *mesfidantza* beraz jokutzen dute, eta honek sortzen dituen *malizia*, *kezka*, *susmoa* eta *jelosia* beraz. Material hauekin kartzelak egin daitezke handiak, eta konzentrazio zelaiak ere. Bai Chilen eta Cuban, baita hemen ere. Baina ezin da demokraziarik eraiki.

Oraingo aginkeriarri gure herriak nola erantzun dion?

Errepublika garaian bezala; hara historia pitin bat: Espainian Errepublika nagusitu zenean (*1931 garrenge apirilak 14*), Agirrek berehala, 15ean, bildu zituen Bizkaiko udalak, eta biharamunean, 16an, hartu zen Gernikan Euskal Herriko Udalen Batzar Nagusia egiteko erabakia. Agirrek, alderdien arteko bideak nahi-ko galduak zeudela ikusirik, herribide zuzena aukeratu zuen, udalena; Prietori ez zitzaion gustatu; Madrilek soldaduak bidali zituen batzarra debekatzeko. Hemen eman ziguten eskuineko esku pozoindua; maiatzak 2: lau eskualdeko udalak elkartzen dira; ordurako Madrilek (apirilak 21) ezarri zizkigun *bere* "Gestoras" Diputazioetan; alkaken erantzuna: biltzen dira Iruinean, maiatzak 27, Estatutua eskatzen, eta Lizarran, ekainak 14. Errepublikako antiklerikarismo zaharrak bultza ginuen eskuinera; eskuinekoak, berriz, egin ziguten betikoa, saldukeria. Bien bitartean Catalunya lortu zuen Estatutua, eta Donostian izenpetu *1932garrenge irailak 15*, euskaldunak itxaropentzeko. Baina eskuina jartzen da agintzen, Gil Robles buru, "bienio negro" honek lotzen gaitu ezkerrarekin, eta alkateen batzarra eratzten da, orain Prieto ere bai!, Zumarragan, *1934 garrenge urriak 2*.

Gerta daitekeena da, Errepublika garai hartan gertatu zen lez, oraingoan ere sozialistek gure udalen eta estutuaren aurkako lanetan jartzea. Gure Udalek eman dute batzar nagusia (EUDEL, *1983 garrenge uztailak 30* Gernikan) erantzuna: badute herrian agintariarik Diputazio Forala eta Euskal Jaurlaritza. Baina utzi berria dugun historia zaharrari jarraituz: Haren ondorioak gerra eta heriotzak, fusilamentuak, kartzela eta exilioa izan ziren; sozialista espainolek garaiz beste

jokabidea izan ez zutelako. Agian, eta zoritxarrez, arrapailu berean eror gaitzke gaur sozialista espainolak eta ez garenak berriz ere. Tristeia izango litzateke gizaldi erdian bi aldiz orma beraren kontra, barrote beren atzetik eta exilio berean elkarri begira geratzea.

VIOLENCIA EN EUSKADI

El País / 1984.09.25

El País me invita a expresar mi opinión acerca de las circunstancias que rodean a un problema surgido en el centro escolar "El Ferial" de Arrasate (Mondragón), por lo que éste tiene de señal de alarma ante la conciencia de la sociedad vasca en el contexto radicalizado en que se está debatiendo; prueba de esta preocupación interna es la decisión adoptada por el Parlamento Vasco de elaborar un Libro Blanco de la Violencia, ya en marcha a través de su Comisión de Derechos Humanos.

Por aquí, y para los que vivimos el dolor de esta violencia desde dentro, hay mucha vida en juego.

Están primero las vidas humanas sin precio y en cualquiera de las direcciones en que se está expresando este pueblo; está en juego la tolerancia mínima en lo político y lo cultural, que aquí caminan a menudo juntos; se está jugando aquí y ahora la suerte de la lengua que hablan con amor, no los 300.000.000, sino los 700.000 vascos que no tienen repuesto en América, y que apenas ahora comienzan a reverdecer después de un estiaje de siglos que les secó muchas de sus raíces; se juega, también hay que decirlo, la convivencia misma de los vascos como pueblo, como nación, y no sólo en la dimensión de "las dos comunidades" de que se habla a menudo (y no con palabras-puente, sino con las de abrir zanjas entre vascos y vascos, porque necesitan los partidos centralistas fabricarse una clientela electoral a costa de un mayor desarraigo de los vascos bienvenidos desde cualquier tierra de hombre), sino que también ha mordido la violencia insensata que conducen a los partidos al corte, al recorte y a la parcelación que puede retrotraernos a las carlistadas padecidas sin gracia ni justicia por este pueblo hartado de banderizos.

Todo esto, lo queramos o no, forma parte de esta maraña hecha de violencia intravasca.

Es cierto que se había llegado a establecer en Euskadi, después de años interminables de lucha en primera línea, y con poco relevos, contra la Tiranía, un compromiso político de mínimos con el nuevo Estado de la transición, y otro reflejo dentro de nuestro país seriamente herido por las violencias heredadas, muchas, demasiadas, en que se comenzó a reconstruir con una cierta ilusión renovadora;

a pesar del lastre doloroso (por lo que tenía de interior, por lo que tenía de congénito) de una inercia de jóvenes que crió y mimó la larga violencia del franquismo contra la Libertad de todos, y que apostaron por los ilusionados máximos de la ruptura total.

Esta fue la realidad del posfranquismo, y como es indispensable que el hombre se adapte a convivir con la complejidad, apostamos otros vascos por la moderación de mínimos: el Estatuto de Guernica, mediante un inteligente pacto político que contenía un grado aceptable de justicia posible.

Así se encaminó, democráticamente, la vocación mayoritaria del EAJ/PNV hacia la primera experiencia de administración vasca moderna después de la limitada y cruel a la vez que vivió nuestro pueblo en plena guerra civil y en el exilio, y esta vez de nuevo sin Navarra; así se enfrenta nuestro pueblo, y con éxito notable, a la organización de su vida administrativa, la creación de sus instituciones políticas y culturales, logros que nadie puede negar al liderazgo audaz y consecuente del Lehendakari Garaikoetxea. A pesar de la rémora de muchos problemas, externos e internos, sin resolver; a cada avance nacionalista ha sucedido una afirmación sangrienta de la lucha armada que sostiene ETA, con la secreta esperanza de desacreditar los mínimos de la Administración vasca, y el Estado, como si quisiera mantenerlos activos, responde frenando y a veces paralizando las transferencias por un lado, y actuando, por otro, con una violencia indiscriminada y a menudo fuera de la ley moral y la escrita, que no hace sino alentar la rebeldía de nuevos jóvenes; la política de reinserciones da, a la par que algunos pasos acertados, otros, como el de la política de extradiciones, que repugna a los vascos que conocen su historia, incluida la de ETA, al tiempo que se producen nuevas violaciones indiscriminadas, innecesarias y contraproducentes, por lo que el Ejecutivo vasco y el Partido Nacionalista Vasco se niegan a dejarse arrastrar hacia un mero juego de comparsa inaceptable.

Todo este ya de por sí complicado contexto viene a agravarse a causa de las airadas protestas del PSOE aquí con los fines electorales que conocemos, criticando y ridiculizando escandalosamente los pasos dados por el país en la dirección de frenar la pérdida de la lengua nacional: introducir racionalmente, y con moderación, las pautas de reuskaldunización, la recuperación de la lengua vasca a través de la escuela y el uso de la radio y la televisión autonómicas, el fomento del libro y las publicaciones en lengua vasca. Reaccionan ante la política del ejecutivo vasco con una espíritu intolerante y agresivo ante el hecho de que los partidos nacionalistas, que constituyen una amplísima mayoría, se ocupen de frenar,

todavía sólo frenar, el deterioro de nuestra lengua nacional, consagrada como oficial aquí, junto al castellano por la Constitución Española.

Convierten estos portavoces del PSOE y su filial PSE en impertinente "imposición" y "discriminación" cualquier medida de apoyo a la rehabilitación del *euskera*, cuando el mismo Martín Villa, que fue uno de nuestros adversarios más duros, reconocía públicamente, ¡y desde la derecha!, que el aprendizaje del *euskara* dentro del ámbito del País Vasco debería ser interpretado, no como una *imposición* autoritaria de la administración, sino como un deber cívico más para incorporarse de pleno derecho a la sociedad vasca.

No digo que en la variada y compleja aplicación de estas normas legales, la administración vasca, o los encargados de llevarlas a la práctica, no cometan errores, y hasta injusticias. Denunciarlas, me parece lógico, y saludable para todos.

Lo que no podemos en justicia es sistematizar a grito pelado y con insultos personales muy graves esta situación transitoria que exige comprensión por ambas partes. Recordemos que si queremos llegar en el País Vasco a una situación real de bilingüismo, como quiere la ley, todos tenemos el derecho de exigir que nos atiendan en la administración en las dos lenguas; y que mientras todos los vascos hemos pasado por la escuela en castellano, son los no vascoparlantes los que tienen que esforzarse en aprender *euskara*.

Como lo han aprendido muchísimos ya.

Esto es a grandes rasgos, y con la visión de un vasco nacionalista, el contexto en que se ha producido el suceso de Mondragón.

Me pueden rectificar los que han observado nuestra historia más reciente desde otra perspectiva; aduciría muchas razones más para sustentar la mía.

INTELEKTUALAK EUSKALERRIAREN AURREAN

1984.11.

Inlektuala, zer da?

Hiztegiak diotenez, zientziaz eta letraz arduratuaz, gehienbat burulanetik bizi dena; herriak zera eransten dio zorrozki: eta pixka bat hodeietan bizi dena; ba du, bestalde, pertsona zailaren fama, ez baita dogmetara erraz makurtzen; alde batekoak "komunista" eta beste muturrekoak "kapitalista", edo antzekoak, leporatuko dizkioten arriskoa dabil beti.

Euskalerrian ez dira intelektualak ongi tratatuak izan.

Unamuno kexa zen, behintzat; Mitxelenak aitortzen du geure *intolerantzia*-ren bekatu hau Baroja hil ondoan idatzi zituen hitz hauetan: "Euskal Herriari zion atxikitasunari oinarriak ez ziren osoro euskaldun askorenak, ez ta agian euskaldunik gehienek ere, eta horrexek lausotu ditu zenbaiten begiak". Geure herrian gehienbat erlijio aldetik sortu izan dira erasoak: Baroja Madriletik honeratu eta Bera-n bizitzen jarri zenean, herriko andere elizkoiak zabaldua zuten *Novelistas buenos y malos*, Aita Leon de Guevarak idatzitako liburuxka; honek amodiozko hitz hauekin epaitzen baitzuen: "Baroja, Pio: clerófobo, deshonesto"... Baina ez da erlijioa ere zergati bakarra izan; honetan eta bestetan xuxena izan zen geure "Orixe"ri ere ez bait zaio, Mitxelenaren ustetan, merezi zuen errespetua eta itzala gorde.

Mitxelena berak ere esango luke berari dagokionez zerbait.

Zeintzuk dira euskal *intelektualaren bereizgarriak*?

Beste batzuen artean, garrantzia duten bi: *hizkuntza* eta *naziotasunaren sentimendua*.

Oinarriak jarri nahi nizkioke esandakoari: Kubako gerra Espainiak galdu zuenean (1898) geratu zen agerian euskaldun intelektualen arteko diferentzia hau: alde batetik, Unamuno, Baroja eta Maeztuarentzat, gaztelera eta Espainia dira aurrebidearen ardatz, eta Espainiako 1898go belaunaldi famatu honetako buru agerienak bezala Espainian aipatzen, dituztenean, ez dira garai bereko Campion eta Arana Goiri ageri noski, hauek garai bereko intelektualak izan arren euskara eta Euskalerrria goraipatzen zituztelako; eta, bestetik: Espainiar sentitzen ziren geure herritarrak Espainiak seme argitzat zeuzkan une berean, Sabino Arana espe-theratu egin zuten.

Hemen ez ditugu geuk muga hauek jarri, Espainiak berak egin ditu hain erabateko berezketak.

Gaur bertan ere, begira zein nabarmena den geure herriko intelektual eta politikoen artean Madrilen jasotzen diren sariak eta zigorrak.

Gaurko euskal intelektualak dituen arriskuak

Lehenaldia, orainaldiaren neurri gisa erabiltzeko joera ba da gure artean.

Egia da, alde batetik, gure herrian lehen gertatutakoak ba duela geure gaurkotasunarekin zerikusirik, baina ezin dugu ala ere iragana orainarekin nahasi; biak gaurkotasun bera adierazteko balio baluteke, geuk historian zehar izan ditugun gizonak *dena betirako esana eta egina* izango lirateke; beraz, gaur ez genuke haiek esan eta eginikoa onar besterik. Eta hau ez da egia: gure arteko igarle handienak ere ezin izan zituen esan edo egindakoak behinbetirako esan edo egin, eta gaur bizi balira, gaurko arazoei aurpegi emango lieteke segur aski.

Sabin Arana, Lizardi eta Agirre lehendakariak asko eta ongi egin zuten gure herriaren alde, baina ezina da pentsatzea haiek esan edo egindako guztiak gaur alda ezineko egiak direnik. Kontuan eduki behar dugu, Sabin Arana 38 urtez hil zela, gizon gaztea oraindik; Lizardi, urtebete gazteago zela hil zen, eta Agirre Lehendakari hautatua izan zenean 32 urte besterik ez zituela; ezin esan dezakegu, beraz, gizon handi hauek gaurko geure herriaren egoeran irizpide berak erabiliko eta hitza eta ekintza berak errepikatuko zituztekeenik.

Errazegia da hau pentsatzea, eta baita alferrena ere.

Gauza bera etortzen zait burura Azkoitiako Zalduntxuetaz ari direnean.

Alfer eta errezagia da gaurko intelektual euskaldunentzat XXVIIIgo hioen hitz eta ekintzen gainean oheratzea, hontan bakarrik geratzea. Gizon handi haiek gugandik esijitzen dutena da, ez esan-egin zuten gauza bera errepikatzea, baizik eta haiek eginiko Euskalherriaren eta euskararenganako arreta eta *eskaintza bera* gaur egitea; baina, noski, *gaurko* egoerari ihardesten saiatuz.

Belaunaldien artekoa da beste gai istilugarri bat:

Ba dirudi, atzoko gizonak, guda egin zutenak esate baterako, eta gaurko gazteak, bi munduko gizonak direla. Eta pentsamolde honek egiarik berekin badu, ez du hala ere egia osoa berekin. Egia da, noski, bi aldi ezberdin bizi izan dituztela orain berrogeita hamar urte gazte zirenak eta gaztetasun hori gaur bizi dutenak; eta egia da, ere, bakoitzak bere gaztaroko giroa bizi ohi duela, bai historia aldetik, eta baita politika alderdiatik begiratzen badiogu ere; baina ba da berdintzaile den zerbait: gaztaro bakoitzaren *inpronta*, arrastoa, handiagoa bada ere, *gaur biak eta*

bi aro ezberdinetan bizi duten unea berdina da behintzat, hau ezin uka; eta lanean berdintsu ari dira, ez baita osorik ezberdina den zerbait inoiz egiten.

Egi hauek kontuan hartzeak ez digu kalterik egingo belaunaldien arteko diferentziaz ari garenean.

Gaur euskaldunak dugun erantzunbeharra

1.

Egiazkoak izaten ahalegindu behar dugu; geuk esandako egiak ez du *komeniantziako egia* izan behar, *kontzientziazko egia* baizik, eta defendatu behar dugu *askatasuna*, gizonarena eta herriarena, hemengoa eta beste inongoa, gizon eta herri guziena; gertuen sentitzen duguna lehendabizi, noski.

2.

Baikor izan behar dugu ahaleginean; Francopéan bestea zen geure ekintza, baina gaur jakin behar dugu gaurko egoerak eskatzen digun bezala jokatzeko, bakoitzak berea duen kontzientziaz, baina zerbait berria eraikitzen ari garen zentzurik galdu gabe.

3.

Hitzegiten duenak aurpegia ematen duen bezala, idazten duenak ere bere lanak izenpetuaz jokatu behar du garbi. Bestela susmoa da nagusi, egiaren arierioa eta azken batean borroka ilun eta zentzugabea.

SANTI BROUARD

Deia / 1984.12.01

Mugaz haruntz ezagutu nuen. Frankismoaren barruti ilun hartan anaiak-anai sentitzen ginen aro orlegi hark bazuen tinta oririk, mesfidantzarik eta baita odol gorriaren proba franko ere; baina zauri hauen eta salaketa ustel haien gainetik eta barrutik nabari zitzaion itxaropenak berekin zekarren seinale aberats hura.

Argi honetan ezagutu nuen Santi Brouard Donibane Lohitzunen.

Ez zion Santik frankismoari ihes egin justiziaren beldur: ez zuen inor hil, ez eta ere inori beste kalterik; laguntza eske etxera etorri zitzaion gazte bati zauri txar bat sendatu egin zion. Sendagileari dagokion birtutea bekatu bihurtzearen milagro beltz hau ez zitzaion justuki Santi berari leporatu: bistan zegoen aspaldidanik zuzena zena oker ikustea: garbia zena, zikin; argi zegoena, ilun, eta goien egon ohi zena, beheak jota ikusteko alderantzikatze nabarmena gerra eta gorroto bidetik nola etorri zitzaigun egiaztatzea.

Mendeak ziruditen urteak jadan, eta hiltzailea bera berez hil zenean, ez zen giroa guk nahi bezala berehala aldatu.

Hala ere, eragin batzu dela medio, gureganatu ahal izan genituen berriz hain gureak ziren alor batzuk; ez zen iraultza, baina geure herri-bidean aurrerantz pauso batzu emateko gauza izan ginen. Eta hemen, pauso hauek bitarteko bezala onartzen genituenak eta urrats hauek gutxiesten zituztenak hasi ginen piska bat elkarrengandik urruntzen; beraz, ez genituen Santik eta biok geure ondoren hauek modu berean juzkatzen. Bestalde, bat Bilbon, bestea Hondarribian edo Gasteizen, oso bakan ikusten genuen elkar; baina ez genuen, horregatik, batak bestean genuen sentipena inoiz galdu. Politikaren bideak ez ziren berdinak, baina bide-txurren gainetik somatzen genituen herrikotasunaren eta anaitasunaren bide zabalak gainditzen zituzten guztiak.

Neuk Santi Brouardengandik pertsonalki gorde ditudan kezkek Euskadi eta euskara izan dira; eta gaur, gorroto zahar eta beltz hark geure artetik eraman digunean, gizon oso, bihotz-zabal eta emakorra da eredu bezala betiko geratzen zaidana.

Eta, nola ez, hainbeste maite zituen Tere, emazte sentibera, poeta hutsa, eta Edurne, Santi eta Tere, senar-emazteek hainbeste maite zituzten beren fruiturik helduenak.

NOS ESTAMOS JUGANDO EL PROYECTO NACIONAL VASCO

Deia / 1984.12.14

Una de las lecciones más claras que he aprendido durante mis cuatro años dedicados a la *Historia de Euzkadi* es la de que nuestra vida como pueblo, como nación, se ha venido resintiendo sobre todo de la carencia de una relación orgánica entre las regiones vascas.

Y el hecho de que esta desvinculación administrativa y política ha sido cuidadosamente cultivada por los dos Estados dominantes.

Hoy tenemos la oportunidad histórica para crear estos vínculos.

El hecho de que nuestro pueblo haya tenido que vivir durante siglos, y a la manera de otras muchas nacionalidades sin Estado en el mundo, una dispersión administrativa interior, no quiere decir que sea lo que nos conviene cuando estamos precisamente capacitados por primera vez para ejercitar nuestro derecho a



Martin Ugalderen lan askotan bizitza errealeko pertsonak agertzen dira.

formar un Gobierno nacionalista, y esto en momentos en que la supervivencia cultural y política de nuestro pueblo es de por sí difícil: Estamos a las puertas de una Europa supraestatal y también del siglo XXI, circunstancias en las que man-

tener el proyecto de poder político nacional de un pueblo pequeño, como es el nuestro, diluido de la misma manera en que nos tuvieron los dominadores dispersos y separados durante siglos, va a constituir una dificultad seria. Es cierto, por una parte, que nuestro pueblo debe mantener una forma interna de organización política, con las Diputaciones Forales, que es fruto de esta historia que ya es en parte naturaleza en la vida política interna de nuestro pueblo, pero dotada ahora de un Gobierno que asuma en su seno la dirección política y administrativa de carácter nacional, *con competencias claras y concretamente definidas*, al nivel de eficacia que exigen los tiempos.

Acudir al ejemplo de Suiza sin tener en cuenta las diferencias de experiencia histórica que separa a los dos pueblos es una trampa que puede sernos fatal. Lo ocurrido hasta ahora entre nosotros es más elocuente, y ¡no hay más que fijarse en quién aplaude fuera de casa este anacronismo!

Para mí, la supervivencia política de nuestro país es un caso comparable al que nos plantea la supervivencia de la lengua: intentar salvar la vida del euskara sin la solución de una unificación literaria para enfrentarse a los tiempos de la comunicación de masas a niveles de desarrollo que vivimos, es comparable con la de construir una Euskadi moderna en el mundo político de hoy sin la dotación de un gobierno nacionalista democrático eficaz.

La visión política de Sabino de Arana y Goiri al globalizar en Euskadi todas sus preocupaciones de supervivencia del pueblo vasco, incluida la de la unificación de la lengua, no necesita de muchas explicaciones.

Pues nos estamos jugando hoy, en cosa de días, la suerte de este proyecto nacional.

LA LLAVE ESTA EN VIZCAYA

1986.01]

La llave del Euzko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco ha estado desde su creación, hace noventa años, en Vizcaya; aquí se desarrolló mediante las raíces que pronto se extendieron en Guipúzcoa; con repercusiones políticas en Navarra de los hombres de la *Revista Euskara* sobre todo a partir de la visita del Orfeón Pamplonés a Gernika (1893) y la "Gamazada" (1894); con eco más débil pero señeros antecedentes en la Alava de Moraza y de Apraiz, y, sobre todo, con expresión de su lengua: Euskal Zaleen Biltzarra, al otro lado del Bidasoa.

No hay que perder de vista a estas raíces que supo asumir Sabino de Arana para dar contenido político racional capaz de articular la antigua realidad de Euskalerría en el moderno proyecto de Euskadi.

Vizcaya en función de una proyección nacional vasca.

El difícil momento que vive hoy el EAJ/PNV despierta entre nosotros el recuerdo de otras coyunturas en que los vizcainos supieron mantener en los momentos difíciles este rumbo, y tenemos los vascos de cualquiera de sus regiones la esperanza puesta en que sabrá elegir también esta vez, el camino que trascienda la confrontación circunstancial, con la mira puesta más allá de las luchas intestinas y los rencores personales.

Me gusta muy poco mencionar nombres propios en las circunstancias en que estos nombres son llevados y traídos sin el menor respeto político ni el miramiento humano más elemental. Pero hay ocasiones en que se está obligado a la concreción. Hay en nuestro partido dos fracciones gravemente enfrentadas: las que, al margen o no de la voluntad personal de los dirigentes políticos que las encabezan, Xabier Arzalluz y Carlos Garaicoechea, se expresan de forma tan feroz que no tengo necesidad de explicitar, porque es ya escándalo hasta más allá de las fronteras del Estado.

En estas circunstancias de grave daño para la confianza política de que está necesitado nuestro pueblo, y que es apremiante en el seno del EAJ/PNV, se ha llegado a un punto de fraccionamiento orgánico y de quiebra de credibilidad interna que no puede continuar sin correr el riesgo de un daño irreparable. El que quiera cerrar los ojos ante esta situación, puede hacerlo, y acaso con la buena voluntad de reducir daños, pero seguir pronunciando más palabras sin acciones

políticas que les den el contenido de reparación correspondiente resultan ya, a mi modo de ver, más que inútiles, peligrosas.

Así, rodando truenos, hemos llegado a ponernos ante la decisión clave a que se enfrenta estos días el Bizkai Buru Batzar.

¿Qué va a hacer Vizcaya en estos momentos en que tiene la llave de esa puerta cerrada a la concordia? Puede abrirla y dar los pasos que está exigiendo el momento, eligiendo un BBB que goce de credibilidad suficiente en las demás regiones, y apostar por la concordia y aprestarse a hacer frente a las elecciones que el adversario está ya preparado por su cuenta; o puede, por el contrario, y para hacer más fácil este desconcierto vasco, elegir para cabeza del partido en Vizcaya precisamente al líder de una de las dos fracciones que desde el momento mismo de su elección resultarían irreconciliables.

Lo que temo sinceramente es que en el caso de que se llegara a producir esta situación, las palabras de concordia y justificación que se pudieran preparar ya no cumplirían la función que han venido desempeñando durante muchos años en la sólida credibilidad del EAJ/PNV.

XIX. MENDEKO ABERTZALETASUNA XX.AREN BEZPERETAN

Eguna / 1986.10.23

Askotan botatzen digute: abertzaleok erromantikoak garela.

Erromantizismotik gatoz, bai; baina ez euskal abertzaletasuna bakarrik, baita bihotza eta imajinazioa bide direla XIX. mendean sortu ziren pentsa-moldeak eta gizona ukitu zuten beste arazoak ere. Zer besterik izan zitekeen karlismoa eta, beraz, Iparragirre eta karlismoari zentzu argia ematen jakin zuen Txaho?

Agustin Txaho, Tardetsen jaio zen 1811ko urriak 10 zituela; garai hartako gure herriaren eskolabide bakarra hartzen du: Seminarioa. Eta, kasu honetan, herritik kanpo, gainera, Biarnoko Oloronen. Gero, Iparraldeko kultur-legeen menpe, Parisa joan eta han idatzi zituen bere lehen liburuak: *Azti-begia* euskaraz (1834) eta beste batzu frantsesez, Euskal Herria eta euskara gai dituela; erlijioaz ere idazten du. Baina, gure gaurko eginkizunerako gaia zuberotar honen *ideologia* denez gero, esan dezagun Justo Garaterekin batera, lehen sozialista izateaz gainera, lehen eusko abertzalea izan zela, karlisten laguna; Eugene Goihenetxek eransten dio honi; iraultzailea ere izan zela, eta antiklerikala eta antikapitalista.

Txahok badaki (sentitzen du, hobe) karlistak ez direla don Carlos-en alde borrokatzen ari, honen bitartez gorde ahal izango dituzten *Foru nagusiak* eta *euskal nortasuna* defendatzeagatik baizik. Zumalakarregirekin 1835ean elkarrizketatu zela egia den ala ez, erromantiko batentzat ez da garrantzitsuena, Txahok berak dituen galdera aberkoiei erantzuteko, Zumalakarregik don Carlos-i esan ziezaizkiokeenak baizik: "Jauna, ez ahaztu, zure kausa defendatzerakoan, nire helburu nagusia gure probintzien Foru zaharrak gordetzea dela. Zure asabek bezala, zure herriez esklabuen arraza egin nahi bazenu, neu izango nintzateke lehenengo, ez ezazula ahaztu, Errepublika proklamatu eta nire anaiei federazio iberiarra predikatuko niekeena".

EUSKO ALKARTASUNAREN SORRERAZ HITZ BI

Argia / 1986.10.27

Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan Eusko Alkartasunaren sorrerak zer esan nahi duen.

Hau izan da *Argia* aldizkariak eskatu didana. Batetik, nik ezin diot astekari langile-bizkor honi nire eritzirik ukatu. Bestetik, lantxo hau idazteko geratu zaidan beta bakarra, Pakearen Eguna izatea suertatu den igandea da. Barruko eta nahizko bi bide-muga hauek baldintzatzen dute, bada, nire erantzuna; ez da, hala ere, ihesbide gertatuko.

Nik neuk ezin dut arazo mingarri hau barrutik besterik ikusi; izango da, bi alderdietan, gauzak kanpotik ikusten diren patxararekin hartu dutenak. Etxebarruko ez kanpo, bestalde, ikusle bakarrik izan diren kanpotarrei eskaini diogun ikuskaria ez da ereduzkoa izan; aitzitik, lotsagarria izan da. *Alderdia* erreferentzi-puntua bezala zeukaten euskaldun eta erdaldun asko eskandalizatu dugu, eta beragan zuten itxaropen anitz suntsitu.

Hara hor kaltea, gaur oraindik neurritzeko gauza ez garen galera.

Baina honez gain, barruko garenak hartu dugun jipoia ez da, gero, arinkeri barez uxatzeko modukoa. Azken bi urte hauetan galgan pasa gaituzte behin eta berriz, dozenaka aldiz! Nire aitaren aroztegiko ohol-galgak ataratzen zuen haina txirbil, sua pizteko erabiltzen genuen txirbila!, (...). Ni neu zatiketa onartzetik oso urrun nengoen; gauza beraren lekuko naiz Garaikoetxea jaunaren kasuan, eta esan dezaket Pake Egun honen izpiritua batere lohitzeko beldurrik gabe, zatiketarik ez zuela inolatan ere nahi. Baina honek ez zuen bere eskuetan ezer; geuk, gaintontzeko *kritikoe*k ere ez; hemen agintea eta ekinbidea, erabakiak hartzeko gai zena zen, eta honek, Euskadi Buru Batzarreko buru zenak, ez zuen akordiatzeko ahalmena eta garaia heldu zen unean, jaurtiketaren bidea behin eta berriz hartu besterik egin.

Hau da nik neuk ikusi eta sentitu dudana.

Egia da, nire ustez, auzi honetan batez ere bi pertsona arteko ezinikusiak izan duela joko nagusia. Honen sorreran egon diren arazo pertsonalak, berezko diren jite ezberdinak daude. Bestalde, batak heredentzia politikoa berea zela pentsatzea *lojika politikoa*ren barruan zegoenez gero, besteak Ajuriagerra eta Irujoren esku-tik agintebidea hartu eta gero herriaren babesa zabala iztegia izan zen. Eta hau

da, nik uste, LTH istilugarri horren oinarriak jartzerakoan jokoia oraindik gehiena zatitu zuena, eta ez alderantziz: herriak Lehendakari hautatu zuenak bazekien Aberri baten zorikaitza izan den herrialdekeriaren konponbidea, denena den Jaur-laritz sendo bat osatzean zegoela.

Diferentzia hauez gainera, izango dira seguraski, beste herrietan bezala, beste ezberdintasunak, baina demokraziak dituen bidez konponduak izan daitezkenak. Baina ez dekreto bidez eta kosta hala kosta moztekoak.

Nahikoa nozitu dugu euskaldunok kanpoko diktaturaren eraso maltzuraren-gandik, orain etxean zigor bera isilik onartzeko. Eta galga gaizto honetatik hainbeste aldiz pasarazi gaituzte bi urte hauetan, gure ahaleginak baztertu eta irrigarri moduan utzi nahi izan gaituztenean, ahalmena eta kemena, biak, "aparatoan", expulsioetarako aparatoan, zeudela uste zutenen aurka, guk Euskadi-ri zerbitzen jarraitzeko modu bakarra, Alderdi *abertzale* bat eratzea izan dela, ezinbestean.

Naiz eta izen hau debekatzeko tranpan erori bagara ere.

Fede ona, gauza ederra da oraindik.

Hemendik aurrerakoa, bi alderdien jokoak eta estiloak erakutsiko du.

EL SÍNDROME ELECTORAL

El Diario Vasco / 1986.11.14

A veces da la impresión de que en tiempo electoral debe permitirse todo; que la regla de oro de la democracia radica precisamente en esta libertad. Por mi parte sigo creyendo que el único espacio civil y civilizado que todavía queda al hombre para su supervivencia es el terreno de la práctica democrática, y que para preservarla hay necesidad de razonar los mecanismos del síndrome de esta enfermedad llamada período pre-electoral.

Las manifestaciones de estos síntomas son de orden práctico.

El caso de Eusko Alkartasuna es un ejemplo. Se discrimina su acceso normal a los medios públicos de comunicación social del País. Es tan clara la arbitrariedad, que no hace falta ser de EA para darse cuenta de la manipulación. El País lo ha hecho notar desde Madrid. Y es cínica la respuesta que recibe nuestra actitud de protesta en Gasteiz el miércoles: "Deberíamos dedicarnos a criticar las prácticas de Televisión Española, en lugar de denunciar lo que está ocurriendo en Euskal Telebista". Todos los vascos estamos cansados de las prácticas fraudulentas de los Calviños de turno en Madrid, donde nos están pasando por el embudo de las consecuencias del centralismo en este país he escrito miles de folios en mi vida; pero no por eso dejaré de denunciar al Gorordo de ocasión para señalar el descaro y la irresponsabilidad con que está practicando su juego sucio.

A mí me suele costar mucho meterme en cosas que no conozco. Pocas veces me habrán leído artículos sobre economía, administración o gerencia, que son la especialidad de Gorordo, pero la palabra y la comunicación constituyen mi único campo de trabajo, y seguiré escribiendo acerca de lo que me parece mal; lo intenté en otro diario hasta hace poco, hasta que me insinuaron que escribiese sobre "otros temas". Durante el franquismo hubiera tenido las páginas de los periódicos y las revistas abiertas de seguir esta recomendación. Ya saben mis compañeros periodistas y los que me han leído alguna vez que no soy de aquellos a los que se les puede hacer callar a golpe de consigna. Que antes de rendirme a lo cordero lucharé por decir la verdad de mi conciencia. Así he optado por salir del campo que era mi Partido cuando su aparato se ha convertido en un directorio de ordenación vertical. Cualquiera que haya leído lo que escribí cuando Franco estaba en el cielo de su poder interminable, verá que hoy, cuando los socialistas están man-

dando aquí con prepotencia, aparatajes técnicos y paracaidistas de oportunidad y la cabeza de puente pluriempleada con mandos allá y acá tratando siempre escoltado de sospechosos angelotes con corona cantando seráficamente la Internacional, escribo lo mismo. Pues estaría bueno que ahora me parara en esos pelos para denunciar la antidemocrática actitud de los que queda del PNV después de las razzias de expulsiones y ahora está al mando de los aparatos de oír y de ver que son el patrimonio precioso de todos los vascos que queremos estar informados para decidir en libertad.

Y vuelvo a denunciar este manejo, para que el vasco que no ha alcanzado a advertir todavía el fenómeno, lo compruebe por sí mismo.

A él, después, el turno de hacer uso de sus herramientas de pensar.

PAZ A TODOS LOS MUERTOS

1987.04.27

El 14 de setiembre de 1986 publicó la prensa tres esquelas impresionantes, nutridas de por lo menos cincuenta nombres cada una, todos correspondientes a "fusilados en la Provincia de Guipúzcoa entre el 19 de julio y el 13 de setiembre" de 1937, o sea, en el cincuentenario de su ejecución en territorio no ocupado por los rebeldes todavía. Siete meses más tarde, el pasado 19 de abril, se publica otra serie de seis esquelas que contienen un total de cincuenta y ocho nombres de "sacerdotes y religiosos que sufrieron el martirio por su condición sacerdotal en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya entre el 24 de julio de 1936 y el 24 de junio de 1937".

Los que han mandado publicar estas esquelas han querido, sin duda recordar a sus muertos, y yo respeto profundamente la memoria de estas muertes crueles.

A cualquiera que ha tenido ocasión de leer este recordatorio de muerte violenta le ha despertado seguramente una pregunta elemental: ¿Quién y por qué mataron a estas personas?

Aquí, como en cualquier contienda civil o militar, hay que tener en cuenta, para la exigencia de responsabilidades, de cuál de las dos partes ha surgido la preparación del ataque, del agravante de nocturnidad, si la hay, y ataca por sorpresa y con qué proporción de medios y el carácter que encierran las grandes alianzas extranjeras. Este juicio es inevitable.

Y el caso es que se alzó el ejército contra un gobierno legitimado por unas elecciones democráticas libres, y cuya Constitución juró defender, acompañándole una parte civil de la población que se estaba preparando para el ataque con armas y con encuadramientos ya hechos, algunos en el extranjero, y con listas de muerte ya confeccionadas y en nombre de Dios y su Santa Cruzada contra los "rojos" que éramos los vascos.

Una cosa demasiado simple, en verdad.

Yo, que no tenía edad para ser un contendiente en aquella guerra, pero recuerdo perfectamente este ambiente de amenazas por radio y en hojas sueltas lanzadas desde aviones que nos bombardeaban a placer en Bilbao, nuestro refugio de "rojos" en retirada desde Guipúzcoa. Pronto comenzamos a saber vía "radio macuto" (otro fenómeno terrible de guerra) que habían matado en el pueblo, en



Augustin Zubikarai eta Bernardo Estornés Lasarekin batera egin zuten Martin Ugalde ohorezko euskaltzain (1993).

mi caso Andoain, dieciséis hombres, y en Villabona y Tolosa, Beasain, y en Urnieita y Hernani, en cada uno de estos pueblos de Guipúzcoa, valiéndose de listas de terros llenas de gente conocida, algunos vecinos que no habían hecho más que enseñarnos bailes vascos o tocar el tambor en ellos, casos concretos y otros que sabíamos no habían hecho ni eso, y muchos intervinieron para guardar a carlistas y falangistas de aquellos que por sus posturas redicales de izquierda los estaban amenazando de muerte. Si eran ellos los alzados, ellos los que habían comenzado a matar en Navarra de manera escalofriante, los que eran proclives a la dinámica de la venganza y hasta de las medidas preventivas propias de la guerra de que lo que vale es matar primero, los que pensábamos, digo de otra manera que ésa de actuar, hicimos esfuerzos desesperados para controlar aquellos momentos.

Lo que quiero decir, y lo digo con orgullo de pertenecerr a esta parte del pueblo vasco "meapilas" y "vaticanistas", luchando en este desorden provocado como pudimos, podríamos llenar más de una hoja de periódico con nombres de personas de ideología contraria que respetamos y guardamos, y también de páginas de nuestros fusilados durante este primer período que no termina el 30 de septiem-

bre, fecha en que se estabiliza el frente en el río Deva, porque seguían los paseos en los pueblos y las puestas en "libertad" en la cárcel de Ondarreta en Donostia.

A partir del 7 de octubre el Gobierno Vasco de coalición instituido en Guernica, le pudo hacer frente con otra ley de guerra con orden a pesar de las dificultades, y se respetaron todos los valores civiles, morales y religiosos.

Hay aún muchos adversarios políticos supervivientes que pueden avalar esta conducta del Gobierno Vasco presidido por don José Antonio de Aguirre.

Se produjeron, eso sí, asaltos a las cárceles tras los criminales bombardeos de Bilbao; desgraciadamente, no se pudieron controlar sino tarde, de ahí la mayoría de estas listas de religiosos. Pero cuando ocurrió el desmán popular vengativo, el Gobierno Vasco tuvo el coraje y la dignidad de confesarlo.

"La actitud del Gobierno Vasco rayó en lo increíble —dice el corresponsal del diario londinense The Times— en aquellos tiempos, es preciso recordarlo, la verdadera versión de las matanzas de Madrid podían sacarse sólo de contrabando al exterior, como artículos sin censura escritos por corresponsales desconocidos. En la zona de Franco, la situación era todavía peor: si un periodista extranjero se atrevía a publicar una información sobre las atrocidades cometidas en su territorio, su corresponsal —fuera o no responsable— era expulsado ipso facto. Sin embargo, para los vascos, la palabra conciencia tenía un significado

dinámico. Hicieron todo lo que pudieron para expiar el horrible crimen perpetrado por la población en Bilbao, enloquecidos por los bombardeos aéreos. Aunque están en guerra, dieron orden al censor de permitir cualquier crónica auténtica de lo sucedido. Leizaola, como Ministro de Justicia, confeccionó una lista completa de los muertos. A pie de ocho de los nombres, añadió la palabra "mutilado" para decir que, efectivamente, lo había sido. A los representantes de la prensa extranjera se les autorizó la radiodifusión de estos hechos, así como a Radio Bilbao. Se organizaron funerales, con la conducción por el centro de la ciudad, redoblaron las campanas de todas las iglesias "por los muertos mártires



Martin Ugalde, Ohorezko Euskaltzain (1993).

sin gloria del nuevo mecanismo de la guerra": 194 asesinados y 30 fallecidos a consecuencia de las heridas".

Alguien puede hacerse legítimamente la pregunta de quién encarceló a los sacerdotes, cuando las iglesias estaban abiertas al culto y los sacerdotes no tenían que esconder su condición. Tanto en la retaguardia como en el frente cuando se trataba de capellanes, los que celebraban su misa de campaña con tanto fervor que los requetés del otro lado de la línea. Y con mayor, sin duda, que los alemanes, italianos, y los miembros de la Legión y los moros que venían con el "detente bala" del Sagrado Corazón.

Pero en esta guerra incivil que trastocó todos los valores se dieron casos de subversión, de armas escondidas en las iglesias, como se dio, para dar un ejemplo concreto guipuzcoano, en el Buen Pastor de Donostia, y que fueron recogidos, para evitar problemas, mediante la intervención de Aitzol, luego tan horriblemente maltratado y fusilado en Hernani.

La pregunta fundamental sigue en pie: ¿quién trajo esta guerra? y ¿quién trajo a los aviones y aviadores que bombardearon Durango dejando las tres iglesias destruidas con 520 personas debajo de sus escombros, entre ellos un sacerdote celebrando y catorce monjas esperando tomar la comunión y resultando heridas 730 personas? Estos nombres de los muertos 26 días antes de lo de Guernica, podrían llenar fácilmente de esquelas páginas de periódico. Y, ¿quién es responsable de que los alemanes de la Legión Cóndor saliesen de sus bases de Vitoria/Gasteiz y de Burgos para en tres horas y media matar 1.654 personas y herir 889, destruyendo y quemando con bombas de azufre la población civil de la ciudad, que llenaría de nombres un periódico?

¿Quién dijo entonces que eso era mentira, y quién tuvo que rendirse a la evidencia de que era verdad el hecho y la autoría cargada sobre los vascos "incendiaros"?

Si los que han publicado estas esquelas en dos tiempos han querido recordar a sus muertos, sin más, están en su perfecto derecho, y yo respeto profundamente su memoria. Este artículo va dirigido a aquellos que pueden pensar hoy, al leerlos, que estas líneas eran las únicas posibles, y que correspondían a una situación que ellos no tienen hoy por qué juzgar de otra manera si no contrastan con otras listas de la guerra criminal que ha cambiado el rumbo de este pueblo nuestro durante cuarenta años, y ha dejado rastros que aún viven en las violencias en que estamos enredados cruelmente, y del que pido: "Paz a todos los muertos".

EUSKARA ETA POLITIKA

Hondarribia / 1987.07

Ea adierazi nahi dudana hitz gutxitan esateko gauza naizen.

Euskara niretzat gure herriaren arnasa da, eta diglosiaren anestesia maltzurrez beste hizkuntza bat sartzen badigute, zikiratu gaituzte, eta eunuko huts bilakatuko da euskalduna eta euskalerrria.

Eta akabo Euskadi.

Adios.

Euskararen aurkako erasoak zaharrak dira; bizpairu liburuetan ahalegindu naiz hauek eta berriagoak salatzen. Gure hizkuntzaren etsaiari, gerra! Ez dira, halere, euskararen arerioa guztiak kanpotik etortzen; askotan euskararen areioa euskalduna da; bere burua gorrotatzen duelako, alferkeriaz euskararen aldeko protesta alferrean bizi dena, eta baita, suertatu daiteke, euskararen alde lanean fin ari diren batzu ere.

Hauek, azken finetan, euskararentzat kaltegarri gerta baidaitezke.

Eta mekanismo erraza da: Euskarak, euskara bezala, gure herriko abertzaleak biltzen ditu, gure herriko kulturbidea indartzen du. Politika da, askotan, honek ekar dezaken politikeria medio dela, gure zatiketa bide. Ez dut esaten, noski, politikarik egin behar ez dugunik; egin behar dugu, bakoitzak bere den bidetik, eta bakoitzak horretarako dituen egunkari, aldizkari eta liburuen bitartez, eta hitzaldietan, bileretan, horretarako diren bide guztietan, eta hemen euskara erabiltzerik bada, hainbat hobe.

Baina ezin egin duguna zera da: gure herriak euskara aurrera atarako bada herritarrak euskara irakurriaren bideak ibiltzeko aldizkari bat sortu, "*Hondarribia*" eta egoera honetan euskal herraminta eder hau politikeria bat egiteko tentazioan erori.

Neuri ajola gutxi zein taldek egiten duen hori, denak gaitzetsiko bait ditut.

Gure artean politikoak diren arazoak eta borrokak haizatzeko bada beste biderik. Eta gure herrian euskara irakurrarazteko bide bat, eta ona, ondo egina, sortu eta gero, bide hau hondatzeko bidetik ihes egin behar dugula uste dut.

Kasu berezi honetan, euskara da gure politika eta partidua.

EUSKARA ETA ASKATASUNA

El Diario Vasco / 1988.03.27

Edozein kazetarik eta idazlek bezala, neuk ere izan ditut nire iritziak direla eta makurraldiak. Batzuk mindu nautenak, eta hauetako bat don Manuel Irujorekin topo eginaz, hain xuxen; neuk gizon handi hau maite nuen neurri berean egin zidan min neuk Caracasetik. Alderdi aldizkarira (urri-azaroa 1964) bidali nuen: "Euskadi: ¿a dónde vas?" artikuluari eman zion titulo bereko erantzunak.

Nik gauza bat esan nahi izan nuen, eta hark arrazoi handizko beste alderdi batetik heldu zion gaiari.

Askotan gertatzen dena.

Neuk esan nahi nuena zera da: Gure herri osoan euskararen hazia zabaldu eta hazi horren fruituak emateko gai izango litzateken egoera politiko baten lorpen osoa nahiago nuela, Euskadi independente besterik ez den batena baino. Zergatik? Badakitelako euskararen garaipen honek berez exigitzen duela politika-koa!

Gaur oraindik, 24 urte gero, kezkatuak gauden euskaldun eta abertzale guztiok badakigu, gure herria euskalduntzeko beharrezko dituen kondizio politikoak zeintzuk diren euskararen diglosiarik gabeko nagusitasuna, Euskal Herria egizkoa izatea eskola eta Unibertsitatea, administrazioa, dena euskalduna, lortzeko. Neuk ez dut Irujo jaunak ulertu zuan bezala, politikako bidea gaitzesten, baizik eta, aitzitik, euskararen paradiso honek berez politika bidea guztiak gaintituak dau dela suposatzen. Bestalde, ordea, politika bidearen jo-mugak onak iruditzen bazaizkit ere, badakit, eta orain arteko probak lekuko, gehienez ere irlandera gabeko Irlanda antzeko lorpena izango genukela.

Hau zen, funtsean, neuk esan nahi nuena, noski.

Gaurko euskararen egoera garai hartakoa baino hobea bada ere, nahiko kezkatuak gaude "Bateginik" osatzen dugun alderdietakoak garen eta ez diren guztiak; egindakoa ez da gutxi, baina ez da aski; horrexegatik ari gara ahal dugun neurrian mintzaira eta idatzitako euskara bultza nahian; lehen mailako eskolatik hasi eta euskaldunen alfabetatsetik pasa eta beharrezko dugun egunkaria eta dugun liburugintza polita, dena bultza nahian; oraindik asko baino gehiago falta baitzaigu!

Egia esan Independentzia eta euskara, biak nahi ditut, zati ezinak direlako.

Neu politikaren jokabide demokratikoaren bidetik ibili naiz beti, aspaldidanik, baina beti euskararen jomuga galdu gabe; honek bakarrik emango baitigu politikoki helburu hori lortzeko ibili beharko ditugun aldats eta gainbeherak eusteko kuraria eta kemena.

Ez ginen neuk miresten nuen don Manuel handia eta ni, koxkorra, ongi ulertu garai hartan; baina ordurarte eta geroztik beti konpondu izan ginen bezala, laster ulertu nuen neuk bere puntua, eta hark ere bai nirea.

Maiz gertatzen ez bada ere.

IÑAKI ASPIAZU: PROMESA BATEN HISTORIA

El Diario Vasco / 1988.04.06

Oraindik exiliorako aukeratu zuen, Argentinan etengabeko presoan aldeko lanean ari zela eraman du Iñaki Aspiazu apaiza heriotzak.

Egindako promesa betetzearren.

Gerra hasi berrian sartu zuten 26 urteko apaiz gaztea Azpeitiako herri-gartzelan, bere herriko presondegian bertan, eta biziak eta hilak elkarrekin bizi izan zuten agoniako denbora zoro eta izugarri hartan egin zuen promesa hau; bizirik irteten bazen, bere bizia presoan egoeraz arduratzeari eskeiniko ziola, eta eskaintza honen eraginez oraindik, 78 urte zituela, hil berri zaigu. Orain gutxi, Hondarribiko betharramiten egoitzan ETBrako egin genion bideoa dela eta galdetu nion noiz itzuliko zen, bertan geratzeko, Euskalerrira, eta hala erantzun zidan: "Neu egiten ari naizen lanean txandatuko nauena aurkitzen dudanean".

Ez da erraza izan, nonbait, eta, hala, beste euskaldun migrari eta erbesteteratu askok Ameriketara irabazi duten izen onaren beste lekukotasun pertsonala Argentinan landatu nahi izan balu bezala.

Hemen amaitu edo hasi duen lana esan nahi ditut bi hitz.

Aurrena Frantzian

Azpeitia eta Euskalerritik ihesari emanda exilatu behar izan zuenetik (1937) bere hitza betetzen saiatu zen; Frantziako Elizak Lille hiriko "Missionaires du Travail" (Lanaren Mixiolariak) erakundean egin zuen bere gertaketa; gero, Verdir Parisko kardinala eta Dax-eko Mathieu gotzaia buru zituen Euskal Errefuxiatuen Laguntzarako sortu zuten instituzioan egin zuen eten gabeko lana, hurrekin ere, eta 1933an mundu-gerra lehertu zenetik laster, 1940go apirila aldera, beste euskaldunekin batera sartu zuten Gurs-eko konzentrazio-zelaian; Frantziaren porrota egun batetik bestera zain zeudenez gero, frantsez polizia bera, Ibarregaray tarteko, errefuxiatuen erreakzioaren beldur ziren, nonbait don Iñakik han ere aurkitu zuen laguntza emateko bidea; han ezagutu nuen neronek, oraindik gaztetxoa, eta lagundu egin zidan handik alemanak etorri aurretik, ekainak 20 inguru, beste tolosar bat lagun nuela Zibururaino alde egiten. Gero, Gestapok jarraikatutako pertsonaiei laguntzen aritu zen, eta alemanen aurka Ordoki buru zela "Gernika" bataloia sortu zenean, don Iñaki izan zen bere kaperaua.

Mundu-gerra amaitu zenean, demokraziari irabazleek egin zioten iseka gaiztoaren oldarrak bultzata joan zen Buenos Airesera.

Kaperau Argentinan

Bi urte gero, 1947an, kazetari gisa hasi zen hiriburu honen presondegian espetxe-ratuentzat tratu hobea eskatzen. Bost urte gero, 1952an, izan zen Argentinako Penitentsiaria Nacional-eko kaperau izendatua, eta sei urte gero, 1948an, argitaratu zuen Latinoamerikako "Estudios y Acción Penitenciaria" izeneko Lehen Kongresuan eman zuen "El concepto cristiano de la pena y características del tratamiento penitenciario" hitzaldia. Urtebete aurretik sortua zuen, 1957an: "Secretariado de Ayuda Cristiana a las cárceles" eta honen babesean: "La casa del liberador". Ari zen, bada, Azpeitiko gartzelan aspaldi egin zuen promesa betetzen, eta eragintasun handiz, gainera: "Clarín" Buenos Airesko egunkariak egin zion elkarriketa batean kazetariak aditzera ematen du Aita Aspiazuren eskutik pasatzen zen "%12 bakarrik itzultzen zela lapurretara". Apaiz eta euskaldun abertzale izaten jarraituz, noski, Euskal Kleroak 339 apaizen firmekin garrantzitsu hura hiru urte gero, 1960an, argitara zuenean, hor zehoen bere izena, eta eragina ere, Argentinako euskaletxeetan eta Latinoamerikako hiriburuetan; urte honetan bertan heldu zen Caracasera, Ameriketako euskal kleroaren mezulari bezala, eta neu Euskal Etxeko buru izatea suertatu zenez, lagundu nion hango telebistan bere agerraldiak prestatzen, eta biok gai hori eta frankismoari buruz zegokionari esan eta egin genituenagatik Enbaxada espainoletik madarikatua eta mehatxatua ere izan ginen, baina ez zuen honegatik Caracaseko telebista, ezta gobernua ere, noski ikaratu, eta don Iñakik esan behar zirenak esan zituen garbi asko, bi egunez emandako hitzaldietan; oso baitzen hizlari iaio eta aberatsa edozein hizkuntzatan. Laster, izan zuen beste agerraldi publikoa, orain Europan, eta Batikano II martxan zegoela (1962-1965); garai hartan argitaratu zuen ageri bategatik izan zen Madrilen Tribunal de Orden Público delakoak sei urte eta egun bateko gartzelaz zigortua.

Harrapatu ezin bazuten ere.

Noizpait ukitu zuen Francopelan emandako amnistia batek, eta 1974ean, bere lagun mina Ildefonso Gurrutxaga, historialaria, Donibane Lohitzun gaixotu eta Barriola-tarrei esker ongi eta etxekoek zaindua, Donostian hil zenean, hor izan zuen don Iñaki bere ondoan.

Liburu argiak ere idatzi zituen: "7 meses y 7 días en la España de Franco" eta "El caso de los católicos vascos", biak bizpahiru hizkuntzataraz itzuliak eta zabal-kunde handia izan zutenak.

Herriratu nahi izan zuten, erbesterratu guztiek bezala, aparteko argia eta lan-gilea izan genuen apaiz honek, baina bere hitza ongi bete nahi izan zuelako ezin ahal izan du.

Hala ere, ez al dago Buenos Aireseko hilerria Euskalerritik gertu?



Alberto Onaindiarekin.

LOS PARTIDOS VASCOS Y EL EUSKARA

1988.09

Se da por supuesto que la labor de un partido político consiste en proyectar el progreso aprobado por su base en el campo de su actuación práctica.

Liderándolo.

Los líderes facultados por la base para actuar políticamente en su nombre no pueden estar preguntándose todos los días sobre lo que su base piensa acerca de todos los temas en que incide su acción, sino que ésta aspira a que sus representantes actúen de acuerdo con los principios democráticos esenciales de su ideología, la información más completa posible acerca de cada tema y el juicio que les merece cada momento político.

Acerca del tema de la *lengua vasca, del euskera*, se advierte una sensibilidad diferenciada entre el carácter nacionalista vasco o no de cada partido político con implantación en Euskadi.

Para un *partido nacionalista* vasco, la defensa del euskara constituye un rasgo fundamental: hace la constatación del valor cultural de la lengua como medio de comunicación y su asimilación política por parte de los Estados, y en cuanto al *euskara*, propiamente, las heridas sufridas por su postergación y su persecución según los tiempos, y la constante de su reivindicación en la larga supeditación de siglos en los escasos y cortos momentos de vida democrática que nos ha librado de la oligarquía centralista y sus instrumentos. Sin embargo, no todos los partidos nacionalistas han llegado aquí a determinar el modelo lingüístico apto para sobrevivir primero y proyectarlo después hacia el futuro: el modelo de lengua escrita unificada que le permita desafiar el difícil obstáculo de su actualización, la única posibilidad de su supervivencia de acuerdo con las conclusiones de *Euskaltzaindia*, en la que viene trabajando científicamente desde principios de siglo los lingüistas más capaces de nuestro pueblo y del exterior.

Y en cuanto a *los partidos vascos no nacionalistas*, llama la atención su falta de sensibilidad ante la lengua vasca, al no plantearse siquiera la necesidad de proteger este valor cultural, ahora lengua oficial, y al no asumir que constituye un bien que afecta a todos los vascos sin excepción.

Además que, piensen como quieran, no pueden menos que asumir lo dicho y hecho durante este último decenio a través del Estatuto de Gernika y su fruto más importante, el Gobierno Vasco. Se estableció el Bilingüismo Legal a través del

Parlamento, reconociendo al euskara como lengua oficial del País. Es cierto que ya es menos frecuente encontrarse hoy con personas y partidos que nieguen a los vascos su derecho legal para poder utilizar su lengua autóctona a todos los niveles; pero este reconocimiento teórico no conlleva la movilización automática de la sociedad, y esta falta de apoyo y de interés de algunos sectores de la población vasca resulta dramática allá donde la responsabilidad es mayor, en algunos partidos democráticos a los que corresponde una función pedagógica que permita colmar el foso del grave error político cometido por el centralismo español retrógrado y despótico contra la lengua de nuestro pueblo.

Para que esta ley democrática de reparación funcione, hace falta, entre otras cosas, que el uso de la lengua se haga necesaria, y funcione en los organismos oficiales a todos los niveles de la administración; para esto hace falta que los empleados, al menos al comienzo los que tengan contacto con el público, sepan hablarla, sean *bilingües*, porque el derecho que se nos reconoce a los vascoparlantes no tiene sentido si no existen a estos niveles otros vascoparlantes indispensables para la comunicación; y no sólo en las zonas geográficas más euskaldunes de nuestro país, sino en toda su geografía, porque sólo así tendrá el vasco que es euskaldun la oportunidad de hacer uso del derecho de utilizar su lengua, que es oficial en el País, allí donde vaya dentro de él.

¡La democracia exige a veces estos sacrificios de reparación por parte de los fuertes, de los que son más y además mandan desde Madrid, para que los que sean menos se sientan también protegidos en sus derechos humanos más elementales!

Sabemos que hoy sólo uno de cada cuatro habitantes sabe euskara, y a veces en un nivel mínimo, sin escolarizar, por las razones de imposición y discriminación ya conocidas; en cambio, la totalidad de la población habla castellano por las razones de escolarización discriminadamente impuesta en esta lengua en exclusiva, prohibida la vasca; en estas condiciones que nos vienen dadas, es, pues, de simple racionalidad, de sentido común, y de justicia, que se comience a reconocer el lugar que corresponde a nuestra lengua, que es oficial y propia, autóctona, de este pueblo.

Bienvenidos los muchos que se están integrando a este espíritu de la ley, de la razón y del sentimiento, asumiendo su aprendizaje como un deber democrático en correspondencia a otros derechos, y al mismo tiempo como algo personal que se exige uno a sí mismo. Este es, en verdad, el mecanismo democrático por el que se puede integrar uno con más eficacia en la Comunidad Vasca.

Tanto a nivel individual como de partido político.

MARITXU BARRIOLA (1908-1988)

El Diario Vasco / 1988.09.29

Maritxu Barriola Irigoyen Donostian jaio zen 1908an.

Bere hiletan aita Gogorzak ongi esan bezala, Maritxuren goiburu edo lema Euskal Herriaren iraupena izan zen; alegia, Herri honek berez sustraietan dakarren bereizgarria, Euskaldun izatea, ez dadila galdu: lurralde honetan sortu zenetik orain arteko milaka urte iraunarazi dion herriak ez dezala hari hori eten.

Galduaz gero, Laboak hain duinki abestu dion txori libre hura ez bailitzateke gehiago txoria izango.

Maritxuk hau bere familiako izpirituz eta gero honen zerbitzuan egindako lanez ikasi zuen. Donostian 1813go abuztuaren 31an gertatu zen suteak 600 etxe erre zituen, hilak eta zaurituak kontaezinak; bazirudien Donostia betirako suntsitu zutela.

Baina astebete gero bildu ziren Zubietako auzoan Donostiako alkate jauna eta "persona printzipalak", eta berehala hiri berria eraikitzeke lanetan hastea erabaki zuten. Hauen artean zegoen Zubietako Irigoyen jaun bat eta Maritxuren ama zubietarraren osabeharena zenez, honi jarri zioten Donosti berri-ederrean Irigoyen familiari zegokion domina.

Avelino Barriola, Maritxuren aita, donostiarra zen. Lau anaiak jarri zuten Hernani kalean, gazte zirela, zapategia bat; uda partean Espainiako erregin zaharra Donostiaratzen zenean, bertara joaten zen zapata erosoak eta politak egin zezakien. Avelino euskaldun abertzalea zen, Donostiako zinegotzi izan zen; honek eskatuta sortu zuen Udalak Escuela de Lengua y Declamación Euskara, eta euskal idazle eta antzerkigile famatua izan zen: "Meza Berria" (1908), "Aldiz-Aldi", "Zulo madarikatuak", "Zorigaiztoko Egunak" (1910), "Gai dagoenaren indarra" (1915), "Maitasunak" (1923). Monologoak: "Brokoliyo". "Goi Argi", "Zozoarro", "Mez Berriya", (1909an argitaratuak).

Iñaki Barriola, Maritxuren anai zaharrena, sendagile ospetsua, euskaltzaina, euskal kazetaritzan aritua da, zenbait hitzaldi eman ditu, eta gure herriko Sendagintza dela liburu jakingarriak idatzi ere bai; bestalde, Francopcan espetxe zigorra luzea jasan zuen euskal Herriaren alde lan arriskugarria egiteagatik.

Maritxu bera: Emakume Abertzale bat zen (1930) eta gero lan asko egina da; Poxpolinen mugimenduan Kurasaaleko jaialdietan, eta antzerkietan, eta gerra

sortu zenean zortzi urtez atzerriratu bizi izan zen: Intxaustik Jatsun sortutako haurren euskal kolonia, Koro ahizparekin eta Tolosako Urkiolatarren Tere eta Lupe ahizpekin, lan ederrik egin zuen haurrak euskaldun hezi eta zaintzen. Zortzi urteko exilio honetan galdu zituen Maritxuk ahizpa Merxe, Paultxo Benezuelan, ama gero Donostian, "eta gu ezin etorri!", eta azkenik aita (Pau, 1944).

Maritxuk esaten zuen bezala: "Lau urtetan lau heriotz ikaragarriak!".

Sei hilabete gero itzuli zen, eta Donostiako polizia hainbat jarraikatu zuen, baina hala ere hara oso laburki Maritxuk egindako lan batzu:

Lehen liburuak isilpean argitaratu ziren: "Meza liburua", 7.000 hilean hamar pezetaka banan bana salduak (Patxi Unzurrunzagak enkuadernatuak); "Xabier" eta "Martin Txilibitu", bakoitzetik bi edizio, fotokopiaz, hauek ere, eta Patxik enkuadernatuak; "Kenpis", eta honengatik multatua izan zen, Monseñor Mathieu bitarteko ibili bazen ere. Erresistentziako gizonak bere etxean zuten gordelekua: luze egoten zen bere etxean, Ajuriagerra bereziki.

Laburki emateko, hara hemen Barriola-Irigoyendarrak mendez-mende zernola aurrera eraman duten euskal senaren haria; Maritxu berak gaurko euskaldunoi eskatu bezala; eta lehen honelako exenploa eman duenak badu gainontzeko-ei eginbide bera eskatzeko eskubidea.

JESUS MARIA DE LEIZAOLA (1896-1989)

Conferencia / 1989.09.07]

"Fundación Sabino Arana"k Bilbon, 1989go irailaren 7an Leizaola jaunari eskaini zion omenaldia.

Gaurko nire agerraldi honetan, Leizaola jaunaren *Lehendakaritza* gogarazi nahi dut, eta bere *euskalduntasuna eta bere zuzentasuna*; ez beste doirik ez zuelako, baizik eta aukerak egiterakoan hiru hauek gehien balioztatzen dizkiodalako baizik.

Hara nire zergatiak:


1. *Lehendakari* zela ezagutu nuen pertsonalki 1972an, EAJk hil berria zen eta oraindik hain gogoan dugun Joseba Rezola jaunaren ordezkari lan egiteko aurkeztu ninduen. Bazuen Leizaola jaunak tratatu pertsonalerako berezko hotsasun bat. Hau sentitu nion lehen aldi hartan. Laster joan nintzen konturatzen bere diskretasunaz, bere kultura handiaz eta jendeaganako zuen errespetuaz, bereziki Jose Antonio Agirre ganako zuen debozioaz eta honen bidetik Jaurlearitzak eskatzen zion zerbitzuarenganako zuen leialtasun osoaz.

Honek beti hunkitu ninduen.

2. *Euskalduna* zen Leizaola jauna burutik oinetaraino. Donostiako bere familiaz gain, Zubietako "Barazar" baserria, eta hemen batez ere bere aitaren ama, nafar jatorriko bere amona, zuen euskaldun iturri berezia, eta gero hau izan zen bere euskararekiko zutoina: euskaraz eman zituen bere gaztaroko lehen hitzaldiak, eta gero euskaraz idatzi zituen prentsarako bere lehen artikulok, *Argia*-n, 1921an, 25 urte zituela.

Geroztik asko idatzi zuen euskaraz, baita euskal literatura gai dela azterketa liburu franko ere, eta *Alderdi* aldizkarirako artikulua asko idatzi zuen gure herriko hizkuntzan.

3. *Zuzentasuna* zuen beste seinaleetako bat.



Jesus Mari Leizaola, lehendakari ohia (1982).

Hau, oraindik idatzi gabe dagoen gertakizun baten bidez erakutsi nahi nuke: Poliziak 1973go urriaren 19an bota ninduen Iparraldera. Telefonorik ez zuen etxebizitza batetan jarri nintzen bizitzen familiarekin, eta abenduaren 20an, goizero bezala, Mikel Isasi alderdikidearen etxera jaitsi nintzenean, Carrero Blanco-ren atentatuaren berri ematen ari zen Espainiako telebista saioa ikusten aurkitu nuen. Hitzegin nuen hemendik telefonoz Lehendakari jaunarekin. Egun mugitua izan zen hura, eta gabean, goizaldeko lauak aldera, heldu zitzaidan Mikel alarman, esanez ETAkoak etorri zitzaizkiola, "pipa" eta guzti, eta hurrengo goizean Miarritze-ko Parme Aireportutik irteten zen egazkinean joan behar genuela derrigorrez elkarrekin Parisera Lehendakariarekin egotera!..

Eta kontatu zidan zer gertatu zen.

Hala, hurrengo goizean han ginen Isasi eta ni Aireportuan bederatzietarako. Han zeuden dagoeneko Iñaki Mujika-Arregi, orduan buru zena, nik uste, Txomin Iturbe, Peixoto, Mikel izeneko oñatiarra eta beste bat; guk agurtu genituen, haiek erantzun, eta hor jarri ginen hizketan "gure" arazoa aipatu ere gabe.

Arazoa hau zen: Lehendakari jaunak Parisen, egunkariak egindako galderei zera erantzun zien: "Berak ez zuela uste Carrero-ren hilketak euskaldunek burutua izan zenik", gainera, ez zela gure estiloa, edo antzeko zerbait. ETA-k, berriz, formalki baieztatu nahi zuen bere ekintza!, eta Lehendakariaren errekifikazio baten bitartez, hain zuzen.

Geuk adierazi genion Leizaola jaunari telefonoz zertara goazen.

Goiz hura luzea egin zitzaigun: egazkinaren irteera atzeratu egin zen, arazo teknikoak zirela medio, eta azkenean bertan eman ziguten bazkaria. Mahai batean jan genuen. Euskaraz nik gai guztiak ukitzen nituen, haiek lagunkiro jardun, baina auzi nagusia inork aipatu gabe.

Parisera heldu ginenean, Mikel eta biok taxia ahalik eta bizkorren, arineketan, hartu genuen, ETAkoek baino lehenago heldu eta Lehendakari jaunarekin aurretik hitzegiteko. Eta honetan ari ginela heldu ziren bostak, eta atarian zai! Lehendakari jaunak berehala hartu zituen bere bulegoan eta adierazi zien: alegia prentsari bere asmo bat besterik ez ziola azaldu, eta batez ere kontuan edukiz norbaitek gogo txarrez euskaldunen aurka botatako gezurrezko salaketa izan zitekeelako. Besteak, berriz: publikoki desautorizatu zituela, bai, eta orain publikoki adierazi behar zuela prentsako nota batez ETAko talde bat Pariseraino bere bertsio jatorra baieztatza etorri zitzaiola.

Lehendakari jaunak ulertu zuen egoera, bere buruaren jabe ziren gazte euskaldun haiek bere ekintza salatza zetozen, politikoki garrantzia zuelako, beraz

prentsarako berak izenpetutako nota batez gain, *Le Monde*-era telefonoz dei bat egin arazi zion Jose Maria Azpiazu idazkari jaunari, esaten nota hura pertsonalki zeramatenak ETAko partaide ezagunak zirela.

Eta halaxe, Lehendakari jaunak zuzentasunez jokaturik lortu zuen arazo hura istilu gehiago gabe amaitzea: lehenengo aldiz, euskaldunak babesteko asmoz, eta gero, egiak agintzen zuena adieraziaz: bada, zentzu beraz ikusi nuen jokatzeko Lehendakaria 1975 arte beragaz egon nintzen bitartean.

Versión castellana:

Quiero destacar tres aspectos de la personalidad del señor Jesús María de Leizaola: como *Lehendakari*, su actitud como *euskaldun*, y su *rectitud moral*.

1. Lo conocí siendo ya *Lehendakari* el año 1972, cuando me presenté a él propuesto por el Partido Nacionalista Vasco como su Consejero en sustitución del entonces recién fallecido y siempre querido y recordado Joseba de Rezola. Tenía el señor Leizaola de entrada una cierta frialdad en el trato personal. La percibí en esta primera ocasión. Pronto me fui dando cuenta de su discreción exquisita, de su impresionante cultura y del respeto que profesaba a los demás, sobre todo la devoción que sentía por José Antonio de Aguirre, y a través de él su entrega total a los trabajos y sacrificios que les exigía aquella hermosísima Presidencia del Gobierno Vasco, que constituía una auténtica travesía del desierto inmenso de tantos años de exilio.

Esto me impresionó siempre.

2. El señor Leizaola era *euskaldun* de una sola pieza. Los cimientos del amor a su lengua los heredó de su casa donostiarra, sí, pero, como él mismo me refirió más de una vez, sobre todo del caserío "Barazar", en Zubieta, y aquí sobre todo de la madre de su padre, la abuela descendiente de navarros venidos al lugar hacía tres siglos. Esta influencia radical es la que lo llevó a dar sus primeras conferencias y mítines juveniles en euskara, y luego a escribir sus primeros artículos para *Argia* de Donostia en 1921, con sus 25 años, también en euskara.

Después escribiría importantes volúmenes dedicados al estudio crítico de la literatura vasca, y en la revista *Alderdi* y otras de su época colaboró muy intensamente, sobre todo en euskara.

3. Otra de sus dotes personales era su *integridad moral*.

Quiero ilustrarla con un ejemplo que voy a hacer público por primera vez: La policía me expulsó a Iparralde el 19 de octubre de 1973. Tenía en Donibane un

domicilio sin teléfono, y cuando en la mañana del 20 de diciembre llego, como todos los días, a casa de mi compañero de partido Mikel Isasi, me lo encuentro sentado ante el aparato de televisión: la Televisión Española estaba dando las primeras noticias acerca del atentado contra Carrero Blanco que había tenido lugar unas horas antes. Hablé con el Lehendakari por teléfono. Fue un día movido, y en la noche, serían las cuatro de la mañana, llega Mikel alarmado diciéndome que le acababan de venirle a casa unos miembros de ETA, con "pipa" y todo, conminándole a que me citara para estar los dos en el aeropuerto de Parme en Biarritz para el avión de la mañana que nos llevaría a París.

Y para exigir al Lehendakari una rectificación...

Y me lo cuenta.

Nos presentamos en el aeropuerto como a las diez, y ya estaban cinco de ellos: Iñaki Múgica Arregi, entonces máximo responsable, según creo, Txomin Iturbe, Peixoto, un oñatiarra de nombre Mikel y otro. Los saludamos, y me quedo a hablar con ellos en euskara sobre el tiempo, sobre los temas vascos del día, pero sin hacer ninguna referencia concreta al "asunto" que nos había reunido para este viaje.

El "asunto" era el siguiente:

El Lehendakari, respondiendo a las apresuradas preguntas de la prensa después del comunicado dado por ETA, había reaccionado diciendo que "no creía que aquel atentado de muerte lo hubieran ejecutado los vascos", que no era nuestro estilo, algo así. Al enterarse de esta declaración, ETA quería que el señor Leizaola se retractara mediante una nota suya oficial a la prensa de París.

Nosotros ya le habíamos adelantado esto por teléfono, claro.


Aquella mañana se nos hizo muy larga: se iba retrasando la hora de salida del avión, por razones técnicas, y los pasajeros fuimos invitados a comer en el restaurante del aeropuerto, esperando salir en la tarde. Nos sentamos en la misma mesa, y seguimos hablando de todo menos del "asunto".

Cuando llegamos a París, Mikel y yo corrimos a coger el taxi con la esperanza de llegar a tiempo para hablar con el señor Leizaola. Y cuando estábamos en esto nos avisa el secretario de la Delegación Vasca, el señor José María Azpiazu, que ya están los cinco en la recepción. El Lehendakari los recibió en su despacho diciendo que, claro, él no había hecho a la prensa más que un comentario personal, ante lo sorprendente de la noticia, y para defenderlos de una posible falsa acusación. Ellos le exigían ahora que si él los había desautorizado públicamente, tenía que producirse una rectificación también pública mediante una nota redac-

tada por el señor Leizaola diciendo que personas conocidas de ETA le habían llegado para reiterarle la autoría del hecho, y, además, que hiciera una llamada telefónica a *Le Monde* anunciándole la visita de los cinco con la nota.

El Lehendakari, a quien en conciencia le repugnaba entrar en el entramado de esta acción violenta, comprendió la situación política en que se hallaban los jóvenes responsables de una organización, y dándose cuenta también de que no le correspondía a él erigirse en juez de esta situación, redactó y firmó la nota e hizo que el señor Azpiazu, su medio habitual, llamara al diario *Le Monde*.

Así, actuando como creyó era su deber, tanto en la primera circunstancia, que había producido este momento delicado, como en la segunda que hizo que terminara aquel incidente sin más consecuencias, lo vi comportarse siempre con esta prudencia y equilibrio durante el tiempo que estuve a su servicio, hasta 1975.



Unamuno y el vasce
"kontrasaio" gisa argitara eman zuen
1966an Martin Ugaldek, Buenos
Aireseko "Ekin" argitaletxean.

LAS RAZONES PARA LA DESUNIÓN

El Diario Vasco / 1989.09.08

Los vascos hemos encontrado siempre espléndidas razones para justificar la más ruinoso dispersión de fuerzas.

Nuestra historia está llena de estas sinrazones.

Y así nos ha ido, y nos va.

Al enemigo de nuestra pervivencia como pueblo le ha bastado fomentar esta división interna, y a veces dejarnos solos con nuestra incompetencia política, para lograr sus fines. Los fines del centralismo político, y del cultural, que en nuestro caso siempre han ido de la mano, son claros; a pesar de constituir una mayoría suficiente para practicar la política que está en el ideario común, nos ha puesto a depender de limosnas que servirán, en el mejor de los casos, para mantener insuficientes nuestras insuficiencias.

Hasta que, al fin, llegue el tiempo límite en que nuestra recuperación como nacionalidad plena resulte imposible.

El tiempo que perdemos así está jugando contra nosotros.

Y esto puede suponer el final de nuestro pueblo.

Para cualquiera de nosotros personalmente o para cualquiera de nuestros respectivos partidos, un fracaso de esta magnitud tiene una importancia determinada en cuanto a frustración personal o partidista se refiere, pero a ver cuándo nos vamos a dar cuenta los vascos de hoy, responsables del presente de que está tocado el futuro, de la importancia del grito que dio hace más de un siglo un extraño, el geógrafo Elisée Reclus: "Los vascos, un pueblo que se va" (1876), al que con tanto valor y sacrificio reaccionó Sabino de Arana a fines del XIX, y que hoy, al tiempo y sus circunstancias, ya se está yendo de verdad entre nuestras irresponsables arrogancias y altanerías personales o de grupo.

No es la hora de llorar de impotencia, como un compañero que se me confiaba con esta sensibilidad, sino de ilusionar a este pueblo vasco, al que no le hace falta sino una señal generosa para ponerse de nuevo a trabajar con ilusión.

Las pequeñas diferencias de proyecto político o de carácter personal no constituyen en democracia razón suficiente para justificar el cariz de enfrentamiento permanente a que hemos llegado. Hay razones de urgencia política que deben prevalecer sobre cualquier otra. Un gesto práctico de labor coincidente

puede cambiar de rumbo la política nacional vasca. Alguien ha propuesto estos días un acuerdo político para una lista común en las elecciones estatales de fines de octubre; responder a este "protagonismo interesado" con otro del mismo carácter reduciendo el objetivo a la mitad, o con otras respuestas de consecuencia parecida, parecen más interesados en afianzarse en el viejo error fundamental de la división de cercos estériles en lugar del concierto real de las diferencias en la medida mínima de ponerlos a trabajar en colaboración.

El lema de la dispersión permanente no lo va a aceptar el pueblo nacionalista vasco fácilmente.

Nuestro pueblo no está para harakiris.

Vivimos, ciertamente, un momento difícil, pero como muchas veces nuestro pueblo en las horas de crisis profundas, puede crearse uno de flexión hacia una mayor capacidad de concertación de las diferencias; el pueblo vasco no espera un milagro, pero sí un gesto claro de realismo político y de amor a su pueblo.

Por encima de todo lo demás.

EN LA MISMA PIEDRA

El Diario Vasco / 1989.09.20

Al tratar hace unos días en esta misma página de "Las razones para la desunión vasca", decíamos que para justificar el fracaso del desacuerdo recurrimos a menudo los vascos más a justificaciones que a razones verdaderas.

Hemos vuelto de nuevo a tropezar con las excusas.

Se acusa al hombre, y aquí está incluido el político, de ser el animal que tropieza dos veces en la misma piedra. Es, por tanto, de humanos tropezar dos veces, una forma de decir que muchas.

Pero lo que nos interesa aquí es el carácter de esta piedra.

Hablando metafóricamente de las piedras de tropezar, las hay de muchas naturalezas. El diccionario de la lengua está llena de piedras y, sobre todo, de piedras que no son piedras, que no son el pedazo de roca de la corteza terrestre, de origen natural y "generalmente de composición inorgánica", que es la verdadera piedra; porque hoy se llama "piedra" a cualquier arenisca; bien distinta, por cierto, de la "piedra sagrada", del altar, que debe constar de una sola pieza natural, "íntegra y no frágil"; porque también las hay oscilantes, y jaún peores!, porque también las hay preciosas que brillan mucho pero se quiebran como vidrio con sólo dejarla caer.

Tampoco nos referimos a la piedra filosofal del mito de los alquimistas.

El sueño del oro.

Sin soñar tanto, pero el vasco ha estado estos días pendiente de una unión de acción política que sirva mejor los intereses democráticos de nuestro pueblo; no de aquellos ciudadanos vascos que no son nacionalistas vascos y están en su perfecto derecho, sino que tampoco de aquellos que usan de esta tierra como trampolín para saltar a la Corte, como en nuestro país ha ocurrido a menudo, y se les conoce, pero sí los más apegados a este pedazo de tierra y de pueblo y de lengua que buscan su libertad venida a menos por el mucho acoso genocida que ha sufrido; pues estos vascos confiaron en que esta vez sí iba de veras el esfuerzo desinteresado de ceder lo que hiciera falta unos a otros en lo personal y en lo partidista, y, sin embargo, tropezaron en la misma vieja piedra de las fobias personales o de grupo de que está hecha, diría que fabricada, nuestra desunión.

Esta piedra, ¿de qué está hecha?

No somos nadie para juzgar la clase de voluntad de los vascos que distingue a los que quieren a Euzkadi; pero sí ha quedado evidente la decepción del nacionalista vasco con este bache, y patente la ayuda de oxígeno que ha supuesto para aquellos que siendo parte del Gobierno Vasco saben que un día se le pagarán con un Ministerio, con un puesto político, y saben que si se portan, les espera lugares de primera fila nombrados en Madrid para las delegaciones, no tres como antes, sino cuatro, representando aquí al Gobierno Central, su máxima aspiración, y lo sirven con porfía cuando llegan a depender de su criterio la suerte de desazón, o de paz del pueblo que controlan; y van a más los caminos de su desarrollo, y no con la contrapartida de cumplir con el texto del Estatuto legitimado hace diez años, sino arañándole facultades ya reconocidas, pero que se le van anulando, a través de recursos de nula "legalidad" política.

¿Dónde está aquí cada quién?

¿Qué ha hecho falta para que aún nacionalistas de tradición ejemplar hayan comenzado a ceder ante los mandos y las fuerzas delegadas aquí? ¿De qué está hecha la piedra en la que hemos tropezado otra vez los vascos nacionalistas democráticos para dejar de actuar en demócrata, en nacionalista y en vasco en beneficio del país? Pareciera que esta piedra en que ha tropezado parte de este pueblo nacionalista se ha sometido a la política del palo y la zanahoria en que venimos avanzando, pero mal y muy poco, en la presente coyuntura política.

Se está perdiendo mucho de lo ya logrado con el Estatuto.

El pueblo nacionalista vasco debe tener estos hechos en cuenta al votar el 29 de octubre, adelantado, y de prisa, como ha decidido la mayoría del PSOE en Madrid para su ventaja.

JOSEBA ELOSEGI, SU ERAMALEA

Argia / 1990.11.18

Sua, Joseba Elosegik ez zuen Anoetako palkotik sua bakarrik bota; sutan zegoena bera zen!, beraz zen guztia bota zen. Eta ez zuen bere buruari emandako suarekin inor erre eta hil nahi izan. Bera eskaini zen, Gernikako sua sortu zuen generalaren begien aurrean bertan, honek ikus zezan, hau konturatu zedin behin betiko bere gerrak sortu zuen sute, infernu!, ikaragarri hark herri oso bat, gorputz eta arima, erre zuela.

Gernika osoa suntsitu zuela.

Hala dio *Quiero morir por algo*, bere testamentu bezala utzi zuen liburuaren sarreran:

Gernikako sua eraman nahi dut, haren erretzailearen begietaraino.

Hau zen mezua.

Gudari gogorra izan zen Joseba Elosegi dagoeneko, hain gazte eta inoxente zela, atzetik eta abisatu gabe ("arriba las manos" esaten zuten gutxienez zine-man...) gerra piztu ziotenean; halere, gogor eraso zion gaztetxo hark mendian arma handiz jantzita eraso, eta bere defentsarako tiro egin behar izan zuenean.

Ez zuen Josebak inoiz, ezta ezuste kriminal hartan ere, atzetik inor hil.

Gerrako gizonak seinalea ematen dutenean, badirudi debekaldia berez altxatzen dela, eta edonork, edonun, edozer bota dezakela!, dena libre dela...: Nafarroako sakanetan, zuloak betetzeko; Arabako lautadetan, haizea bezain libre ehiza egiteko; Gipuzkoako mendi baztar eta kanposantuetan ere pekatua libre; eta Bizkaian, sartu zirenean, lehen bonbak bezala orain tiroak, gorri, eta urdin, denak hemen tiro; tiro Bilboko kalebaztarretan, ibaiertzetan, hegorik gabeko gizonak aideko txoriak bezala boteaz.

Hau zen eta gerra!

Joseba Elosegik ere izan zuen, bada, heriotza ez beste guztiak pasa eta gero, 1970an Donostiako frontoirako bere sua prestatzeko parada. Orain, gainera, bengantzarako orduak denak joak. Hor zuen Josebak orain gorrotozko bentaja uher hori prest. Nahi izan balu, barruak hori agindu balio, hainbeste gerra sufritutako gure herriaren barruak izan zezakeen bada, Anoetako frontoian zegoen su emaille Nagusia, Txit Gorena, berarekin batera akabatzeko aukera...

Baina Molak eta Francok gerra, makurkeriaz, bere hitza janez, prestatu bazuten, Joseba Elosegik zer egin zuen gogora ekartzeak lagunduko digu bere barrua neurtzen:

Bat, ez zuen inor hil nahi. Bi, sinesle zenez gero, bere buruaz beste egitea debekatuta zeukan: "Gogoan dut –dio– sobietarrak Chekoeslobakian sartzerakoan bere buruari su eman zion txeko hartaz Aita Sainduak, Paulo VI.ak, zer esan zuen: hau ez zela suizidatu, baizik eta kausa justu batengatik hil zela. Nire kasua justua deritzat. Ez du seguraski haren oihartzunik izango. Baina esan nahi dut, idealista bat naizela, iluso bat. Halere, ez dudala damurik, eta mundu honetatik destinoak egin didan bidetik joan nahi dudala".

Hara nola, gero inork ezagutzen ez duen bidetik Joseba Elosegik ez dion inori su eman, ez dion inoiz berez tirorik bota; eta orduan hil ez zenez gero, orain, eta orain ere nola bere kontzientziarekin pakean, gizonki, hil zaigun.



Andoingo Omenaldia. Martin Ugalde, Iñaki Uria eta Joan Mari Torrealdairekin (1997).

ELKARTUKO BAGINA

Euskaldunon Egunkaria / 1990.12.30

Izenburuko hitzak ez dira nereak; Aita Patxi Altunari entzun nizkion 21ean Andoaingo udaletxean eman zuen hitzaldi ederrean. Larramendik orain ia hiru mende esandakoak dira: "Elkartuko bagina"...

Gaurko ere balio dute.

Eta zergatik ez ote gara euskaldunak elkartzten, beharrean aurkitzen garenean.

Argitu beharra dago, batetik, "elkartu" ez dela "batu". Batasuna, gure herrian zaila bada, bestetan ere hala da; zilegi da gizakien artean pertsona errespetatzea, bakoitzaren aburuak aintzakotzat hartzea. "Zenbat buru, hainbat aburu", gure esaera zaharretan geratu bada, ez da alferretan finkatu. Baina, bestalde, Larramendik erabili zuen aditza: "elkartu", zergatik ez gara elkartzten euskaldunok herriko kinka larriek inguratu eta estutzen gaituztenean?

Elkartu esan nahi du, bakoitzak beretik zerbait utzi, garrantzi nagusia duen beste zerbait hartu, eta estuasunak eskatzen duen behinbehineko erdibidea hartu, arazo larri bat konpontzeko.

Gauza ote gara honetarako?

Joera honen ordeztu, gehienetan pertsonalkeria nagusitzen zaigu!

Nahitaezkoak gertatzen dira *keriak* gure artean; aitormen mingarria da; baina zergatik Herriak larriki eskatzen duenean ez gara gutako bakoitza gauza grinaren gaineratik burua nagusitzen ahalegindu eta gero, ez lehenago, gure barruko zezena adarretatik hartu eta gero, gero!, bihotzari leku eragilea eta zabala emateko.

Ez edozertarako, aitaren etxea defendatzeko baino!

Herri zanpatua beste norbaitena den bezala, herri askea denon etxea bihurtzen baita.

Ez dugu Euskal Herriaren askatasuna nahiko estimatzen nonbait!

Gaur, esate baterako, European sartzeko kinka bereziaren bezpera bizi dugu. Gaia zehaztu genezake. Gero alderdi artekoak oztokatzen dituenak kamuztu, eta Euskal Herriak sakonean duen ikuspegi bateratsu bera, maitasun bera, gure herria bizirik eta tinko senti araziko duen oinarria finkatzen ahalegindu. Batetik, gure herria beti zanpatu duten Estatuen magaletik irten. Ez harrokeriarik, ez Estatuen errealitateaz ahaztuz, baina bestalde, gauza guztien gaineratik Euskadiri dagokion duintasuna eta jarrera praktikoa finkatzen ahaleginduz.

Ezin dugu arazoa berriz ere gure askatasunaren arerio direnen altzoan utzi.

Irakurri ditut nire ikuspegi honekin bat ez datozen asmo batzu; eta fede onez idatziak, badakit, baina aldi berean pentsatuz Estatu ahaltsu hauek emango dizkiguten erremintak ez direla inoiz gure berjabetasunerako egokiak izango. Nork zainduko du orduan zaindaria?! Orain arte, gure Estatutuaren zaindarekin lotu gaituenak balaztarenak gehiago egin du azeleradorearenak baino. Ikus Gernikako Estatutoarekin zer jarrera duten Madrilen: hamar urtean haiek bere legez agindutakoa bera ere ez dute bete.

Badirudi, bestalde, lortu ditugun eskubide zatiak ere hemengo morroi sozialistei zor dizkiegula, hauen esku zabalei. Euskararekin gauza bera: gure gaztelera-ganako diskriminazioak zaintzen badute nahiko lan! Zer jokotan sartu gara? ... Europaz ari ginen: nire ustez, sarreratik joan behar dugu herri bezala tinko Europako beste herrien kuraia helburu dugula.

Baina nola ibiliko gara Sabino Arana eta Jose Antonio Aguirreren izpiritutik hurbilago, abertzaleok osatutako Jauriaritza bezala han aurpegi emanda, ala Espainiako Gobernuaren monagilo bezala?

Bai, gogorragoa da zuzeneko Herri-bidea, noski.

Baina duintasun handiagoa du herriko alderdien elkarteak, eta luzaroan, etekin hobea.

Zentzu hau eman diot Larramendik hil aurretik eskatzen zuen euskaldunen arteko elkartasunari.

EUSKAL POLITIKAGINTZA, ATZO ETA GAUR

Euskadi Irratia, 1991

Nire ez zitzaidan sekula nire idazgaietan honelako bat berez etorriko. Politikagintzaren beharra askotan sumatu dut gure herrian, baina ez dut honetarako gurean izan dugun tradizioa ikertzeko aukera eta asmo zuzenik ere izan.

Nafarroatik hasi behar da ikerketa hau; hau da gure enbor nagusia, eta erre-suma honen ondoren Gaztela, Frantzia eta Ingalaterrako administralgoen azpian egon gara, eta bitarte honetan gure herriko paperak, denak erdaretan idatziak, ez dute zabalkunde handirik izan. Baditugu gure askatasuna edo honen aldeko borroka adierazten dituzten Fuero idatziak, eta baita zabalkunde gutxiago izan duten agiri asko, gehienak orain gutxi arte lo egon direnak edo eduki ditugunak; orain hasiak dira ikerlariak zenbait bide berri irekitzen, agiriak argitaratzen ere bai, baina denbora luzea beharko dugu horien hezur nagusiak eta mamiak bere tokian ikusteko.

Gutxi idatzi du euskaldunak historian zehar; besten eskribidore bezala iaioak agertzen bagara ere, geureak geureak kontatzeko joera txikia izan dugu.

Oraindik bizi gara, halere, hizkuntza eta gutzi.

Nork esango?

Gaurko lantxo honen asmoa "Euskadi Irratia"rena izan da. Jakin nahi dute, alegia, neronek ezagutu ditudan gerra garaiko euskal politikagintzatik gaurkora zein aldaketa sumatzen ditudan, funtsezko diferentziarik badagoen.

Hau, gaur egun, 1991an, sufritzen ari garen sakabanatze, dispertsio, honen minak eraginda.

Hogei minutuko (!) elkarrizketa.

Puntu batzu jarri nahi ditut, oso laburki:

Nik nire esperientzia pertsonalaz hitzegingo dut, edo garaiko nire impresioez, ez besterik.

1. Gerraurrekoa; gerra eta gerrondokoa (aginte mugatu eta amateurrak)

a) gerraurrekoa, etxetik bizi ahal izan nuen udal-administralgoaren islada, Estatutoaren aldeko borroka eta Diputazioetan ezarri zizkiguten gestorak. Dena zen amateurrea, noski; zinegotziek ez zuten ezer kobratzen, eta herriko obretan sartuta ere ibiltzen ziren; dirua kostatzen zitzairen.

b) Estatutorako kanpainen eta hauteskundeetan, gehienak berak ordaintzen zituzten bidaiak; goi-mailakoentzat egongo zen aldertietako aurrekontu zuhurren bat bidaiak eta otorduentzat.

d) Gerran bazegoen aurrekonturik, noski, armak erosteko (Lezo!), gudariak jaten emateko eta zerbait ordaintzeko, gainontzeko enplegatuei ordaintzeko. Herri osoa zegoen gerrarako lanean, frentean edo gartzelan ere, bostgarren kolumna non gordeko genuen bada!

2. Gerran ondo erakutsi bazuen Eusko Jaurlaritzak une zail eta trakets haiek administratzeko gaitasuna, gerrondoan izan zen erbesteratuen, gerran zaurituen (Larresoro?), gurasoetatik aparte geratu ziren haurren ardura paregabea. Ni neroni nintzen orduan Donibane Garaiko "La Citadelle"n eta gero Donibane Lohizungo eskola batean alemanak 1940an sartu arte jaso, janariz, jantziz, maisuz ardurara jaso nuenetako bat.

Gerra ondo administratzeaz gain, gerrondoan ere halaxe izen zen; esenplua izan da Eusko Jaurlaritzak egindakoa.

Hor erakutsi zuten, ez bakarrik ondo administratzeko gaitasun eta seriotasun handia, baita ere oneztasuna, zintzotasuna. Urte asko pasa dira harrez gero, eta laudario, goraipamen, asko entzun eta irakurri ditut, bertako eta atzerrikoengandik ere. Gure arerioengandik ere ez dute garai hartan Euskadiri zerbitu zietenengandik ere geure agintarien zintzotasunaren aurka funtsezko ezer entzun edo irakurri.

Erbestean eta klandestinitatean Eusko Jaurlaritzak izan duen portaera berdina izan da.

Gure politikoek ez dute, ez administralgo urriaren aldetik, ezta jokabide politikoaren aldetik begiratuta ere, portaera kritikagarri lotsagaberik jasan. Hutsik gabekorik ez da. Baina, herriaren aurrean eta atzeritarren aurrean duintasun handia aitortu zaie.

Geroztik sortutako Autonomia berria hauteskunde bidez lortu eta egin diren gobernuak ere alderdi honetatik ez dute bere administralgoko zintzotasunaren aurka funtsezko ezer jasan behar izan. Lehendakari bakoitzak egindako politikaz, iritziak gehiago kontrajarri dira, azken urte hauetako politikagintza bizia luzeagoa, aukera zailagoetan eta mundu zailagoan sortu direlako.

Baina noan politika bata besteengandik bereizten duen faktore bat aipatzea, eta hau izango da nire aportazio bakarra, seguru asko: *Politika profesionaltzen joan da.*

Honekin esan nahi dut, Frankismoaren ondotik sortu den demokrazia forma-lean *dirua* sartu dela, jarrai! Eta honek gose berri bat, diru-gosea; eta *agintea*, eta honek, aginte-gosea.

Badakigu gizakia honela dela, Testamentu Zaharretik honeraino, baina euskaldunok uste genuen, beste gauza askotan bezala, hau ez zela geure herrian honela gertatuko. Eta gertatu egin da.

Eta harrিতuta gaude.

Euskal herriko administrazioetan, lekuz-lekukoak, ez dira Espainiako eta Frantziakoetan agertu diren eskandaluak, behar bada txikiagoak garelako; halere, eskandalu hauek baino agerioagoak dira, nabarmenago eta eskandaligarriagoak, agian, diru eta aginte honen inguruan sortu diren gorroto nagusi batzu, eta honen islada gisa, inguruan beste txikiago baina askoz ere gehiago sortu diren ikusiezinak. Pedagogi negargari hau goitik behera dator eta pertsonalkeriaz kargatuak.

Hau ez da berria gure herrian, segurazki, baina gaurko izur gaizto honen zirkulazioa arinagoa da, argia bezalako abiaduraz zabaltzen eta jotzen baitute gure sensibilitatea, sortzen dira azkar eraso kolektiboak, manifestazioak eta ustekabe-ko beste erasoak.

Nire ustez, irudiaren eta gorrotoaren abiadura hau da berria.

Bestalde, diruak sortutako izurrak eta aginteak sortutako bestea, batzutan elkarrekin doazenak, geure Euskal Herri txiki maite hau elektrizitatez, argindarrez,



Andoingo Omenaldia. "Seme kutun" izendapena jasotzen du Martinek Andoingo alkatearen eskutik (1997).



Andoaingo Omenaldia. Martin Ugaldek bere oroirakria inauguratzen du Udaletzeko aretoan (1997).

kargatua dago. Ez dakit noraino joan gaitzen bide honetatik, batez ere agintekeria honek eskuetan armak dituzten honetan, eta gure artean inor gutxi arrisku honetan pentsatu badute, joan daiteke gorroto bidezko argindar honen bitartez geure artekoak, orain gizalegerik gabeko ekintzak direnak, bihar mehatxuak eta etzi armak jokoan jarriko ote dituen beldur larri hau menderatzeko behar dugun erantzunpidea duenak garaiz gorroto bide hauen iturriak itxiko dituzten.

Laburtzeko:

Lehen, tentazio bide gutxiago zegoen: amateurak dirua eta agintea hain ernegarri ez zelako; Franco-ren diktaduraren aurrean euskaldunok askatasun bila elkarrekin egotea errazago zelako.

Eta gizonak berak ere nahiko bereziak zirela aitortu behar dugu, garai hartako beste herrietako batzu baino zuzenago eta garbiago jokatu zutelako, historiari kontatzen digun bezala.

Gaur, diruak eta aginteak geure mundu disparatu honetan duten eragina dela eta, zailagoa da; lehengo fronte bakarra gaur pareta askotako frontea suertatu da, jarrera azkar eta zailak ari dira sortzen, errealitatea bera askoz ere zailagoa; lehen, irauteko, geldi egotea nahikoa zenean, eta ez zen erraza; gaur oso zaila da irautea. Tableroan dauden fitxa guztien mugimendu azkarren mende gaude.

Baina desafioa, lehengo gizonen ahal zuten guztia egiteko gai izan baziren. Gaurkoek gaurko desafioei erresponsabilidade berarekin jokatzeko zilegi da.

EUSKAL KOHERENTZIA JAURLARITZAN

Argia / 1991.02.17

Aukera honek lasaitu du Euskal Herria.

Eusko Jaurlaritzak, Autonomiaren lorpenetan sartuta dauden hiru lurraldeak, bi aukera nabarmen zituen: bat, joan diren lau urteko gobernua errepikatu, PSO-Eko PS barruan duela, edo, bi, abertzaleak diren EAJ/PNV, EA eta EEren artean burutu gobernua.

Koherentzia eta etika politikoa zeuden jokoan.

Orain lau urte gertatutakoa, ulerterraza da: EAJk ez zuen, zatiketa ondoren, PSOE-PSrekin joateko beste aukerarik, eta lortu zuen behintzat Lehendakaritza abertzalea gordetzea. Gaur egun, ordea, EAJk boto bidez lortu duen nagusitasunarekin PSOE-PSrekin beste lau urterako Jaurlaritza berretzea, golpe handia izango zen eusko abertzaletasunarentzat.

Etorkizun zaila izan zezakeen EAJko hori egin izan balu.

EAJ-ko basea, abertzalea da.

Beraz, orain Jaurlaritza abertzale bat, PSOE-PSko partaide nazionalista espainolarekin egitea, ez zen zilegi aukera koherentea. Bestalde, EAJ, EA eta EEk elkar hartuta frentista ez den Jaurlaritza Abertzale bat sortzea zen zentzuzkoa. Hemen kontuan eduki behar da, eta eskertu, bai Garaikoetxea eta baita Arzallusek ere gauzak erantzukizun handiz egin dituztela.

Egia da hemen, HB, abertzalea, baina Estatuto legalaren kritikoa erradikala, kanpoan geratu dela.

Nik itzaropena badut, indar abertzale honek, gauza askotatik pasa eta gero, egingo duela ahalegin handi bat gaur ditugun instituzioetan partaide oso bezala sartu eta leialki eraikuntza zabalean lanean jartzeko, eta hauen bitartez ETAk datozen bi urte hauetan herriaganako erantzunkizunarekin pake egoki eta iraunkorra lortzeko.

Datozen lau urteetan Euskal Herriak: batetik, Ifarraldeak Estatutu bat bereganatuz; bestetik, Nafarroarekin hurbiltasun berezi bat lortuz, eta gero European gure Autodeterminazio justu bat demokratikoki gureganatzeko egiazko borondate politikoa jarriaz.

Hau ametsa izango da, agian, baina ez da modelo txarra egiatan pentsatzen hasteko.

GORROTATZEN DUGUN GERRA

El Mundo del País Vasco / 1991.06.07

Gure hauteskundeetako txapligu hotsek egin ez zituzten hilak eragin ditu gero euskal jarrera erradikal baten izenean jarritako lehegailu ikaragarri batek Catalunya Vic hirian, euskal frentetik urrun, eta hauetako batzu haurrak izateak handitzen du krimena. Errudunak direlakoan berehala akabatu dituzte tiroz bi gazte. Urteak daramatzagu dialektika itsu honetan. Hitzen ordeztiroak! Nondik nora datorren izugarriketia hau? Galdera erraza da; erantzuna, ez hainbeste. Gaurko indarkeria ez da gaur sortua; Francoren altxamenduraren ondorio da. ETA, giza eskubide guztien eta bereziki gure herriaren zanpatzaile izan zen diktadura gupidagaitz eta amaiezinari erantzuteko asmotan sortu zen 1959an, gerra amaitu eta 20 urte geroago!, klandestinitatean zegoen alderdi abertzale batetik. Geroztik ETAREN borroka nondik nora ibili den ezaguna da. Espainia osoa, eta mundua ere, bere alde zegoen Burgoseko judizioan, 1970an. Honek ez duela gaurko hilketa kriminala zuzitzen?; ez, baina ez ditugu besteak ahaztuko.

ETA aspaldi dabil pake eske. Beharrea aurkitzen delako? Egia, seguraski. Baina zenbat heriotz gehiago kontatu behar dira erabaki ausart baten bidez gerra honen amaiera ikusteko! Ahulduak ikusten dituztelako, pakebidea alde batera uztea zuzena da?, ala beste mendeku berri baten nahikari beltza? Amedo berak esan du: hemendik irteteko poliziazko eta politikazko bideak, biak, beharrezko direla. Presa dugu denok gorrotozko bide honetatik irten eta garantia duen mahai batean egiazko pakea lortzeko. Orduan irabazi dezake norbaitek Pakearen Nobel Saria.

MATEMATIKAZKO ABERTZALETASUNA

Euskaldunon Egunkaria / 1991.06.09

Matematika, baliotsua da zientzi honi dagozkion alorretan, baina ez bestetan. Ezaguna da 3 eta 4 Zazpi direla arrautzak kontatzean, baina buru-bihotzeko euskal politikagintzan, bakar Bat. Sabin Aranek Euskal Herriaren arazo nagusia erabiltzeko matematikari dagozkion datuak erabili izan bazituen ez zen Euzkadiko bihotzera inoiz iritsiko.

Bizkaian geratuko zen, agian, eta karlistak izango ginen oraindik.

Ni ez nator karlisten aurka, aitonen kontra joatea bezala izango litzatekeelako. Begoz XIX mendean bake onean. Baina XXIaren bezperan (Sabin, Agirre eta Ajuriagerraren esturak tarteko) geure arerio nagusia non dagoen ez bageneki bezala kokatzen badugu, gureak osorik egin du, ez dugu gehiago ezertan sinetsiko. Estrategia eta antzeko beste arteak kontuan hartzea legezkoa da; bideak, politikan ere, gizonak ibiltzekoak dira; baina Jaurilaritza osatu berria den moduan jokatzeko gauza izan eta gero, euskaldunak elkar hartzeko bidea jarriak garen une honetan berriz banatzeko bidean sartzea bezala da negoziatorako azeriak eta oilas-koak oilategi berean jartzea, euskararen onerako asmotan ikastola sortu dutenek beronekin akabatu nahi dutenekin lanerako ekipo bat egitea.

Madriilen agintzen dutenekin elkartzeak indarra badakar, nor lurperatzeko? Geure folkloreko "krixpitiin-kraxpitiinak" "arrosa krabelinak" erritmo hutsa!, politika zorroztean sartu nahi izatea, 1839ko Legearen baitan ongi sentitzea, eta Nafarroako bidean eta Anoetako izpirituan berriz alferrik sinesten jartzea bezala izango litzateke.

Errimoaren matematikak, bai noski, ez besterik.

DEMOKRAZIAREN IZPIRITUA

El Mundo del País Vasco / 1991.06.14

Idazten ari naizen honetan oraindik ez da itunei buruz erabakirik hartu: hala ere aurrera nezake gogoeta hau.

Orain arte, egiazko demokrazia adjetiborik gabe agertzen dena dela azpimarratu izan dugu euskaldunok frankismoaren bota azpitik, zeren eta honen "demokrazia organikoa", ez baitzen demokrazia; "demokrazia popularra" ez den modu berean. Gauza berdintsua gertatzen da beste kasu batzuetan ere. Gogoan dut Hegoamerikako "Social-cristianismo"aren giroan zebiltzen alderdiei buruz Agirre Lehendakariak esaten zuena: kristautasunari alderdi "soziala" eranstea ez zela zilegi; "Kristautasun soziala" hitza ez zitzaion gustatzen: kristautasunak sozialtasuna bere sustraian zeramala uste zuelako. Gaur, hauteskunde ondorengo sesioetan gabiltzala, zalantzan jarri dituzte demokraziaren eusgarri nagusiak dituen gehiengoa (maioria) eta gutxiengoarenganako (minoría) errespetua, biak batera; eta batzuei komeni zaiotelako darabilzkite arau honen ordean herriaren gobernabilitatea, eta herriaganako duten erresponsabilitatea. Erantzupide honen izpiritua sentitzen dute, diotenez, eta beran kontuan harturik erabakiko omen dute botoekin erosoan iruditzen zaien kalkulabidea. Makiabelokeria bat iruditzen zait! Gobernabilitatearen izenean asmo paternalista eta probidentzial kutsua duen honek gure herriko demokraziaren oinarriak kutsatu ditzazke. Beste aldetik, Ardanza Lehendakariak eutsi egin dio hirukoitza den Eusko Jaurlaritzari, agindu bezala; euskaltzaletasunaren bidean doalako, noski. Egiazko meritua egiteko nahikoa da batzutan gizonki jokatzeko.

BESTE BIOLENTZIA

El Mundo del País Vasco / 1991.06.21

Gure artean ere bada berezko den izurrik. Lehen bestenak usnatzen genituen berehala, askotan makurki, eta egiatan geuri zegozkigunak ez Auzokoari iratxekitzeko errazkaria hau ez da geurea bakarrik baina geurea ere badela aitortu behar.

Azken hauteskundetako izurritea lekuko.

Bi urte barru osatuko da Sabin Aranek "Larrazabal" eko afariarekin (1893) Aberriaren aldeko ekintza sortu zuela; bere jarraitzaileok ez genuen gaur ofizialki berea den Alderdiagandik honelakorik espero: Sabinen arnasa eksklusiban dutela aldarrikatzen dutenek alderdi espainolekin bat egin dute, gainontzeko alderdi abertzaleen aurka, anaia anaiaren kontra; hauteskunde hauetan erabili duen alkimia zoroaren ondoren, boto garbien poderioz irabazi duten partidu euskaldun batzuk galdu egin dute, aukeratuak izan diren gizonak ez dira karguetarako izendatuak izan; aitzitik, atzean geratutako espainolak izan dira nagusitu direnak eta Gipuzkoako Diputazio eta udaletan fidantza guztiaz jarriak. Desordenu suntsigarri honek hautsi du Euskal Herriak oraindik Politikagandik espero zuena, eta herri bezala geure kabuz aurrera irteteko justiziaz genuen fedea.

Begira zeren truke: Sartu digute, Madrileko PSOEren prepotentzia eta usteleria eta PPrent mutur beltzarekin (ezker-eskuineko nazionalista espainolakin) berauek bizi duten izurri lotsagabea Aitaren Etxeko sukalde eta komunik ezkulturaino.

Hemendik aurrera botoen orde, zer? Egin duten beste hau ere biolentzia baita!!

RESIDUOS NACIONALISTAS

El Diario Vasco / 1991.07.11



Euskaldunon Egunkaria-ren Akziodunen Batzarra. Mahaian, ezkerretik hasita, Txema Auzmendi, Joxemi Zumalabe, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdai eta Joseba Jaka (1991).

He leído "Las razones residuales del viejo nacionalismo" que expone el historiador José Luis Orella Unzue en su artículo del 2 de julio en *El Diario Vasco*; se trata de una reflexión honda y perspicaz, como la que trasciende toda su obra. En esta ocasión periodística parte de los nacionalismos más próximos a nosotros en la geografía y la historia para terminar señalando a los vascos sus conclusiones de cara a la cita política de la Europa unida.

Efectivamente, los nacionalistas tienen razones que les son comunes, lo que, dicho de otro modo, significa que el nacionalismo histórico se ha ido reflejando de forma particular en el nacionalismo inglés, español, vasco, portugués, gallego y catalán que él cita, en coyunturas muy diversas, hasta de signo opuesto. Resulta clarificador valorar un aspecto radical del fenómeno; el nacionalismo coactivo de los Estados difiere esencialmente del que defiende de la imposición; así como

la aún reciente fiesta de la raza española, o la lengua "del Imperio" que dice Nebrija a fines del siglo XV frente a América, son de signo opuesto a la defensiva del vasco luchando contra la asimilación; como la historia que enseñaba la Francia colonial en las escuelas de Argelia; "nos ancêtres les gaullois" (nuestros antepasados los galos) entraña un sentido muy distinto al practicado por los nacionalistas argelinos luchando por su identidad étnica y cultural.

Se trata del mismo fenómeno en función de una moral opuesta.

Es cierto que por exigencias del desarrollo, y digamos también del progreso, estamos abocados a la unidad económica europea y la adopción de medidas comunes de desarrollo que resultan ser políticas, y que los rasgos de identidad de los pueblos que podrán sobrevivir serán pocos. Ya se sabe que en el curso de la evolución siempre se producen unos desgastes, por una parte, y unas adherencias por otra, y si son de confrontación, el inevitable proceso de asimilación a favor de los grandes. Esto es evidente. Pero, esta unidad europea, ¿en qué dirección, con qué módulos y en busca de qué resultados vamos a dar juntos estos pasos? Esperamos que en la libertad, incluida la de las minorías. El Estado, fruto de las violencias, ¿va a seguir imponiendo la uniformidad a la vieja manera de la "una y grande" o la lucha de clases? Se van a cometer los mismos errores que aquellos en que incurrieron los grandes Estados que han descuartizado Europa muchas veces "a mayor gloria" de los grandes ejércitos y las ideologías totalitarias que han convertido sus dominios en unos Estados carceleros que se han agrietado demasiado tarde para salvar de la tortura, el olvido y la muerte de muchos millones de europeos. ¿Va a hacer Europa en casa lo que hizo en Africa?

Entonces, ¿no hemos aprendido nada?

También se argumenta, no con la malicia explícita, sino en la inocente fuerza natural de los grandes (¡qué se le va a hacer, somos grandes, y ustedes no!) para descartar a los pequeños. Sin embargo, yo creo, acaso ingenuamente, en el proyecto europeo que promovieron los utópicos: Schuman, Bidault y Pezet conviviendo después de la guerra mundial con De Gasperi y Adenauer, junto con belgas y holandeses, y vascos como Aguirre, Landaburu, Irujo; tener fe en Europa, como creía el presidente Aguirre, no significa renunciar a la fe en el hombre, en la persona y en los pueblos. Claro que tendremos que ir abandonando todos en el camino muchas cosas que amamos a través de esta evolución que se impone para construir juntos algo capaz de enfrentarse a los muchos desafíos que se le están planteando al hombre. Pero quiero creer que los principios que se anuncian aflo- ran a partir de la noción de libertad que está en los principios mismos de este pro-

ceso, en el que no sólo las grandes culturas, las grandes economías, las lenguas de difusión universal se preparan a conservar lo suyo, sino también los pequeños; que los juicios de medida no estarán en las intolerancias nacionalistas coactivos de los Estados, sino en la mente europea de un orden nuevo y más abierto, menos conchudo y revanchista.

En esta justicia nueva creo.

Y creo, acaso por necesidad, que no significa partir de cero, sino del derecho natural a la vida y al respeto mutuo. Sobre los tres campos que distingue bien el señor Orella Unzue: "la autonomía política compartida en Europa con el nombre que sea; la voluntad popular, que no se puede coartar, porque en algo básico se tiene que articular la democracia; la lengua, con medios para su desarrollo según esa voluntad respetable de los pueblos; hablando todos la propia lengua y una más de comunicación, por lo menos; en el respeto de sus funciones mínimas vitales dentro de cada territorio, con tribunales plurales en cultura.

Todos entran en objetivos europeos comunes cada vez más amplios, y el tiempo de la libertad dirá la manera en que irán reduciéndose las diferencias ("las razones residuales"), y sumándonos un poco más a la parcela común que reconocerán nuestros biznietos como suya sin violencia subrepticia. Contra esta ley de vida no estoy, no puedo estar; pero no creo tampoco poder empezar a prejuizar desde hoy qué diferencias van a prevalecer mirando a través del prisma de las prepotencias actuales.

Coincido con el señor Orella Unzue plenamente: los ñacinos de turno ya están en camino de descafeinar por su cuenta a nuestro pueblo, pero confío en que Euskal Herria sabrá reaccionar para defender su derecho a existir de manera defensiva, pero aguerrida, luchando contra la violencia centralista que ha logrado prosperar aquí a través de los Quisling circunstanciales con que jugó la Alemania nazi en la Europa que quiso fabricar a espaldas del sentimiento de libertad que anidan los pueblos de Europa.

En cuanto a su conclusión, efectivamente, su análisis es pesimista. Nace, creo yo, del juicio acerca de lo que puede o debe de hecho va a ocurrir, prejuizar con los ojos y la mente de la civilización de los Estados de hoy para tan largo me parece demasiado. Estoy seguro de su sinceridad y acaso su visión se acerque más a la verdad razonable; es de agradecer ese vuelco del alma del historiador pero el poeta que es de algún modo el narrador que soy yo, advierte que el papel de los Estados está comenzando a desvirtuarse y que los pueblos, quedan para formar la Europa que necesitamos.

Mi esquema es sencillo: no hay internacionalidad sin nación, no hay nación sin pueblo, ni pueblo sin el ser humano cuya cibernética interior precede a la cibernética electrónica más desarrollada. Y confío que esta lección del desmoronamiento del imperio mayor de Europa en nuestros días ha de pesar con el escarmiento, en el futuro que ya es mañana.

La utopía de la convivencia plural es posible, hay que sembrarla, porque también la esperanza y la desesperación se siembra.

GUY HÉRAUD

El Mundo del País Vasco / 1991.12.20

Guy Héraud jauna aspaldidanik ezagutzen eta estimatzen dugu euskaldunok. Ez da, beraz, harritzekoa Miarritzera hitzaldi bat ematera etortzea, eta bertan (abenduak 5) oihu hau botatzea: "Autodeterminazioarik gabe ez dago demokraziarik". Europako etni eta hizkuntzez 1946ez gero idazten ari den jurista eta Unibertsitateko irakasle ezaguna da; "politikan" sartu gabe geratu izan balitz, bizimodu eroso eta oparoa izango zen profesionala; baina Europako herrien federakuntzari eskaini dizkio bere jakituri eta arnasak azken hogeita hamabost urte hauetan. Euskal Herriaren pareko arazo historiko batzu izan dituen Alsazian jaio zen, eta berearekin batera geure herria ere gogoz aipatu du Europako federalismoaren predikuan. Idatzi ditu frantsesez: Manu juridikoa eta jatorrizko ahalmena (1946), Etnien Europa (1963), Zer da etnismoa? (1967), Federazioaren hastapenak eta Federazio Europarra (1968), Europako herri eta hizkuntzak (1968). Azken liburu honen eskaintzan dago, hain zuzen, Guy Héraud-en asmoren muina; Federico Mistral-ek behin idatzitakoa da: "Herri bat buruz behera esklabutasunean erorita ere bere hizkuntzari eusten badio, gorde du esklabutzaren kateetatik libratuko duen gilitza". Miarritzen udaletxeko areto batean nazioarteko zuzenbidean irakasle denak emandako hitzaldian argi esan zuen: Estatua, indarkeriaren fruitua dela, eta gaur herrien jatorrizko eskubideen ginetik Europako mendebalean lege gaiztoz gauzak egiten badira, laster etorriko da, orain ekialdean gertatu den bezala, herrien askatasun eguzkia gaingidituko den eguna. Ez genioke geure seme ta bilobei gerra gaiztorik heredentzian utzi nahi; hobe dugu Europako mendebalean gizonei eta herriei dagozkien demokraziaren oinarriak gaurdanik jarriak utzi.

PROBINTZIALISMOA

El Mundo del País Vasco / 1992

Gure herria Karlismora eramán nahian dabilta. Hasiak dira Sabin Aranak irekitako askatasuna Probintzialismora itzultzeko asmotan. Euskal Herriko galdi eder izan diren kurpil eta ballesta, gaurko kamioetako abiadura izan daitezén. Arerioak hainbeste gorrotatutako "Euskotarren aberria Euskadi da" utzi eta kalkulo berriak egiten. Bere garaiko karlismoaren fijazio nostalgiko hura berreskuratu nahian jartzen hasiak dira, ez alferrik, atzerako bideak ez baitira gaur ibilgarriak. Venezuelako krioloak badute desegokitasun hau adierazteko gai den esaera jakintsu bat: "Chivo que se devuerve, se esnuca", itzultzen den akerrak garondoa haustatu du Karlismotik Abertzaletasunera egin zen bide ausartak, kuraia, adimena eta kemen handiak eskatu zituen; gerorako errazkeriarik ez zuen utzi, zailtasuna eta sakrifizioa baizik, eta egindakoak egin eta gero arerio itsuaren aurrean errespetagarritzen hasi gara. Eta hau Sabinen Espainiako deskolonizazio bezala, une historikoa geure zentzuan joaten hasi den honetan bertan. Orain "Euskara da euskaldunen hizkuntza" denek ulertzen duten garaian hasi da sortzen artean, eta batez ere erantzunkizun handiena duen taldearen barruan, hizkuntzaganako zabarkeria, utzikeria, politikaganako probintzialismo eta laxismorik negargarriena. Gure etxeko altxorak geure arteko nori eta zenbat tokatzen zaion kalkuloak egiten hasiak gara, gure herriko kanpoan utzia, desheredatuta, salduta! Hau da gaur gure herri desorientatu honetan gazteak ikusten eta ikasten hasi direna. Indarkeria dela kausa, diote. Ez dugu indarkeriarik nahi inondik, etxetik gutxiago. Baina ezta Euskal Herriaren saldukeri eta likidaziorik ere. Karlismoa amaitzen ari zenean, nire haurtzaroan bertan, abertzaletasunaren gainezkakoa gazteen eskuetan egon zen. Halaxe izan ginen gauza gerra gaiztoari aurre egiteko. Gaur ere, gure herriko gaztedia ez da probintzialismo baten atzetik abiatuko, etorkizunaren, herriaren burujabetzaren bila baizik.

POLITIKAREN ZULO BELTZAK

El Mundo del País Vasco / 1992.01.17

"Politika"ren magia devaluatzen ari zaigu. Denbora bateko zero urdinetan ozono faltak eta izartegian zulo beltzak deskubritzen ari garen moduan hasi gara soak ere sitsak joak daudela konturatzen, zeren eta gero eta gehiagok gutxiago balio digu behar duguna eskuratzeko.

Gizakiaren mundua porrot egiten ari da. Politikan, esate baterako, uste genuen bada arrazoizko bideak kontradizio guztiak urtuko zizkiola.

Aurrean, noski, gilotinaz buru batzuk moztu behar; gero, proletarioen klase arrazoiak errazago ezabatuko zituen kontraesan horiek, ez zen egongo ere!; historian oraintsu, oso garesti irtendako demokraziak sortu zigun itxaropen berria, eta exenplua eman, berria du munduan zehar kontsentsuaren formula honek, exportatzen ere hasiak dira espainolek. Baina ikusten ari garenez, hemen ere indarra duenak agintzen du, adostasunak honen arabera dabilenean funtzionatzen du, eta burua edo hizkuntza gaitzen duena da hemen ere galtzaile.

Orain konturatu da Joseba Zubia kontseilari jauna, fede onez, noski, adostasunaren izpirituan ere zuloak sortzen direla, beti agintzen duenaren arabera: 1987 arte zerbait funtzionatu badu, harrez gero Stop, transferentziak amaitu direla, eta lehen emandako batzuei ere hitz ederreko Auzitegi Konstituzionalaren erabaki bidez barruak hustu dizkiela. Gauzak honela, hara nondik adostasuneko ezkontzaren bidez gure Euskal Herriko Jaurlaritzak hautatu duen Hezkuntza Kontseilari eta Lehendakariorde erdaldunak esan berri duen: Eusko Jaurlaritzari ez dago kiola geure herriko hizkuntzaren erabilpena bultzatzea. Orduan, zer gobernuak bultzatza behar dio bada euskarari?

PROFESIONALAK ETA POLITIKOAK

Euskaldunon Egunkaria / 1992.05.12

Politikoaz gauza asko entzuten da azken aldi honetan. Gaizki gehiago, ongi baino. Ez da euskaldunon arazoa bakarrik, mundu osoko politikaria dago kritikoen ahotan. Heranegun, frantses telegailuko leihotik begira nengoela, ikastetxe handi bateko zuzendaria agertu zen hizketan. Ez zen ezaguna; ez politikari, beraz. Azken orduan jarri omen zuten Hezkuntza ministrariaren flatan politikologoengalderei erantzuteko. Eta konturatu ziren hauek, emakumeak zentzu handiz eta argi erantzuten ziela. Ordubetean aritu zen, bikain asko! Harrituta zeuden politi-



"Honoris Causa"
Doktore izendatzean
Martin Ugalde Juan
Jose Ibarretxe
Lehendakaria, Pello
Salaburu Euskal Herriko
Unibertsitateko
Errektorea eta Inaxio
Oliveri Mondragon
Unibertsitateko
Errektorearekin (1999).

kologoak zenbat gauza ari ziren ikasten gaztediaren arazo larrietaz: ikasketen zentzua, programak, droga eta eskoletan biolentzia, denetarako zuen irakasle honek erantzun neurritu, egoki, garbia... Hala, ni neu jarri ninduen pentsatzen emakumezko honek zekiela, egiaz, eskoletan zer gertatzen zen, eta nola, eta zergatik. Profesionala bait zen! Urte asko zeramakizkien haurren lanen jarraipena egiten, porrotak eta garaipenak ikusten, beldurrik gabe 'Jospin Legearen' alde onak eta txarrak adierazten! Nire buruari

jarri nintzen esaten, irakasle zen honen ordezkaria zen beste norbait izan bazen, ez zituela gauzak argi eta lasaitasun berarekin esango, bere partiduan egingo zuen eraginaren kezkaz aritu beharko zuelako. Botoak galtzeko beldur. Honez gero konturatu zirela politikariek andrearen balioaz eta laster izango zuela honek proposamenik bere taldean sartzeko, eta fitxatuko zuten andre honek politikari bezala hizketan jarriz gero xarma hau guztia galduko zuela. Eta zergatik ez ote zituzten alderdiek tolerantzi eta askatasun osoarekin bere profesionali lana egiten uzten; botoak lortzeko biderik zuzenena gaur hauexa, egia esatea, bait da...

ENE ABERRI...

Euskaldunon Egunkaria / 1992.10.13

Geure haurtzaroko abestiak izan dira geure gomutako dotrina politikoa. Herri bakoitzak badu berea duen abertzaletasuna adierazteko bidea: Espainiak eta Frantziak garailearenak dituzte. Geure herri zapalduak oso bestelakoa izan du, eta, gezurra badirudi ere, haienak gorroto gehiago eragin dute geureak baino. Hara oraindik odola darion "Allons enfants de la Patrie" eta gure "Gernikako Arbola" herrikoia pakea dariola; hara "Gora ta gora Euskadi" politikoa eta gaur ofiziala, sufrimenduko gurutzea duela helburu, eta hara defensarako sortu zen "Eusko gudariak gara"..., abestian aipatzen den odola geuk eskaintzen duguna besterik ez dena.

Zerbait esan nahi dute geure aintzindari diren esenplu hauek.

Arerioak erakutsiko digu gure pakea zer den! Gero, geuk ikasi genituen abesti abertzaleak izan dira euskal politikako dotrina; ni neu Sabin Aranak gure familiar (aitona, aita eta ni) eragindako hirugarren belaunaldikoa naiz, gerrondokoa, eta, beraz, "Ene aberri laztana" eta "Laster dator eguna" otoitza bezala abesten genituenekoa. Gaur nire belaunaldiko abertzale batzuei galdetu nahi diet, geuk bilatzen eta espero genuen "Egun" horri noiz arte utzi behar diogu zai, itxaroten? Ba dirudi nire lagun hauek egindakoarekin nahikoa dutela, guk aldarrikatzen genuen "askatasuna" hain gertu ikusi eta hain urrun jartzen digutenean oraindik. Noizko utzi behar dugu gure ahalegin nagusia, demokratikoa, gutxiengoa, bake-tsuen: munduko herri guztien autodeterminazioa firmoki Euskal Herriarentzat ere eskatu gabe?!

"EGALITÉ!"

Euskaldunon Egunkaria / 1992.11.10

Frantziak XVIIIan egin zuen iraultzak printzipiozko aurrerapen ederrak lortu zituen gizartean. Ezin uka. Baina garai berean geure herriak jasan zituen eraso gaiztoak: hasi herriaren askatasuna, herriko legea ('abolition du droit Basque'), eta deportazioaz ('L'internat') Zuberoan, 1790ean, Lot, Lot-et-Garonne da 3.000 pertsona inguru; izua ('la terreur') Sara, Jatsu, Azkaine, 1794ean; erlijioaren aurka; euskarari jarraiki zioten eskolan, elizan, kalean eta etxe barruetan ere. Mundu honetan ezarritako infernua izan zen hau dena! Erregeek eta despotek lortutako gauza asko askatu zituzten, bai, baina Herri zen hau, bere lege, hizkuntza, erlijio eta bizibide zibilizatuak zituen Euskal Herri hau, su eta gar pasa zuten. Norbaitek esaten badit munduan lortzen diren aurrerapen guztiak odol inozentez bustita datozela, badakigu frantsesek adina! Zaharragoak ere bagara! Eta gaur frantsesa Europa prestatzen nagusi izan nahi du, bere hizkuntza sakratua, frantsesa, nahi du eskusiban, satellite, irrati, kable, telebisio eta bestekin ongi babestua eta zabaldua; hori, bere kontu, baina, bidenabar!, ez dezala utzi euskaldunon hitza Eliza-bethe Guigou ministro sozialista modernuak nahi duen bezala, *baliogabe administraziorako, zerbitzu publikorako, bizitza ekonomiko eta sozialerako*. Dena bereztat eta bere usorako bakarra! Sozialista ona! Hori agintzen dion Presidentea, bere agintea galtzeko bezperan ari da ordenak ematen. Eskerrak, 'Dieu' frantsesa, François Mitterrand jaunak.

EUSKAL PARTIDISMOAREN ZENTZUA

Euskaldunon Egunkaria / 1993.05.11

Pertsona bakoitzak kultur-mundu osoa darama bere baitan; mundu txiki hau beste munduez inguratuta bizi da. Kaxa baten barruan beste kaxa daraman gizakiak gara, beraz, euskaldunok ere. Honetxegatik merezi du pertsonak errespetu haundia; ez gehiago, baina ezta gutxiago ere. Mundu honen adierazgarri nagusia, hizkuntza da, eta hizkuntzarekin honen barruan urrundik datozen esperientzia eta eskarmentua, ikuspegia, arrazoinbide eta sinesmenekin osatua. Ez galde-tu niri hau zergatik den honela, ez dakit eta. Baina halaxe da praktikan. Azter ezazu zure baitan eta igarriko diozu joera. Familiatasun edo herritasunaren zentzu honi nazionalitatea deitzen diote. Aitortuta edo gabe, gizakiak berea defendatzeko sena hori berezkoa du gizalegez. Hizkuntzak, lanbideak, ekonomiak, lurrak eta itsasoak, inguramenak, historiak, bereizten joan den zerbait da, kara! Eta elkarrekin bizitzeko unibertso bat besterik ez dugunez, nahitaez elkarrekin bizitzeko bideak aurkitu beharko ditugu. Baina errespetua eta berdintasuna bide direla. Haundiak txikiari ezarri dion gerratean bizi garenok pakea nahi dugu, baina bi aldetik egina! Datozen hauteskundeetan lehen errespetatu behar dugun oinarrizko kultura bera bizi dugunok geure arteko beste diferentzien gaineratik onartu behar dugu elkar. Espainola sentitzen dena bizi dadila espainol bezala, frantsesa, berean. Geu demokratikoki geure partidu aukerak egin eta gero elkarrekin lan egin dezagun, ezinbestekoa dugu eta askatasun bidean abiatzeko. Ez da goizegi!

ABERTZALETASUNA ETA PRAKTIKOTASUNA

Euskaldunon Egunkaria / 1993.06.22

Beste bidagurutze batetan dago Euskal Herria: herri bezala ala partidu bezala jokatu. Orain artean banandu gaituena Estatu guztiahalduna izan bada, orain Europa da. Sentsazioa, betikoa; zatiketako ahulezian etsi. Hau da egiazko auzia. Bidetxurrak anitz eta tentagarriak dira, eta Euskadi ernikitzeke zaila. Ados nator, noski. Baina, bestalde, abertzaletasuna ez da praktikotasuna. Sabin Arana ez zen hau aldarrikatzen jarri, hala izanez gero ahaztua zegoen dagoeneko. Sarri aurkitu gara herri bezala erabaki zailaren aurrean. Askotan pentsatu dut. Espainiako Errepublikak suntsitzekotan leherrarazi zuten altxamenduaren aurrean historiak zer kinketan jarri gintuzten. Geure abertzaletasunaren kontzientzia, Arana Goiri hil eta hogeita hamahiru urtera (1903-1936) egiatan egosten ari zenean, Armandagandik eta Elizagandik joatea errezago zen gorriska eta arriskugarria zen askatasun bidetik jotzea baino, eta halere gure herri zaharrak 32 urteko gizon gazte baten eskuetan lema uztea erabaki zuen. Izan genituen aukera gaitzetsi zutenak, eta oraindik ozenkiago 40 urteko nekaldi izugarriak iraun zuen artean. Baina ongi erakutsi zuen. Euskadik bere borrokaren zentzua, eta Agirre buru zuen Herria ta Europak eta Mundu guztiak ezagutu zuena, eta honek eman zigun garai hartan, eta ematen digu gaur ere, zilegitasuna munduaren aurrean askatasuna berreskuratzeke. Batasunean ezina bada ere, gure arteko tolerantziak egindako puntuetan adostasuna lortuaz!, pausoz pauso. Eta gaurko giroan bide praktikoa nahi duen euskalduna entrega dadila zuzenean Madrilan.

OSOTASUNA ETA TALDEKERIA

Euskaldunon Egunkaria / 1993.08.29

Euskal Herriaren gaitzik okerrenetakoa taldekeria da. Ezagunak dira Iparraldea eta Hegoaldea bakoitza beretik dabilela aspaldi (Nafarroa erdibitua), eta hiru eskualdeak besten mende. Orain Europa birmoldatzeko une preziatu honetan bertan erakusten ari garen liberaltasun eza kasu, beste gauzen artean, Julio Iglesias Jaunaren bahiketa. Ez dut uste gure herrian gaiztakeria honek euskaldun asko poztu duenik. Bahitua bera eta bere senideak dira lehen biktimak, baina askatasuna eta pakea partitu ezinak direnez, gutako bakoitzarena ere bada! Politikako estrategiak ere nahasten dira, espainolkeria bereziki. Egoera honetan barrutik esan nahi dudana hau da: lehenengo Askatasunaren izenean, ezagutzen ez dudana Julio Iglesias Jaunaren libertatea eskatzen dudala, gizonari preziorik ez duen askatasuna zor zaiolako, herri eta mintzaira bakoitzari berea zor zaion bezala. Bigarren, indarkeriaz, biolentziaz gehiegi jasan duela Euskal Herriak, eta Iglesias Jaunari ezarri zaiona desegitea eskatzeko eskubidea dudana bezala eskatu nahi diodala Estatu espainolari eta bere indar armatuei, egin dituzten kalteak desegin ezinak direnez, gaiztakeriarik egin ez zuen nire aitari ezarri zioten 40 urteko desterruan zoratzeko adina pasa zuenaren ordainez ezagutu diezaietela gaur ETako preso daudenen guraso eta anaia-arrebei bizitza erosoa egiteko duten eskubidea; zeren eta gaiztakeriaz sakabanatu dituzte, ez justiziaz. Hirugarren, honen izenean ez ditzatela preso hartzen dituzten mutilak legez kontra jipoitu, hemen denok gara eta amaren seme.

IKURRINAREN HISTORIA LABURRA

Euskaldunon Egunkaria / 1994.04.03

Lehenengo 'Euskaldun Batzokia' Sabino Arana-Goirik sortu zuen Bilbon, 1894-go uztailak 14, Korreo kaleko 22.ean, eta bertoko balkoian jaso zuten arratsaldeko 6etan Bizkaiko ikurrina estreinaldian.

Ekintza honek zirrara handia sortu zuen hirian.

Urtebete gero aukeratzen da lehenengo Bizkai Buru Batzarra, Sabin buru dela, eta bere anai Luis, Fabian de Ispizua, Elias de Lekue, Juan de Aranburuzabala, Ciriaco de Llodio eta Salvador de Etxeita batzarkideak zituela. Eusko Alderdi Jeltzalea disenatua bazegoen ere: Bizkaia ezik, beste sei lurraldeak: Araba, Bena-barra, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa asmo honetara biltzea falta zen, denak konfederazio bat osatzeko asmotan, berton iraun edo irteteko eskubide eta betebeharrak berekin denak.

Espresuki aipatzen dut hau, Ikurrinarekin ihardupide berdina gertatzen delako: Bizkaitik Euskadira.

'Euskaldun Batzokian' jaso zen ikurrina Bizkairako asmatua izan zen, eta gero gaur Euskadi osorako onartua. Hara nola: Sabinekin berak esaten du, nazio batzuek bandera dutela, eta beste batzuek, harmarria; honela deskribatzen du Bizkaiaiko banderaren bilakaera: "Euna da gorri bixija, eta euneko ganian ezartzen dira gurutz bi: bata da Deun-Ander'ena eta berde edo orleya da; bigarrena, besteko ganian ezarri biardana, da Kristorena ta bere kolore edo margua da zurija. Gurutze bijoen zabaltasuna bat da, eta bijoen besuak eunaren egaletaraño luzatuten dira" ('Lehenengo Egutegi bizkaitarra 1898', lan osatuak, 1543 or.). Bilakaera hau puntuz puntu erdarazko artikuluan batean deskribatzen du. ('La bandera bizkaina', *Juan-Goikua eta Lagi-Zarra*, 11'g. zenbakija, 1897, Garrilla 11. Bilbao Año 1. L. o., 1323 or.).

Sabinek Bizkairako eratu zuen ikurrin hau gero Euskal Herri osora nola zabaldu zen bi hitzetan esango dut.

Gerra 1936en sortu zen arte 'Eusko ikurrina' edo 'Ikurrina', erderaz 'Bandera vasca', egin zen ezaguna zazpi lurraldetan. Halaxe ezagutu genuen aitonek, gurasoek eta neronek batzokietan, hitzaldietan, Errepublikara garaiko Aberri Egunetan eta lehen Estatutoko kanpainetan. Gernikan 1936.eko urriaren 7an Eusko Jaurlaritza sortu zenean, honek urriko oroagindu edo dekretu bidez 2. artikuluan ofizial-

tzen da Ikurrina. Gerran berarekin, igo ziren bataloi euskaldunak, abertzaleak batez ere, mendira, berarekin desfilez zuten hirietan, eta egin zen ezaguna munduan zehar; batez ere Gernikako krimenaren ondoren.

Gero, gerrondoko exilio luzean, klandestinitateko lanetan, erresistentzia armatuan. Ikurrina izan da eten gabe erabili dena, gaur arte.

Nahiz eta Ikurrinarekin batera ikurrinak adierazten duen Aberriaren eguna elkarrekin ospatzeko gauza izan ez oraindik.

Martin Ugaldere familia Ibarretxe Lehendakariarekin (2002)



"ESPAINIAN SARTUKO DUGU"

Euskaldunon Egunkaria / 1994.11.08

Espainolen eta Frantsesen ametsa euskaldunok menderatzea da. Ez datza frantsesa eta espainiera guri itsasi nahi izatean bakarrik, hauen mamia eta hezurak gureak bezala sentitzea nahi dute, eta ahalegin faszistekin saiatzen. Hala ere hau ezina denez, inori kalterik egiten ez dion gure hizkuntza ele biziaren artetik ateratzea erabaki dute askotan alferrik, eta onenean ere Museoan ikusgai hilen biltegietan lotsaz gordeta eduki. Gorrotoak ez du gehiago ematen. Exenplu gisa, ikustekoa izan da joan berriak diren hauteskundetan Espainiako alderdien eskuineko eta ezkerreko gure kontrarioak beren arteko ezin ikusiak gorde eta euskaldunen aurka nola jarri diren. Sartu egin behar gaituzte bere moldetan! PSOE-EE Jauregik esan duen bezala, "Espainian sartuko dugu euskal Estatutua!". PSOEko beste euskaldunetako batek, Egigurenek, esan du orain arteko abertzaleon aurkako borroka ez dutela behar bezala planteatu, eta honetxegatik galdu dutela, baina hurrengo txandan gure aurka biltzera jokatu beharrean, gu zatitzera jokatuko dutela, UAko euskalduna ez denak egin duen bezala, eta honetxegatik irabazi dutela, eta nazionalistarik eta euskararik gabeko Gobernu euskalduna osatzea dela gure herriaren salbabidea. Baina euskaldunik gabeko Euskal Herririk ezina denez, beste izen bat beharko dute frankismo berriko kima hori pizteko, eta biribilak guri euskal sentsua aldatzeko.



Martin Ugalde gaixo dagoenez, Ibarretxe Lehendakaria etxera etorri zaio "Lan Onari Goraipamena" ematera (2002)

ELA ABERRI-EGUNA

Euskaldunon Egunkaria / 1995.04.11

ELAko bazkide 1947an egin nintzen Caracasen. Euskal Herriko beste gauza asko bezala, atzerrian ezagutu nituen euskal munduko eragingarri sozio-politikoak. Kasu honetan, Bernardino Bilbao, sindikatu euskaldunaren sortzaileetako bat, nekaezina bera; atzerrian nintzen arte eutsi zion kuotak kobratzeko lehendakari-tza pisu hari. Urte asko gero honeratu nintzenean lotu nintzaion berriz ELAri, eta Lezo Urreztietak gerra aurrekoak kontatu zizkidanean amorrurik haundiagoarekin, zeren eta jakin nuen nola itsasoko sindikatu espainolek diskriminatzen zituzten euskaldunak: untxiak Bilbotik irten eta kaia espainolistara iristen zirenean, ELAko kideak lurreratu egiten zituzten. Orain ELA, eginda, lan ongi eta asko eginaz, sindikatu handiena, LAB bigarrena, eta aurten Aberri-Eguna elkarrekin ospatuko dute gainera. Bakoitzak badu bere ideologia: baina biak dira abertzale; eta ez dira ezkonduko, baina biak ospatuko dute Aberri-Eguna batera, aberri bera delako lotzen dituen. Hau ez dute ongi ikusi Ramon Jauregik eta Jaime Mayor Orejak, beti aingeru gisa eta elkarrekin ari batira gure demonioak salatzen. Baina haiek diferente izanik Espainian bat egiten badute gure aurka, zergatik ez dugu guk bat egingo Euskadin gure alde? Euskal politikoak baino argi eta zabalago dabiltz sindikalistak. Egia da, ausardia behar da hemen ere, Irlandan bezala.

HERRIA ETA HERRITASUNA

Euskaldunon Egunkaria / 1995.06.06

Joan diren hauteskundeetan sentitu nuen kezka argitu nahi nuke, ea politikaz-ko alderdietan egituratuta gabiltzan herritarrok ez ari garen herritasuna, herri baten parte izatearen zentzua, galtzen ari. Gure jatorri eta familia izatearen sentimendu batetik, puzzle politiko baten murriztapen luzean erortzen ari ez ote garen, alegia. Ideologiak eta antzeko estrategia globalik bada gizateriaren historian, eta maila askotan diferentziak eta anbizioetako borroka funtzionatu dute herrien artean, baina gizakiaren oinarrian dauden jatorriaren duintasuna eta berekin bizi dituen memoria eta hizkuntza gordetzen denak ahalegindu dira, zeren eta gizonaren sena norbera izaten irautea da, suizidioa ez da positiboa, eta hau kulturen arteko diferentziak suntsitu gabe. Bestalde irabazteko bidean dagoenaren tentazioa izan da, eta ez justizia, sintesia bere kultura bidetik abiatuta egitea. Baina guk, herri txikia eta ongi zigortua, ezin dugu prozedura hau onartu, gure heriotza delako, eta dakigulako ez dela ezberdintasuna kausa, baizik eta intolerantzia. Norbaitek esango du, zentzu honetan Herria faktore sozial integratzaile bezela itxia dela; bertokoa ez denak ezin duela parte hartu. Eta ez, herri honen parte izateko nahikoa du bere izpiritu barruan lana egitea, asko ari diren bezela; bestela, faxismoa litzateke. Baina, datorrenak ez badu integratu nahi, bera da razismoa ekarri eta ezarri nahi diguna.

NAZIOTASUNA BERRAURKITZEN

Euskaldunon Egunkaria / 1996.01.28

Sabin Arana Goiriren aurkitze nagusia: "Euskadi da euskotarren aberria" dagoe-neko egia argia zenaren zehazpen jeniala izan zen, eta geroztik sentipen honen defentsan euskotar askok eman du kontzientzi honekin bizia. Halere, ezer pasa ez balitz bezala aurrean ditu oraindik zutik jaio zen herriak berrotan zentralista interesatuak. Hau etorri zait gogora orain prentsan aurkitu ditudan bi esaldi hauek irakurtzean: Ramon Jauregirena: "Gure herrian autonomiatik haruntzako euskal erreferentziak 'cháchara', ergelkeria, besterik ez dira", eta Javier Rojok: "Presoen inguruan herri honetan egin den politika oso positiboa izan da, demostratu egin beharko didate kontrakoa komenigarri dela". Biak Espainia kolonialean bizitako nostalgia zaharra erakusten dute, eta gaur demokraziaren ikuskari ustelaren lotsa jazaten ari den sozialismoak ezin gaitu Bolivar askatzailearen herri askatueta bizitzea suertatu zaigun herritarrei zaharki hau bota: Jauregiri edozein krioilok erantzungo lioke grazia handiz: "más cháchara será usted!", ez du besterik merezi, eta Rojori: "Noiztik nahasten duk 'komenigarriagoa' justuagoa"rekin?!

SINDIKALGINTZA ETA POLITIKA

Euskaldunon Egunkaria / 1996.03.24

"Euskal Herrian behintzat sindikalismoa eta politika espainola nahasian sartu zitzaizkigun Enkarterrietako meategietatik barrena, PSO(E) (1879) eta UGT (1879/1888) Pablo Igleasiasek Madriletik Bilbora (1887) naturalki ekarriak izan ziren. Amaitu da, halere, aintzinako nagusitasun espainola, batez ere STV/ELAK (1910/1917) azken hamabost urte hauetan egin duen lan zuhurrari esker. Sindikalismoak langileen defentsa profesionala eta solidarioa bilatu behar du, eta nazionala errespetatu. Egin behar ez dituen da, batetik, sukursalismo kolonialaren kontrabandoa, eta gero, Estatu guztiahaldunaren babesean guganako anbiguetate salaketak leporatu; orain ELA/LABren artean lankidetzeta sindikala sortu den honetan, kasu, Espainolistek, euskararen exigentzia edo Euskadiren autodeterminazio demokratikoa biolentziari lotuak ikusten dituzte. Eta gertatzen dena da, bi sindikatoak, sindikalgintza eta herriaren askatasuna adigai mankomunak dituztela biak, ezin arrotz balira legez borrokatu, Madrilekoak bailiran! Lotura aparteko hauek nolana ere errepikatzen direnean sala daiteke anbiguetatea, baina ez bestela, adostasun puntualak argi daudenean.

SANZ EZ DA NAFARROA

Euskaldunon Egunkaria / 1997.02.09

Inoiz ezin dezake pertsona batek, handia izatea suertatzen bada ere, herri oso bat ordezkatu. Nafarroaren historiak duen neurrikoa gutxiago. Politikoa berez handia denean sortzen da fenomenoak. Companys bat Katalunian, Agirre Euskal Herrian. Baina Sanz karismagabeak ez du hau sor dezakearen espal puntik ere, bistan da; erakutsi duen abilezia bakarra Madrileko Sozialistak merke erosten da, eta oraindik ez dugu preziorik ezagutzen! Nafarroako Lehendakaria zena bere alderdiko lapurrei lapurretan ari zela harrapatu izan ez balute, jai zuen hemen ere eskuineko balazta den honek; sozialista Nafarrak Madriletik saldotan jarri ez bazituen ez zen Sanz oraingo UPN alderdiko buru eta Nafarroako Lehendakari, biak, izatera helduko. Baina, hara!, arrakasta Pirriko honek harrotu egin du, aizu! Pulpitorea igo eta sermoitan jarri da lhauteriak direla eta, handikiro: ETArekin negoziatzen bekatu larria da; nazionalistek jai dute Nafarroan; Alliz ezin da fio, noski; Perez Lepazaran Lehendakariordea gertuago dauka, baina aldaketa eske hasia da, iraultzaile! Geratzen zaizkan lagun zurrak sozialistak ditu momentuz, espainolis- moan batez ere, baina Espainiak ez dio Nafarroarik gizenduko, ordea, eta nafar gazteriak borrokatu beharko du zerbaiteren alde!

AUTODETERMINAZIOAREN BI MUTURRAK

Euskaldunon Egunkaria / 1997.03.09

Autodeterminazioa zer den denok dakigu; herriek noiz eta nola duten eskubide hau erakusten duen erregelaketa juridikoa zabaldua dago mundu guztian Oinarriko Legearen antzera, baina inoiz honek dakarren mezuak Estatuari bere Inperioa ukitzen badio, ezinbestean gertatzen den bezala, bi muturrak lehia bizian daude. Eskerrak gaur nazioarteko kontzientzia asko indartu dela. Atzo agertzen zen prentsan adibide bat. 1) Autodeterminazioaren alde dagoena Jos, Ramos-Horta da, Ekialdeko Timor-en askatasunaren alde egindakoagatik Bakearen Nobel saria jaso duena, eta Nueva York-en adierazi du Egunkariarentzat euskaldunok ere badugula, noski, bakoitza bere bereizgarriekin, bere herriak duen eskubide bera. 2) Bestalde, euskaldunoi dagozkigun askatasunen berme den Jaime Mayor Oreja jauna, asaldatuta agertzen da une honetan hau alderdi demokratikoez gaur eta hemen eskatzea euskal aktibistei eman dezaiokeen babes onena izango litzakela, eta, aldiz, hemen gaur behar dena zera dela: "Polizia gehiago eta pazientzia handia". Francoren errezeta! Babestuak gaude, bada, eta erlojua eskuan duen gure kronometro, esango dio gure herriari noiz den bere ordua, gonbaraketa ez dela berdintasuna, noski, baina urrun dagoen Timor-eko intxaur honen barruan bertan bizi da gertuago dugun gurearen fruitua.

AURKIBIDEAK

Izenen arabera
Gaien arabera



IZENEN ARABERA

A

Abellán; José Luis: 48

Adenauer: 270

Agirre, Iñaki: 50

Agirre, Jose Antonio: 11, 23, 25, 41, 42, 43, 48, 52, 55, 59, 60, 61, 67, 68, 71, 72, 73, 74, 75, 76, 79, 81, 86, 88, 92, 97, 98, 99, 111, 118, 126, 149, 182, 188, 193, 195, 200, 215, 221, 235, 247, 249, 259, 266, 267, 270, 281, 390

Agirre, Jose Manuel: 60

Agirre, Joseba: 56

Agirre, Txomin: 28

Agirrebengoa: 53

Aizarna, Xabier: 42

Ajuriagerra, Juan: 12, 24, 34, 36, 37, 38, 39, 40, 44, 47, 55, 60, 166, 167, 229, 246, 266

Alberdi: 52

Alberro, Agustin: 42

Altuna, Manuel Ignacio: 110

Altuna, Patxi: 258

Alvarez Enparantza, Jose Luis: 59, 60, 261

Amezaga, Bingen: 42, 101, 193, 194

Amezaga, Vicente: *ikus* Amezaga, Bingen

Amsoleaga: 151

Ansola, Gurutz: 35

Añoveros, Monseñor: 123, 124, 125

Apaolaza, Xabier: 27

Apraiz: 226

Arakistain, Agustin: 46

Arana Martija, Jose Antonio: 25

Arana Goiri, Luis: 195

Arana Goiri, Sabino: 13, 25, 34, 48, 61, 69, 70, 95, 98, 117, 126, 163, 164, 180, 181, 188, 196, 209, 220, 221, 225, 226, 247, 252, 259, 266, 268, 274, 278, 281, 283, 288

Aranburu (Argentinako Presidente): 68

Aranburu (Zestoakoa): 35

Aranburuzabala, Juan: 283

Aranzadi: 151

Ardanza, Jose Antonio: 267

Aretxabaleta, Lucio: 107, 109

Areilza, José María: 103, 104, 106

Aresti, Gabriel: 137, 166

Aretxabaleta, Libe: 42

Arias Navarro: 139

Aritzimuño, Jose "Aitzol": 26, 42, 236

Armas Alfonso, Alfredo: 128

Armas Chitty: 128

Arozena, Andoni: 60

Arregi, Joseba: 57

Arregi, Rikardo: 26, 163

Artamendi, Antton: 35

Arteta, Ainhoa: 27

Arzalluz, Xabier: 36, 37, 38, 55, 56, 169, 175, 201, 226, 264

Ascunce, José Angel: 27

Aspiazu, Iñaki: 240, 241

Astigarribia: 133, 200
Atxerre: 77
Auzmendi, Txema: 269
Axular: 24
Azaola, Jose Miguel: 150, 151, 152
Azkarraga, Joseba: 34, 55, 57
Aznar, José María: 200, 207
Aznar, Santiago: 207
Azpiazu, Jose Maria: 249, 250, 251

B

Baena, Reyes: 128
Bandres, Luis Mari: 57
Barandiaran, Joxemiel: 25, 137
Baroja, Pío: 130, 131, 220
Barriola: 241, 246
Barriola, Avelino: 245
Barriola, Balbino: 42
Barriola, Iñaki: 245
Barriola Irigoyen, Maritxu: 25, 245
Basarri: 25
Basterretxea, Nestor: 57, 95
Benegas, "Txiki": 198
Bengoa, Jose Mari: 44
Berazadi, Aingeru: 136, 137
Berriotxo (Anai): 137
Bidault: 270
Brouard, Santi: 223
Bujanda, Gerardo: 35, 36

C

Campion, Arturo: 126, 150, 151, 209,
211, 212, 220
Caro Baroja, Julio: 111, 137
Carrero Blanco: 47, 248, 250
Castro, Fidel: 214
Celaya, Adrian: 137
Chillida, Eduardo: 24, 55, 148

Ciaurriz: 200
Colom, Angel: 187
Companyns: 79, 149, 290
Corcuera, Javier: 209
Curuceaga, Juan: 128

D

Damborenea, Ricardo: 198
De Gasperi: 269
De Gaulle, Charles: 94
Dirassar: 44
Dos Passos, John: 130

E

Egiguren: 285
Eleizalde, Luis: 180
Elgezabal: 77
Elizondo, Maite: 56
Elosegi, Joseba: 256, 257
Enbeita, Kepa: 137
Erasmus: 55, 59, 86
Erentxun: 35
Erkiaga, Eusebio: 25
Errazti, Begoña: 9, 11
Espinosa, Alfredo: 200
Estornés Lasa, Bernardo: 234
Estrade, Eduardo: 36
Etxalde: 151
Etxeberria, Eli: 60
Etxegarai, Carmelo: 209
Etxenike, Pedro Miguel: 202

F

Fagoaga, Isidoro: 42, 43, 50
Fernández, Rómulo: 75
Fraga, Manuel: 134, 139, 190, 198, 207,
211, 212, 213

Franco, Francisco: 12, 30, 39, 48, 71, 74,
75, 77, 78, 94, 103, 139, 145, 159,
172, 176, 213, 214, 222, 231, 235,
241, 245, 257, 263, 265, 291

G

Gainza, Martin: 101
Galíndez, Jesús: 65, 66, 67, 92
Gallastegi, Eli: 195
Garaikoetxea, Carlos: 12, 25, 45, 48, 54,
55, 56, 57, 154, 155, 175, 190, 191,
200, 205, 218, 226, 229, 264
Garate, Justo: 228
Garicano Goñi: 35
Garmendia, Pako: 35
Gezala, Sabin: 53
Gil Robles: 36, 215
Ginés, Hno.: 201
Gogorza (Aita): 245
Goihenetxe, Eugène: 228
Goikoetxea: 51
González, Felipe: 211, 212, 213
Goñi, Joseba: 187
Gorordo: 231
Guevara, León: 220
Guigou: 279
Gurrutxaga, Ildefonso: 142, 241

H

Héraud, Guy: 273
Hernadorena, Teodoro: 25
Herrero García, Miguel: 111

I

Ibarnegaray: 240
Ibarretxe, Juan Jose: 27, 276, 284, 285

Ibarrola, Agustin: 137
Ibiñagabeitia, Andima: 194
Iglesias Garrigós, Juan: 46
Intxausti: 246
Intxausti, Jokin "Pelos": 35, 36
Intxausti, Joseba: 25, 179
Iparragirre: 126, 228
Iratzeder: 25
Irigaray: 60
Iriondo: 101
Iruin, Iñigo: 187
Irujo, Manuel: 26, 33, 40, 42, 44, 48, 51,
52, 82, 100, 102, 103, 118, 151, 200,
206, 229, 238, 270
Irujo, Peio Mari: 192, 193, 194
Isasi, Mikel: 36, 37, 43, 47, 53, 60, 248,
250
Ispizua, Fabian: 283
Iturbe, Txomin: 248, 250
Iturralde: 151
Izagirre, Markel: 34
Iztueta, Anjeles: 19

J

Jaka, Joseba: 269
Jardón: 141
Jauregi, Ramon: 191, 285, 286, 288
Jospin: 276

K

Kamaraka: *ikus* Solaun
Kanpion: *ikus* Campión, Arturo
Kluckhohn, Clyde: 111
Knörr, Gorka: 19
Krushev: 123
Krutwig, Federiko: 59
Kuijpers, Willy: 187

L

Labaien, Antonio Maria: 25
Laboa, Mikel: 245
Laborde, Manuel: 117
Lafitte, Pierre: 38, 182
Landaburu, Javier: 42, 43, 50, 59, 108,
118, 137, 200, 270
Larramendi, Iñaki: 60
Larramendi, Manuel: 27, 258, 259
Larrauri (Monseñor): 177, 178
Larresoro: *Ikus* Alvarez Enparantza, Jose
Luis
Lasa, Sabin: 212
Lasarte, Jose Mari: 36, 50, 200
Leizaola, Jesus Maria: 12, 24, 25, 34, 42,
44, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 118,
126, 127, 147, 149, 200, 235, 247,
248, 249, 250, 251
Leizaola, Joseba: 36, 37, 38
Leizaola, Paul: 100
Lekue, Elias: 283
Lekuona, Manuel: 25
Lertxundi, Anjel: 179
Lezo Urreizitieta: 42, 261, 286
Lizardi: 221
Llopis: 208
Loidi Bizkarrondo, Jose Antonio: 179
Lopez, Eusebio: 210
Lutero: 55, 59, 86

M

Maciá, Francisco: 71, 79
Madariaga, Julen: 60
Manzanas: 51
Mañaricua: 137
Marchais: 133
Martinez, Anamari: 35, 50, 51
Martos: 159
Mathieu: 240, 246

Mayor Oreja, Jaime: 286, 291
Mendiguren, X.: 137
Meneses, Guillermo: 128
Mindszenty (Cardenal): 123
Mitterrand, François: 279
Mitxelena, Koldo: 25, 179, 211, 220
Mola: 257
Monzon, Telesforo: 60, 200
Moradell: 128
Moraza: 226
Mujica, Mateo: 74, 77
Mujika Arregi, Iñaki: 60, 248, 250

N

Nedo: 128
Nardiz, Gonzalo: 46, 49, 200
Nebrija: 270

O

Olariaga, Periko: 60
Olarte: 34
Olivares Larrondo, Jose "Tellagorri": 192,
193, 194
Oliveri, Inaxio: 276
Olmo, Juan del: 18, 27
Oloriz: 151
Onaindia, Alberto: 242
Onaindia, Santi: 25
Ordoki: 240
Oregi, Josu: 37, 40
Orella Unzue, Jose Luis: 269, 271
Orixe: *ikus* Ormaetxea, Nicolás
Ormaetxea, Nicolás: 38, 166, 220
Orozco, Pelay: 57
Orradre, Joxe Mari: 150
Ortiz Alfau: 137
Otaegi: 51
Oteiza, Jorge: 95, 112

P

Palacios, Lucila: 128
Panizo: 101
Peixoto: 248, 250
Perez Lepazaran: 290
Pi y Margall: 180
Picasso: 126
Pikabea Legia, Rafael "Alzibar": 42
Pinochet: 214
Posada: 51
Prieto: 215

Q

Quisling: 271

R

Reclus, Elisée: 252
Retolaza, Luis Mari "Roke": 36, 37, 38, 44,
45
Rezola, Joseba: 24, 45, 46, 118, 190, 200,
247, 249
Rivera, Primo de: 180, 181
Rodríguez, Valmore: 66
Rojo, Javier: 288
Rousseau, Jean Jacques: 110
Rómulo Fernández: 75

S

Sagarna, Andoni: 19
Salaburu, Pello: 276
Salcedo Bastardo: 125
Sánchez Alborno: 138, 139, 140, 141,
142
Santamaria, Karlos: 48
Sanz, Miguel: 290

Savater, Fernando: 203, 204
Schommer: 25
Schuman: 270
Seix Barral: 130
Sevel, Bernardo: 90
Singh, Jai-Narine: 90
Solaun: 37, 59, 60
Solzhenitsyn: 123, 124, 125
Stalin: 133
Steer, G.L.: 72

T

Tarradellas, Josep: 147, 148, 149
Tejero: 174, 176
Torre, Eliodoro de la: 200
Torrealdai, Joan Mari: 17, 21, 27, 31, 33,
257, 269
Toynbee, Arnold: 132
Toyos, Juan de los: 200, 207
Trujillo: 66
Txaho, Agustin: 228
Txillardegui: *ikus* Alvarez Enparantza, Jose
Luis

U

Ugalde, Martin: 11, 17, 21, 26, 27, 28, 31,
33, 36, 39, 40, 54, 59, 68, 83, 86, 97,
108, 137, 179, 187, 224, 234, 235,
251, 257, 263, 269, 276, 284, 285
Ugalde, Itxaso: 50
Ugarte, Javier: 53
Unamuno, Miguel: 23, 41, 86, 220, 251,
Unanue, Jon: 27,
Unzeta, Iñaki: 37, 60
Unzurrunzaga, Patxi: 246
Uria, Iñaki: 257
Uriarte, Jon: 53
Urkola, Felipe: 41, 42, 43,
Urrestarazu, Andoni: 53,

V

Val del Olmo, Arturo: 207
Velázquez, Ramoncito: 128
Velez de Mendizabal: 34, 55
Vidal y Barraquer (Cardenal): 77

W

Wilson: 180,

Z

Zabala, Juanito: 55
Zaballa, Jose Angel: 137
Zarra: 101
Zelaia, Juanito: 37
Zubikarai, Augustin: 25, 234
Zubillaga, Eusebio: 59
Zubiri, Sabin: 36
Zumalabe, Joxemi: 269
Zumalakarregi: 228

GAIEN ARABERA

- Aberri Eguna: 77, 91, 126, 127, 157, 158, 160, 195, 196, 283, 284, 286
- Aberria: 11, 13, 15, 17, 27, 34, 46, 91, 196, 230, 268, 274, 278, 286
- Abertzaletasuna: 18, 33, 61, 164, 195, 202, 203, 209, 228, 264, 266, 274, 278, 281
- Alderdi* aldizkaria: 12, 14, 18, 24, 33, 37, 38, 39, 40, 43, 44, 46, 50, 53, 60, 80, 84, 87, 92, 100, 101, 114, 123, 229, 238, 247, 249
- Askatasuna: 37, 41, 66, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 76, 77, 78, 79, 84, 90, 91, 92, 93, 94, 97, 103, 114, 115, 116, 117, 118, 119, 124, 126, 127, 128, 130, 135, 139, 142, 149, 151, 152, 159, 160, 163, 164, 167, 170, 171, 172, 176, 178, 181, 182, 184, 186, 189, 190, 193, 195, 199, 218, 222, 231, 232, 235, 238, 254, 258, 259, 260, 263, 270, 270, 271, 273, 274, 277, 278, 279, 280, 281, 282, 289, 291
- Autodeterminazioa / Autodeterminación: 18, 71, 180, 207, 264, 273, 278, 289, 291
- Autonomi Estatutua: 172, 190, 191
- Autonomia: 18, 144, 174, 175, 176, 178, 190, 203, 205, 213, 215, 261, 264, 288
- Bakea: 13, 72, 75, 123, 131, 138, 139, 142, 161, 176, 177, 178, 194, 195, 202, 229, 233, 236, 255, 257, 264, 265, 266, 278, 280, 282, 291
- Biolentzia: *ikus* Indarkeria
- Burujabetza: 13, 274
- Capitalismo: *ikus* Kapitalismoa
- Casa de Juntas: 126, 178
- Censura: *ikus* Zentsura
- Clandestinidad: *ikus* Klandestinitatea
- Colonia vasca: *ikus* Euskal kolonia
- Colonialismo: *ikus* Kolonialismoa
- Comunismo: *ikus* Komunismoa
- Constitución Española: *ikus* Espainiako Konstituzioa
- Constitución: *ikus* Konstituzioa
- Cultura: *ikus* Kultura
- Demokrazia / Democracia: 18, 36, 49, 58, 67, 68, 73, 74, 76, 78, 90, 120, 121, 127, 158, 159, 167, 170, 171, 174, 175, 176, 190, 201, 202, 207, 213, 215, 230, 231, 241, 244, 252, 262, 267, 271, 273, 275, 288
- Derecha: *ikus* Eskuina
- Derecho: *ikus* Eskubidea / Zuzenbidea
- Diglosia: 132, 237, 238
- Diktadura / Dictadura: 13, 65, 66, 74, 83, 114, 120, 133, 139, 160, 190, 263, 265
- Diskriminazioa / Discriminación: 219, 244, 259
- Elecciones: *ikus* Hauteskundeak
- Eliza: 59, 112, 240, 279, 281
- Emigración: 68, 78, 109, 128
- Erbestea: 13, 18, 23, 24, 25, 26, 35, 37, 48, 52, 58, 66, 67, 74, 75, 77, 80, 97,

- 103, 107, 117, 138, 139, 142, 147,
149, 151, 157, 161, 172, 192, 193,
194, 199, 200, 215, 216, 218, 240,
242, 246, 249, 261, 284
- Erljioa: 40, 72, 75, 76, 89, 93, 99, 110,
114, 123, 127, 129, 143, 161, 185,
192, 220, 228, 235, 279
- Erregioa: 134, 145, 158, 170
- Errepublika: 36, 48, 66, 68, 70, 71, 72, 74,
75, 76, 117, 138, 139, 151, 169, 215,
228, 281, 283
- Erresistentzia: 90, 118, 161, 246, 284
- Errialdea: 134
- Escuela: *ikus* Eskola
- Eskola: 72, 93, 104, 218, 219, 238, 245,
261, 270, 279
- Eskualdea: 134, 196, 215, 282
- Eskubidea: 65, 66, 69, 82, 91, 92, 93, 94,
98, 104, 118, 122, 128, 130, 137, 139,
147, 158, 164, 168, 169, 170, 171,
176, 181, 197, 202, 205, 207, 208,
217, 219, 224, 236, 244, 246, 254,
259, 265, 271, 273, 282, 283, 291
- Eskuina: 40, 51, 58, 120, 121, 126, 133,
135, 155, 163, 173, 176, 185, 203,
215, 219, 268, 285, 290
- Espainia: 26, 43, 49, 67, 70, 75, 78, 88,
93, 103, 119, 120, 123, 134, 138, 139,
140, 144, 145, 151, 158, 169, 174,
177, 178, 190, 201, 205, 207, 210,
211, 213, 215, 220, 221, 241, 245,
262, 265, 278, 285, 286, 288, 290
- Espainiako gerra: 58, 60, 215, 240, 245,
260, 283, 284, 286
- Espainiako Konstituzioa: 34, 151, 174,
178, 197, 219
- Estado español: *ikus* Estatu espainiarra
- Estatu espainiarra: 70, 71, 106, 119, 121,
138, 157, 158, 159, 160, 167, 168,
169, 205, 207, 213
- Estatuto de Autonomía: *ikus* Autonomi
Estatutua
- Estatuto: *ikus* Estatutua
- Estatutua: 18, 24, 71, 97, 117, 170, 171,
172, 173, 174, 175, 176, 178, 197,
201, 205, 213, 215, 218, 243, 255,
259, 260, 261, 264, 283, 285
- ETA: 18, 36, 47, 48, 51, 59, 60, 147, 191,
218, 248, 249, 250, 251, 264, 265,
282, 290
- Euskadiko Ezkerra: 264, 285
- Euskal kolonia: 107, 108, 246
- Euskara: 12, 13, 14, 18, 19, 24, 25, 26, 33,
34, 37, 38, 41, 44, 45, 52, 55, 58, 66,
70, 74, 89, 95, 103, 104, 112, 128,
131, 139, 140, 150, 151, 152, 158,
163, 165, 166, 168, 179, 185, 187,
199, 201, 203, 205, 218, 219, 220,
221, 223, 225, 226, 228, 237, 238,
239, 243, 244, 245, 247, 248, 249,
250, 254, 259, 266, 274, 275, 279,
285, 289
- Eusko Alderdi Jeltzalea/Partido Naciona-
lista Vasco: 12, 23, 24, 34, 35, 37, 39,
43, 45, 46, 49, 58, 87, 98, 117, 118,
120, 121, 122, 127, 154, 160, 161,
162, 166, 168, 169, 175, 180, 191,
192, 195, 201, 218, 226, 227, 229,
232, 247, 249, 264, 283
- Eusko Alkartasuna: 11, 17, 18, 19, 26, 27,
34, 54, 56, 57, 58, 231, 264
- Eusko Jauriaritza: 18, 24, 25, 26, 27, 34,
42, 48, 49, 65, 66, 67, 68, 73, 75, 90,
99, 99, 118, 139, 147, 157, 161, 174,
182, 191, 200, 202, 207, 208, 212,
235, 243, 249, 255, 261, 264, 267,
275, 283
- Exilio: *ikus* Erbestea
- Ezkerra: 46, 78, 120, 121, 126, 135, 161,
173, 176, 185, 213, 215, 234
- Faxismoa / Fascismo: 72, 76, 77, 78, 124,
126, 127, 143, 182, 287
- Foru Aldundia: 190, 213, 215, 225
- Francia: 68, 77, 88, 119, 211, 270

Frankismoa / Franquismo: 49, 70, 74, 80, 84, 104, 119, 123, 155, 158, 159, 190, 193, 218, 223, 231, 241, 262, 267, 285
 Frantzia: 23, 49, 133, 145, 240, 260, 262, 278, 279
 Galizia: 174
 Genozidioa / Genocidio: 79, 103, 104, 105, 254
 Gerra: 13, 36, 56, 61, 214, 220, 223, 237, 256, 257, 260, 261, 265, 273, 274, 280
 Gogorkeria: ikus Indarkeria
 Guerra de España: *ikus* Espainiako gerra
 Hauteskundeak: 12, 13, 24, 33, 37, 46, 75, 117, 145, 156, 159, 161, 162, 164, 197, 212, 220, 227, 233, 237, 241, 247, 253, 260, 261, 268, 273, 274, 275, 279, 280, 285, 287
 Herri Batasuna: 205
 Hizkuntza: 69, 93, 93, 94, 106, 131, 148, 151, 152, 154, 155, 169, 170, 217, 219, 225, 226, 243, 244, 245, 254, 270, 271
 Identitatea / Identidad: 105, 107, 155, 162, 270
 Ikastola: 139, 169, 266
 Ikurrina: 283, 284
 Indarkeria: 18, 41, 57, 92, 110, 112, 113, 130, 131, 132, 136, 137, 160, 171, 175, 176, 178, 185, 190, 191, 202, 205, 217, 218, 236, 265, 268, 270, 271, 273, 274, 276, 282, 289
 Independentzia / Independencia: 18, 66, 70, 82, 91, 115, 131, 170, 189, 192, 207, 235
 Iraultza: 145, 223, 279
 Irlanda: 45, 69, 114, 195, 238, 286
 Izquierda: *ikus* Ezkerra
 Jakobinismoa: 203, 213
 Justizia / Justicia: 38, 65, 66, 70, 75, 77, 78, 97, 98, 121, 137, 158, 169, 171, 182, 186, 204, 217, 218, 223, 235, 268, 271, 282, 287
 Kapitalismoa: 108, 123, 133, 160, 185, 200, 220, 228
 Karlismoa: 151, 152, 180, 228, 274
 Katalunia: 71, 72, 77, 79, 120, 145, 147, 149, 158, 174, 176, 207, 215, 290
 Klandestinitatea: 34, 39, 40, 44, 46, 55, 58, 126, 166, 193, 198, 261, 265, 284
 Kolonialismoa: 49, 53, 177, 270, 274, 288, 289
 Komunismoa: 76, 84, 123, 124, 133, 143
 Konstituzioa: 157, 169, 174, 175, 178, 191, 201, 233
 Kultura: 11, 12, 13, 14, 25, 26, 27, 34, 35, 57, 69, 70, 83, 89, 92, 93, 101, 103, 104, 106, 109, 110, 115, 119, 125, 131, 132, 138, 145, 148, 152, 154, 158, 164, 184, 190, 195, 247, 249, 271, 280, 287
 Lengua: *ikus* Hizkuntza
 Libertad: *ikus* Askatasuna
 LOAPA: 174, 175, 176, 178, 181
 Marxismoa: 163, 164
 Movimiento nacional vasco: 70, 88, 92, 102, 106, 147
 Mundu Gerra: 240, 241
 Nazioa / Nación: 69, 75, 91, 99, 103, 104, 105, 106, 145, 168, 181, 217, 224, 272, 283
 Nazioartea: 273, 291
 Nazionalismoa / Nacionalismo: 76, 100, 114, 152, 169, 180, 210, 213, 269
 Nazionalista / Nacionalista: 25, 97, 152, 168, 169, 172, 180, 209, 210, 218, 219, 225, 243, 255, 264, 269, 270, 271, 285, 290
 Naziotasuna / Nacionalidad: 34, 67, 76, 145, 152, 158, 164, 178, 181, 196, 203, 207, 208, 220, 224, 244, 252, 280, 288

Partido Socialista de Euskadi: 120, 157, 158, 159, 160, 168, 169, 219
Partido Socialista Obrero Español: 46, 120, 155, 157, 158, 159, 160, 161, 168, 169, 174, 176, 190, 191, 197, 198, 201, 207, 211, 213, 218, 219, 255, 264, 268, 285
Patria: 65, 66, 68, 80, 81, 88, 94, 116, 127, 128, 166, 194
Patriotismo: 71, 77, 78, 84, 87, 88, 90, 92, 94, 98, 118, 120, 124, 129, 144, 154, 185, 192, 193, 200
Paz: *ikus* Bakea
Probintzia / Provincia: 71, 134, 140, 170, 181, 228, 233, 274
Región: *ikus* Erregioa
República: *ikus* Errepublikak
Resistencia: *ikus* Erresistentzia
Sozialismoa / Socialismo: 40, 120, 159, 169, 191, 197, 201, 207, 208, 213, 215, 216, 228, 231, 279, 288, 290
Totalitarismoa: 84, 104, 124, 133, 147
Unibertsitatea / Universidad: 27, 65, 66, 72, 89, 93, 94, 105, 131, 132, 138, 139, 140, 142, 182, 205, 207, 238, 273, 276
Violencia: *ikus* Indarkeria
Zentralismoa: 70, 145, 147, 157, 197, 203, 213, 231, 244, 252
Zentsura: 47, 104, 121, 128, 129, 130, 131, 132, 141, 148, 235
Zuzenbidea: 70, 71, 72, 74, 75, 77, 78, 90, 126, 180